ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-01-13
ASTELEHENA
436. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Deskargako bidesariaren aferan aste erabakigarria izango da hau | 7

## Irati Muxika Soto del Real espetxera eraman dute atxilo | 5

Nostalgia eta molde berriak nahastuta Oñatin, Garirekin | 29



Bergarako Gaztetxea, hardcorearen gotorleku | 33



Beheko postuetatik ihes egiteko puntu garrantzitsuak UDArentzat | 22



# Bakearen alde, elkarrekin

Elkarlanerako abiapuntutzat jo dute deitzaileek zapatuan Bilbon egindako manifestazioa, Euskal Herriko inoizko handienetakoa | 4

**Sortuko eta EAJko Debagoieneko arduradunak analisia egiten, biharamunean.**

JOSETXO ARANTZABAL

SINADURAK


IÑIGO TROJAOLA | 10

LEIRE KORTABARRIA | 10

HORAZIO ARGARATE | 14

AITZIBER PLAZAOLA | 17

MAIALEN ARRAZOLA | 18

IMANOL GALLEGO | 37

XABIER ZUBIZARRETA | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 9 | IRITZIA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



Euskaraz komunikatzea da helburua; hori bai, beti giro atsegin eta lagun artekoan, Oñatiko Auzokokoek argazkian erakusten duten moduan. | URKO EGAÑA

# Geroago eta bizilagun gehiago ditu euskararen auzoak

- Auzoko programa lau herritan daukate dagoeneko
- Euskaratik urruti daudenak gerturatzea da helburua
- Talde berriak sortzea da aurtengo erronka eta nahia

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Euskararen berora elkartzen dira astero Debagoieneko hainbat lagun, batzuk bertan jaioak eta beste batzuk kanpotik etorriak, batzuk euskal hiztunak eta beste batzuk euskara ikasleak. Auzoko izena du hizkuntza eta jatorria askotako jendea koadrila baten bezala elkartzea ahalbidetzen duen programak, eta Topaguneak, batetik, eta euskara elkarteek eta herri bakoitzeko euskalgintzak, bestetik, ipini dute martxan herriz herri. Debagoienean, lau herritan daude dagoeneko euskararen 'auzo' berri horiek: Bergaran, 2010ean hasi ziren, eta iaz gehitu zitzaizkion Aretxabaleta, Oñati eta Eskoriatza. Bergara aitzindaria izan arren, beste hiru taldeek ere badute zer kontatu.

Auzokoren helburua ez da euskaraz ez dakitenek hizkuntza ikastea, baina bai euskaraz ez dakitenak edo euskaratik gertu bizi ez direnak euskarara gerturatzea. Beste helburu batzuk dira bertakoek eta bertaratutakoek harreman-sarea osatzea, koadrila bat moduan; euskara izatea komunikazioaren oinarria; eta elkarren kulturaren eta hizkuntzaren berri jasotzea, lagunartean eta modu informalean.

**DATUA**

**60**
PARTAIDE
Bergaran, Oñatin, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, 60 auzotar eta auzokide inguru dabiltza Auzokon. Denak ez dira astero–astero joaten.

**3**
URTE
Bergara da herri aitzindaria; 2010ean hasi zen han Auzoko programa, Topagunearen eskutik eta Jardunek eta Udalak lagunduta.

### Emakumeendako bakarrik

Topagunearen eskutik eta Udalaren eta Jardunen laguntzarekin, Bergaran hasi zen Auzoko, 2010ean. Han, dagoeneko bi talde daude: bat Lagun Talde Zabala deitzen dutena, egubakoitzero, 18:00etan batzen dena kultur etxeko ganbaran; eta, iazko ikasturtea ezkero, emakumezkoen taldea ere, 17:00etan batzen dena. Izan ere, talde zabalean auzokide guztiak gizonezkoak ziren. Fenomeno bera gertatu da Eskoriatzan ere. Bergarako dinamizatzaile Aitziber Plazaolak honela azaltzen du: "Ordutegia dela -eta, emakumeen kasuan, bestelako lan batzuk egiten dituzte, nahitaez erantsita, haurren zaintza, etxeko lanak... horrek asko lotzen ditu eurak. Beste arazo bat da ez daudela ohituta askotan modu publikoan gizonezkoekin batera hainbat ekintzatan parte hartzera. Errealitatea zen talde iraunkor bat geneukala, mugatuta ez zegoela baina bakarrik gizonezkoena zena". Hala, bakarrik emakumeek osatzen dute bigarren taldea; hori horrela izatea beharrezkoa ikusi dute arduradunek, emakumezko auzokideek konfiantza har zezaten.

Bergarako talde zabalean 20 lagun ibili ziren iaz, eta 12 daude urte hasieran; emakumeen taldetik 15 lagun pasa dira, eta sei dabiltza astero-astero; talde bakoitzean bizpahiru auzotar dabiltza.

Argitu behar da Auzoko ez dela etorkinei bakarrik zuzendutako programa, baizik eta, Plazaolaren esanetan, "euskaratik hurbil eta euskaratik urrun bizi garenok elkartzeko" modu bat eta elkartze hori euskaraz egiteko modu bat. Horregatik, edozein arrazoirengatik euskaratik urruti bizi den edozein izan daiteke auzokide. Orain arte, bailarako auzokide gehienak etorkinak dira, baina ez denak.

Aretxabaletan, martxoan hasi zuten taldea 14 auzotar eta auzokidek; euskaldunez gain, sahararrak, kurduak, sevillarrak, mexikarrak eta galiziarrak daude; Oñatin, lau auzotar eta 10 bat auzokide daude, azken horiek espainiarrak (Toledo, Malaga eta Madrilgoak), argentinarrak, ginearrak, ruandarrak, pakistandarrak, kubatarrak eta kolonbiarrak; Argentinako eta Kolonbiako kideak bakoitza bere umearekin joaten denez, taldea handiagoa izaten da batzuetan–; eta Eskoriatzako taldea azaroan hasi zen, hiru auzotar eta zazpi auzokiderekin –Pakistan, Maroko eta Saharako auzokideak dira–.

### Lokaletik kalera

Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko arduradunak sarri batzartzen dira, ekintzak koordinatzeko eta ideiak elkartrukatzeko; dena dela, Aitziber Plazaolak dioenez, "herri bakoitzak bere ezaugarriak" ditu. Adibidez, Aretxabaletan, beste herrietan ez bezala, emakumeak dira auzokide gehienak, eta emakumeek bakarrik osatzen dute taldea. Beraz, aurtengo helburu gisa, "taldea indartzea eta jende berriarekin beste talde bat sortzea" dute, Irati Urkia dinamizatzaileak dioenez.

Dena dela, funtzionatzeko modua eta helburuak berberak dira denen kasuan. Auzotarren artean, batzuek ez dakite euskaraz ezer, beste batzuk euskaltegian dabiltza eta zer edo zer badakite, baina oso maila apala izaten dute horiek ere. Hala ere, komunikazio-hizkuntza euskara izaten da ahal den neurri handienean, Oñatiko taldeko arduradun Urko Egañak dioenez: "Euskaraz hitz egiten dugu, euskara ulerterrazean, eta gero ulertzen ez dutena erdaraz azaltzen diegu".

Koadrila baten erara batzen dira, eta horrek ere euskal kulturako beste berezitasun batekin




Eskoriatzako auzokide eta auzotarrek Txirikila egunean parte hartu zuten. | MIRIAM ISASMENDI

familiarizatzeko balio die Euskal Herritik kanpoko auzokideei. Egañaren esanetan, "euskal kultura eta, horren barruan, euskara lantzeko aukera da Auzoko. Hala, gastronomia lantzen dugu eta afari bat egin dugu, hemengo platerekin, baina, datozen hilabeteotan, auzokide bakoitzak bere herrialdeko errezeta bat egingo du; pintxo-poteoa ere egiten dugu eta tarteka egiten jarraituko dugu..." Horrela, ikasgelatik urruti, euskaraz gero eta gehiago hitz egiten entzuten dute atzerritarrek, eta hemengo ohiturak bereganatzen dituzte modu ludikoan.

Euskara nola lantzen duten adibide batzuk ematen dizkigu Bergarako dinamizatzaileak: "Normalean, eguneroko bizitzan baliagarri izan daitezkeen gauzak lantzen ditugu, gero, kalean erabili ahal izateko. Horien artean, ordua, zenbakiak, janariak, arropak, eguraldia, gure buruak aurkezten..." Aretxabaletan, egun baten, fruten izenak ikasi zituzten eta, gero, denda batek ateak ireki zizkien, euskaraz, fruta horiek erosteko. Fruta-burruntzia egin zuten erositako guztiarekin.

Ekintza herrikoietan ere parte hartzen dute: Bergaran, Mokolo Eguna eta Erramu Zapatua; Korrika; pintxo-poteoa; Eskoriatzan, Silbestrada; Aretxabaletan, Korrikan parte hartu zuten, eta aurtengo zenbait ideia dituzte; ipuin-kontaketa egin gurako luke-te, herriko jaietan parte hartu...

Kasu guztietan, lokal bat dute, baina kalera irteten dira, beste herritarrekin nahastu, komunikatu eta ikastera.

### ESANAK

**"Eguneroko bizitzako hitzak ikasten ditugu: janaria, arropa, ordua..."**

AITZIBER PLAZAOLA
BERGARAKO DINAMIZATZAILEA

**"Eskoriatzan zenbat hizkuntza egiten diren konturatu gara"**

MIRIAM ISASMENDI
ESKORIATZAKO DINAMIZATZAILEA

**"Gastronomia lantzen hasi gara, eta pintxo-poteoa egiten dugu"**

URKO EGAÑA
OÑATIKO DINAMIZATZAILEA

### Hizkuntza asko

Hizkuntza barne, euskal gizartean aldatu den guztia islatzen du Auzokok, Aretxabaletako aurreko dinamizatzaile Larraitz Arandok dioen moduan: "10-20 urtean gure herrietako errealitatea asko aldatu da; esaterako, lehen elebidunak baginen, orain eleanitzak gara, gurera bizitzera etorri direnengatik".

Beste arrazoietako bat da euskal komunitateak eta gainerako komunitateek oso gutxitan dutela kontaktua: "Euskaldunok elkarte, taberna eta kaleko gune zehatzetan mugitzen baldin bagara, euskaratik urruti daudenak anbulatorioan, Caritasen inguruan eta Helduen Heziketa Iraunkorrean elkartzen dira. Ez dugu harremanik izaten, eta, egoera horretan, euskara irteten da galtzaile". Lehendik ez bazekiten, Auzokon parte hartzen duten auzokideek Euskal Herriaren historia pixka bat eta euskara dagoela ikasten dute, beste gauza batzuen artean. Euskal Herrira ailegatzen direnean, gehienek ez dute horren berri izaten.

Horrela, auzotarrek auzokide horiek dakartena deskubritzen eta baloratzen ikasten dute, haien hizkuntzak, ohiturak, janariak... Aitziber Plazaolak honakoa esaten du: "Nik asko ikasten dut. Auzokideek aditzera ematen digute Euskal Herrian ez dagoela kultura eta hizkuntza bakarra, baizik eta Euskal Herria eta euskara dela denon artean konpartitu dezakegun hori, baina bakoitzak hori bizitzeko bere modua dauka eta horrek ekarpen handia egiten digu".

### Dagoena sendotu gura dute

Miriam Isasmendi hasi zen Eskoriatzako Auzoko dinamizatzen joan den azaroan. Oso ibilbide laburra izan arren orain artekoa, pozik dago: "Eskoriatzan zenbat hizkuntza dauden kontzientzia hartzeko balio digu, eta denok euskaraz komunikatu gaitezkeela konturatzeko". Aurtengo helburu gisa, sortu den taldea errotu nahi dute, eta emakumeendako bakarrik den taldea osatu. Gainera, auzotarrak animatu gura dituzte eurekin bat egitera; egubakoitzero elkartzen dira kultur etxean, 15:00etan.

Oñatin ere, oraingo taldea sendotu eta bigarren taldea sortzen ahaleginduko dira, lehenengo deialdian zenbait lagun interesatu zirelako baina azkenean ezin izan zirelako taldean sartu. Eguen iluntzetan elkartzen dira.

Bergararen kasuan, bi taldeak indartuko dituzte aurten; herrian Auzoko ezagutarazi eta bertara auzokide zein auzotar gehiago inguratzeko lanean jarraituko dute.

## Auzoko kide izateko

**ARETXABALETA**
Udaletxe zaharrean, egubakoitzetan, 15:00etan batzartzen dira. Parte hartzeko, nahikoa da bertara joan edo Loramendin galdetzea.

**OÑATI**
Bidebarrietan, lehen Laixan zegoen lokalean elkartzen dira, eguenero.

**BERGARA**
Kultur etxeko ganbaran dute topagunea; lagun talde zabala egubakoitzetan, 18:00etan, eta emakumeen lagun taldea martitzenetan, 17:00etan. Facebook-en *Auzokobergara* profila dute.

**ESKORIATZA**
Kultur etxean elkartzen dira auzotarrak eta auzokideak, egubakoitzetan, 15:00etan. Bloga dute: *auzokoeskoriatza.blogspot.com.es.*



# Bilbon itsasorik ez, baina bakearen alde marea izugarria bai

- 110.000 lagun batu ziren, Udaltzaingoaren arabera
- Debagoienetik asko izan ziren bertara joan zirenak
- Elkarlanerako abiapuntutzat jo zuten deitzaileek



Arrasatearrak autobusera igotzeko gertu, zapatu goizean. | I.G.

**IRATI GOITIA** | BILBO

Manifestazio baten osteko zifren dantza izan dugu oraingoan ere, ohikoa den bezala, baina zifrak zifra, argi geldituda inoizko mobilizazio handienetarikoa izan zela zapatuan Bilbon *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* lelopean egin zena. Debagoiendar asko izan ziren bertan. Oñatitik zazpi autobus, Bergaratik beste zazpi, Arrasatetik sei, Gatzagatik bat eta Antzuolatik ere beste bat atera ziren, besteak beste. Ugari izan ziren autoan joandakoak ere.

**Autonomia kolapsatuta**

18:00etan puntu-puntuan hasi zen manifestazioa. Ordurako jendetza zegoen batuta La Casillan. Pankarta ireki eta lehen urratsak ematen hasi ziren eragile deitzaileetako ordezkariak, tartean, Deiane Arrieta eta Amaia Zabaleta debagoiendarrak. Laister gelditu behar izan zuten, baina. Izan ere, Autonomia kalea kolapsatuta zegoen eta ezin aurrera egin gelditu ziren une batez. Poliki-poliki egin zuen aurrera manifestazioak.

**Isiltasuna hautsi**

Isila izan behar zuen, baina txalo eta oihuek behin eta berriz hautsi zuten isiltasuna. Gehien entzun zirenak izan ziren "presoak kalera, amnistia osoa" edo "presoak etxera". Joan den astean Guardia Zibilak atxilotutako EPPK-ko bitartekariak ere izan zituzten gogoan. Udaletxera pankarta igo eta amaitzean, 19:25ean, entzun zen azken txalo zaparrada eta manifestariek *Zain dago ama, zain aita* abestu zuten.

Elkarlanerako abiapuntutzat jo zuten deitzaileek manifestazioa eta ordezkaritza politiko zabala izan zen bertan.

**DEIANE ARRIETA** | ELA-KO KIDEA

## "Ohorea izan da pankarta eramatea; une askotan, oso hunkigarria izan da"



I.G.

Deiane Arrieta aretxabaletarra ELA sindikatuko kidea da eta manifestazioan egiteko berezia izan zuen. Gainerako eragile deitzaileetako ordezkariekin batera, pankarta eraman zuen, La Casillatik udaletxeraino.

**Askok historikotzat jo dute gaurkoa. Nola sentitu zara pankarta eramaten? Ohorea izan al da?**

Bai, benetan baietz. Manifestazio oso berezia izan da. Urtetik urtera pentsatzen dugu historikoa izaten dela, baina hau oso berezia izan dela uste dut, eta hala, sentsazio bereziak bizi izan ditut. Askotan, manifestazioa aurretik zihoala zirudien eta une askotan oso zirraragarria izan da niretzat.

**Noiz jakin zenuen pankarta eraman behar zenuela?**

Atzo [egubakoitza] iluntzeko zortzietan. Egia esan, ez nuen espero halakorik. Oso pozik nago.



**MAIALEN GURIDI**
ANTZUOLA

"Beti borroka berdinean gabiltza eta nik uste beti dela garrantzitsua espetxeetan dagoen egoera azaleratzea. Zentzurik ez duten erabakiak hartzen dituzte kanpotik. Komenigarria da hemen egotea, aurretiaz ere bagentozen".



**JULEN BIAIN**
OÑATI

"Nahiko autobus etorri dira Oñatitik eta hemen jendetza dago jada, pozik gaude. Espero dugu arrakastatsua izatea. Urtero dugu etortzeko ohitura, baina ea hurrengo urtean Bilbora etorri beharrik izaten ez dugun".



**IBAN GARAI**
ARRASATE

"Segurtasunean laguntzen ibiliko gara. Giza eskubideengatik, euskal presoak Euskal Herrian egon behar direlako, konponbidearen alde gaudelako, herri honek bakea behar duelako eta beste mila arrazoirengatik gaude hemen".



**MAIDER OTAMENDI**
ESKORIATZA

"Euskal presoen eskubideen alde ea olatu erraldoi bat osatzen dugun euskaldunok elkarrekin eta nonbaitetik ikusten duten. Atzo zalantzan egon ginen etorri edo ez, ume txikiak ditugu–eta, baina geroko deialdiaz hemen gaude".



**LOURDES IDOIAGA**
OÑATI

"Etorri beharrekoa zen. Oso aste gogorra izan da: atxiloketak eta debekua. Izan ditugu diferentziak, baina Madrilen erasoen aurrean ezin da gehiago eutsi, interes politikoak ezin dira onartu".



**IÑIGO ARREGI**
BERGARA

"Konponbidearen bidean hurrengo urratsa preso eta iheslarien auzia konpontzea da. Horretarako herriak bultza egin behar du eta horretara etorri gara, Gobernuari esatera badela ordua".




*Giza eskubideak, konponbidea, bakea* lelopean, zapatuan Bilbon egin zen manifestazioaren burua. | I.G.



Sortuko Ibai Redondo eta EAJko Jose Migel Uribarren, atzo, egunkariak irakurtzen . | JOSETXO ARANTZABAL

# Konponbiderako urratsak elkarlanean

**Ibai Redondo, Sortuko bailarako arduraduna, eta Jose Migel Uribarren, EAJko bailarako arduraduna, batu ditugu kafe eta egunkarien bueltan. Biak izan ziren zapatuan Bilbon egin zen manifestazioan. Izan zituzten inpresioez eta etorkizunera begirako urratsez jardun gara eurekin. Batak zein besteak argi dute elkarlana beharrezkoa dela eta biek diote abertzaleez haratago bilatu behar direla adostasunak.**

**IBAI REDONDO**
SORTUKO BAILARAKO ARDURADUNA

## "Herritarrek argi erakutsi dute alderdiak elkarlanean aritzea nahi dutela"

**Ze inpresio utzi dizu zapatuko manifestazioak? Historikoa izan al da?**
Izugarrizko manifestazioa izan zen eta historikoa bi arrazoirengatik: batetik, bertan egon zen kopurua historikoa izan zelako, inoiz ez da mobilizazio politiko baten horrenbeste jende egon; eta bestetik, Lizarra-Garaziko garaietatik ez delako abertzaletasun guztien ordezkapen bateraturik lortu.
**Zer iruditzen zaizu EAJ eta Sortu elkartu izana manifestazio bateratua deitzeko?**
Uste dut herritarrek eskatzen dutela, abertzale guztiak batuta, herri honek dituen arazo nagusiak konpontzea. Gu dagoeneko denbora dezente goaz esaten ezinbestekoa dela, gutxienez, euskaldunak eta abertzaleak batzea, dauzkagun erronkei aurre egiteko eta alde horretatik oso pozik gaude.
**Manifestazio isila deitu zenuten. Txaloek eta oihuek isiltasuna hautsi zuten...**
Bai, nik uste dut jendeak barruan duen ilusioa, gogoa eta esperantza ez dagoela inondik inora kontrolatzerik eta hori azaleratu zen. Dena dela, nik uste dut jendea, orokorrean, gustura eta komodo egon zela.
**Manifestazio bateratua salbuespena izan da ala inflexio puntua? Ikusiko ditugu EAJ eta Sortu ekimen bateratuak bultzatzen? Zeintzuk?**
Uste dut inflexio puntua izango dela. Guk uste dugu izan behar duela hasiera bat eta ez helburua. Pentsatzen dut herritarrak alderdi politikoen aurretik doazela eta herritarrek argi eta garbi, eta bereziki atzo, eskatu zuten ozen (isiltasunez edo zarataz) EAJ eta EHBilduk, besteak beste, batera lan egin behar dutela. Hain zuzen, elkarlan bat lortzeko lanean ari gara eta derrigorrez lortu behar dugu erabakitze eskubidea eskuratzeko edo presoen gaia konpontzeko. Bi gauza horietan nahiko ados egon gaitezke, gutxienez. EAJ eta ezker abertzaleak adostasunak lortzen jardun dute, baina nik uste dut hortik haratago joan behar garela.
**Espainiako Gobernua ez da mugitzen ari. Hortaz, zer egin behar da prozesuak aurrera egin dezan? Zeinek eta zer egin beharko luke?**
Espainiako Gobernuak ez du inolako intentziorik mugitzeko, ez duelako herri honi inolako eskaintzarik egiteko. Gainera, ez dut uste epe motzean mugituko denik. Guk pentsatzen dugu gatazkaren konponbidearen eta erabakitze eskubidearen alde herritarren %70-80a badagoela. Hori artikulatu behar da esparru guztietatik (alderdi politikoak, mugimendu sozial eta sindikalak...). Herri-gogo hori antolatu, azaleratu eta praktikara eramatea da gakoa. Beraz, denok eman behar ditugu urratsak: instituzioek, alderdiek, eragileek eta herritarrek.

**JOSE MIGEL URIBARREN**
EAJ-KO BAILARAKO ARDURADUNA

## "Normalizazio politikoa lortzeko beharrezkoa da guztion elkarlana"

**Ze inpresio utzi dizu zapatuko manifestazioak? Historikoa izan al da?**
Manifestazio handia izan zen, zalantzarik ez. Oso handia. Historiko hitza gehiegitan erabiltzen denaren susmoa dut, hala ere. Zerbait historikoa izan den edo ez, historiak berak soilik esan dezake, ez bezperan bertan egon den batek.
**Zer iruditzen zaizu EAJ eta Sortu elkartu izana manifestazio bateratua deitzeko?**
Entzutegi Nazionalak Tantaz Tanta elkarteak deitutako mobilizazioa bertan behera utzi zuenean, Espainiako Gobernuak eta Estatuko botereek, elkar hartuta, duten jarrera argi geratu zen. ETAren biolentzia bera pil-pilean zegoela ere egin izan dira antzerakoak; debeku erabat arbitrarioa izan zen. Bultzada politiko hutsa izan da arrazoia. Inoiz baino argiago geratu da Alderdi Popularrak bake prozesua erraztu beharrean, nahiago duela kontrakoa egitea. Egoera horri aurre egin behar geniola erabaki genuen. Ondorioz, beste manifestaldi baten deialdian parte hartu genuen. Madrili stop esateko eta, bide batez, ezker abertzaleari oraindik ere egiteke dauzkan etxeko-lanak behingoz gauzatu ditzan eskatzeko eta baita ETAri bereak egiteko ere. Hitz gutxitan, bake eta bizikidetza prozesuari bultzada emateko gaudela adierazteko.
**Manifestazio isila deitu zenuten. Txaloek eta oihuek isiltasuna hautsi zuten...**
Bai, nonbait isiltasun hitzaren esanahia ezagutzen ez duen jendea egon badago. Txaloak ere entzuten ziren oihuak isiltzeko.
**Manifestazio bateratua salbuespena izan da ala inflexio puntua? Ikusiko ditugu EAJ eta Sortu ekimen bateratuak bultzatzen? Zeintzuk?**
Manifestazioak egoera oso larri bati erantzuna eman dio. Egoera puntual bati. Gure lehentasuna beti izan da bakea eta herri honetan elkarbizitza sustatzea. ETAk armak uztea erabaki zuenetik, EAJk egunero egin ditu bakea eta bizikidetzaren aldeko aldarriak, eta baita lankidetza ezinbestekoa duten ekimenak abian jarri ere. Gure herriaren normalizazio politikoa lortu behar badugu, abertzale guztion arteko lankidetza beharrezkoa izango da. Indar abertzaleok gure artean lehiatu bai, baina kooperatu ere egin behar dugu, baita adostasunak lortu ere abertzaleez haratago.
**Espainiako Gobernua ez da mugitzen ari. Hortaz, zer egin behar da prozesuak aurrera egin dezan? Zeinek eta zer egin beharko luke?**
Espainiako Gobernua eroso sentitzen da irabazle-galtzaile eskeman gotortuta. Presoek emandako adierazpena garrantzizkoa da. Eta, nola ez, ETAk armak uzteak egoera erraztuko luke. Ez da bide erraza izango, baina EAJ horretan ari da.

# Irati Muxika Soto del Real espetxean da eta bertan izango da epaiketa amaitu arte

## Aramaioko Udalbatzak atxilotzea gaitzetsi zuen, egubakoitzean egin zuen ezohiko bilkuran

G.A. / I.G. | ARRASATE

Irati Muxika eguenean atxilotu zuten Aramaion eta Martutenen espetxeratu zuten. Zapatuan, Madrilera eraman zuten, Auzitegi Nazionaleko epailearen aurretik pasatzeko. Behin hori eginda, Soto del Real espetxera eraman zuten Aramaion bizi den gazte amezketarra.

Epailearen asmoa da euskal gazteen kontrako auzian inputatuta daudenekin batera epaitzea, baina fiskalaren eta akusazio partikularraren iritzia jaso nahi du erabakia hartu aurretik. Eguen honetan, hilak 16, izango da gazteen aurkako epaiketaren hurrengo saioa, eta ordurako emana izango du erabakiaren berri. Epaiketa horrek irauten duen bitartean, Soto del Real espetxean egongo da Muxika.

**Ezohiko bilkura eta eserialdia**

Ezohiko bilkura egin zuten Aramaion egubakoitzean eta Udalbatzak aho batez onartu zuen Muxikaren atxilotzearen eta gero gauzatu zen espetxeratzearen harira irakurritako adierazpen ofiziala. Alde bozkatu zuten Bilduko eta Aramaioko Alkartasuneko zinegotziek; EAJkoa ez zen bilkuran izan. Besteak beste, Muxikaren atxilotzea eta balizko espetxeratzea gaitzetsi zituzten. Era berean, estatu espainiarrari eta frantsesari dei egin zieten gatazka politikoa konpontzeko prozesu honetan pausuak eman ditzaten. Aramaioko eta Debagoieneko hainbat lagun batu ziren bilkuren aretoan. Amaitutakoan, eserialdia egin zuten herri sarrerako biribilgunean eta Muxikaren agur bideoa ikusi.



Ezohiko bilkuran bozkatu zuten unea. | IMANOL SORIANO



Irati Muxikariren atxiloketa salatzeko eserialdia. | I.S.

# Arreta soziosanitarioan lan egiteko titulazio zehatza beharko da 2015ean

## Etxez etxeko arreta eskaintzen dutenek titulazio berezia beharko dute

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA

2015. urtean titulazio berezi bat beharko dute pertsonentzako etxez etxeko arreta soziosanitarioa eskaintzen duten langileek eta baita erakunde sozialetan mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa eskaintzen duten langileek ere. Titulazio hori baliozkotu edo konbalidatu nahi dutenak Aretxabaletako Lanbide Heziketa eskolara joan beharko dira hilaren 17a baino lehen.

Titulazio hori izan ez baina aurretik ateratako titulazioak badituztenek edo ziurtatutako lan esperientziak ere badituztenek, titulu berri hori baliozkotu edo konbalidatu beharko dute, eta horretarako, dispositibo bat jarri dute martxan. Datorren egubakoitza baino lehen, hau da, hilak 17 baino lehen, Aretxabaletako Lanbide Heziketako eskolara joan beharko dira konbalidazioak eskatu nahi dituztenak. Dispositiboaren helburua da orain arte formazioa jaso dutenei edo lan esperientzia izan dutenei orduak konbalidatzea.



Elena Molina, Miren Errasti eta bere biloba Nikole. | AMAIA TXINTXURRETA

Pertsona batzuei gertatuko zaie ez dietela guztia konbalidatuko eta, egoera horretan daudenendako, Aretxabaletako Lanbiden moduluak eta kurtsoak jarriko dituzte.

### Langileen kezkak

Elena Molinak, adibidez, 20 urte daramatza nagusiak zaintzen eta azken 15 urteetan etxez etxeko zerbitzuan dihardu lanean, Udal langile moduan. Horretan lanean diharduten pertsona ugari daudela kontatu digu eta EAEn 400 plaza bakarrik atera dituztela: "Tribunalaren dispositiboa bi aldiz bakarrik atera da azkenaldian eta Euskadin etxez etxeko zerbitzuan langile asko gaude. Ezin izango gara sartu guztiok, izan ere, orain, adibidez, Euskadin 400 plaza atera dituzte eta ez dakit guztiok sartu ahal izango garen. Ematen dituzten kurtsoak ere 12 lagunendako izaten dira gehienez eta asko gara. Ez dakigu ea 2015erako guztiondako nahiko dispositibo aterako dituzten edo ez". Hala ere, Aretxabaletako Udaletik prestutasun handia eta laguntza jaso dutela adierazi du. Izan ere, kurtsoak eskainiko dizkiete, arazoari aurre egiteko asmoz.

### Datu erabilgarriak

Aretxabaletako Lanbide Eskola 08:30etik 17:30era bitartean dago irekita. Ikasketa ziurtagiria eta lan esperientziaren ziurtagiria eraman beharko dira bertara. Horrelakorik ez dutenek eskolan informazioa eskatu beharko dute, ikastaroan apuntatu eta kurtsoa egin beharko baitute.

Apotzaga–Etxebarri auzoan dago kokatuta Aretxabaletako Lanbide Heziketa eskola. Informazio gehiago lortzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 79 00.

# Debagoiendarrak VI.Hausnartu soziolinguista sarien irabazleak

A.E. | DEBAGOIENA

Lehen eta hirugarren sariak Debagoieneko lanei eman dizkiete. Lehen saria EMUN talde arrasatearrak aurkeztutako lanari eman diote: *Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako.* Haritz Goikoetxea EMUNeko kideak eraman du lanaren ardura eta oso pozik azaldu da lortutako sariarekin.

Lehen saria, 1.500 eurokoa da; bigarrena, aldiz, 1.000 eurokoa, eta Garbiñe Bereziartua DREAM taldeko kideak eraman du. *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo* izenburutzat daraman lana aurkeztu du Bereziartuak.

Hirugarren saria Huheziko irakasle talde batek irabazi du. Taldea Goio Aranak, Eneko Bidegainek, Txema Egañak eta Aitor Zuberogoitiak osatzen dute eta 700 euro lortu dituzte. Lanak *Sormen-ekosistema bat euskarazko komunikazioarentzat* izenburua darama eta oso gustura azaldu dira albistearekin: "Oso pozik gaude hirugarren saria lortu izanagatik. Lehen aldia da halako lehiaketa batera aurkezten garela. Gainera, BAT aldizkarian aterako da eta oso interesgarria iruditzen zaigu, leku aproposa delako informazioa argitaratzeko".

## Salmenta osteko zerbitzua normal ematen jarraitzen dutela adierazi dute Fagor Etxetresnetatik

Fagor Etxetresnek salmenta osteko zerbitzua ematen jarraitzen dutela jakinarazi du kooperatibak, prentsa ohar bidez. Bezeroari erantzuteko telefono zenbakia, webgunetik ematen den salmenta osteko zerbitzua eta laguntza tekniko zerbitzu guztiek "normal" lanean jarraitzen dutela esan du. Bezeroei erantzuteko telefono zenbakia 902 10 50 10 dela ekarri dute gogora Fagor Etxetresnek, eta webgunearen bitartez salmenta osteko zerbitzuak beti bezala jarraitzen duela gehitu. Gaineratu dutenez, "Espainian zehar dauden Laguntza Tekniko Zerbitzu (SAT) guztiek betiko zerbitzua normal ematen jarraitzen dute".

# Espainiako bandera jartzeko derrigortasuna salatu eta omenaldia egin diote ikurriñari

## Gaurtik aurrera Espainiako bandera herriko udaletxean jarrita egongo da

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Txalaparta hotsez eman zioten hasiera ikurriñaren aldeko ekitaldi xume baina sentikorrari. Aitzol Iturbek bertsoa bota eta dantzari talde batek ikurrin dantza dantzatu zuen, herriko plazan elkartutako herritar talde handiaren aurrean.

Aritz Saidi zinegotziak Udalaren izenean hitza hartu zuen ondoren, "frankismo garaian ikurriña debekatu eta espainiar bandera inposatu" zietela esanez. "Gaur, Franco hil eta 38 urtera, espainiar sasidemokraziak, euskal herritarroi diguten errespetuaren erakusle, Antzuolako udaletxean, berriz ere, Espainiako bandera ezartzera behartu gaitu". Horregatik, "herritarren borondatearen kontrako inposaketa hau salatu eta geurea denaren aldarrikapena egiteko" batu zirela gaineratu zuen Saidik.

Ondoren, Hodei Letek gitarra hartu eta *Zazpiak oihal batetik* abestia kantatu zuen herritarrekin batera, plazaren alde batean kokatutako ikurrin handia altxatzen zuten bitartean. Txalo zaparrada handi batekin amaiera eman zioten omenaldiari. Atzo gauetik, beraz, espainiar gobernutik jasotako agindua betez, Espainiako bandera izango da udaletxeko fatxadan.



Ikurriñari omenaldia egin zioten egubakoitzean herriko plazan. | A.E.

Herritarrak, halaber, ikurriñak leihoetan jartzeko deialdiari jarraiki, ikurriñak erosten aritu ziren ekitaldi amaieran. Zeuden guztiak bukatu zirenez, eskaera berria egin zuten eta aste honetan lortu ahal izango dira berriz, bost euroren truke, gaztetxean zein udaletxean.


Deskargako tuneleko bi aldeak elkartu zituzten unea. | ALDUNDIA

# Deskargako aferan aste erabakigarria

## Oposizioko alderdiek eginiko osoko zuzenketak eztabaidatuko dituzte Batzar Nagusietan asteon

I.G–J.B. | ARRASATE

Deskargako GI-632 errepide berriko bidesariaren gaineko aferak aurrera jarraitzen du eta aurreko asteko azken kapituluaren ostean, oraingo astea erabakigarria izango da. Izan ere, eguazten honetan aurkeztuko dituzte Batzar Nagusietako osoko bilkuran oposiziotik Arkuperen aurka eginiko osoko zuzenketak. Litekeena da Bilduk proposatzen duen Arkupe sistemak aurrera ez egitea.

**Mugikortasun Batzordea**

Azpiegitura eta Mugikortasun diputatu Larraitz Ugartek berak eskatuta, Mugikortasun Batzordea bildu zen joan zen eguenean. Bertan, Ugartek Deskargako egoera zein den azaldu zuen. Horretaz gain, diputatuak oposizioari ohartarazi zion Arkupe sistema onartu ezean, Aldundiak banketxeekin arazoak izango dituela: "2011n Olano buru zuen Aldundiak 900 milioi euroko zorra hartu zuen bere gain banketxeekin eta Deskargan bidesaria jarriko zuela hitzartu. Beraz, bidesaria ez jartzea urratze larri bezala hartu dezakete banketxeek eta kreditua itzultzea eska dezakete". Zor horri Aldundiak ezin diola aurre egin esan zuen Ugartek. Horren aurrean, oposizioko alderdiei euren proposamena zein den azaltzeko eskatu zien. Gainera, Aldundiak erabakia Batzar Nagusietatik pasa gabe hartu zuela esan zuen Larraitz Ugartek eta txosten juridikoak aurkeztu zituen hori hala egin behar dela frogatzeko.

**Oposiziotik**

Aintzane Oiarbidek honakoa eskatu zion Ugarteri: "Ez nahastu Deskargan bidesaria jartzeko beharra eta Arkupe sistemaren ezarpena". Gaineratu zuen Arkupek ez duela gipuzkoar gehienen babesa eta har ditzatela aintzat lehengo legealdiko bidesarien gaineko talde-txostengilearen ondorioak, "alderdi politikoen zein gizartearen gehiengoaren adostasuna" dutelako, bere iritziz. Bestalde, "Ugartek EAJri leporatutako ezkutukeria" ukatu zuen Oiarbidek, nahiz eta onartu zuen "Batzar Nagusien onarpen espezifikorik" ez zela egon. Horrenbestez, alderdi jeltzaletik Deskargako foru arau propioa egiteko eskatu zuten. Ugartek erantzun zien haiek sinatu zutela hitzarmen hori banketxeekin, eta beraz, nahi badute eurek aurkezteko foru arau bat euren aldetik, kontra-erreforma fiskalarekin egin duten bezala.

PSE-EEk ere Deskargako bidesarirako foru araua aurkezteko eskatu zuen, baina ez zuen bermatu aurkeztuz gero babestuko duenik. Bestalde, PPtik esan zuten "negoziazio bide guztiak" bilatu behar direla. Ugartek erantzun zuen Foru Gobernu honek "ahal zuen guztia" egin duela adostasunak bilatzeko eta ez duela zentzurik gaia gehiago luzatzeak, baina eguaztenera bitarte hitz egiteko prest dagoela.

**Batzar Nagusietatik**

Zehazki, eguaztenean aurkeztuko dira oposizioak eginiko osoko emendakinak. "Gobernu honentzat izugarrizko injustizia izango litzateke Deskargan bidesaria jartzea eta beste batzuk sinatutakoa gauzatu beharra. Ondorioak, baina, larriak izan daitezke eta baloratu egin beharko da zer egin".

# 'Txarli' ESK-ko kide oñatiarra inputatu dute

## Bilkura egingo dute bihar Bergarako epaitegiaren aurrean inputazioa salatzeko, 10:30ean

L.K. / I.G. | ARRASATE

ESK sindikatuko kide Juan Luis Marquez Villar *Txarli* oñatiarra inputatu egin dute Osunan (Sevilla) dagoen Las Turquillas finkaren okupazioan parte hartu izanagatik. Hori dela-eta, ESK-k kale-bilkura deitu du biharko, hilak 14, Bergarako epaitegiaren aurrean.

**Okupazioa**

Las Turquillas finkaren okupazioak oihartzuna izan zuen Espainiako komunikabideetan. Andaluziako Langileen Sindikatuak (SAT) gidatu zuen, eta ESK-ko delegazio batek ere parte hartu zuen. Hona hemen ESK-k dioena: "%40ko langabezi tasa duen lurralde batean, SAT sindikatuak gidatutako okupazioak lur horien erabilpen soziala erreklamatzen du. Sindikatutik egiten ditugun estimazioen arabera, 130 lanpostu finko sor daitezke finkaren erabilera sozialetik". Gogora ekartzen dute honakoa ere: "Finkak erabilpen militarra du eta zaldi batzuk hezteko besterik ez da erabiltzen 1.200 hektareako eremu hori". Eta zehazten dute sindikatuak urteetan bizi izan dituela Las Turquillasen eginiko okupazioengatik errepresalia politiko eta judizialak.

Hain zuzen, okupazio horregatik inputatu dute Marquez, usurpazio delitu bategatik. Inputatutako ESK-ko kideak Bergarako epaitegian deklaratu beharko du. "Egoera honen aurrean, langileriarengan estatuak eragindako errepresio judiziala eta poliziala erabiltzen duen sistema kapitalistari txartel gorria atera behar diogu", diote sindikatutik, eta dei egin dute hilaren 14an, martitzena, epaitegiaren aurrean batzera, 10:30ean. Horretaz gain, oñatiarrari babesa erakusteko deialdia ere izango da. SATek ordezkaritza bidaliko du Bergarara.

**SATen hitzaldia**

Horrez gain, Euskal Herrian *La lucha obrera del pueblo andaluz* delako hitzaldiak egingo ditu SATeko kide Andres Bodalok. Arrasaten, Ermuan eta Irunen izango da. Arrasateko hitzaldia hilaren 15ean, eguaztena, izango da, Kulturaten, 18:30ean.


Gurutze Gorrian egiten dabiltzan lanak, Elorregin | I.G.

# Anbulantzia batentzako garajea egingo dute Gurutze Gorrian

I.G. | ARRASATE

Elorregiko biribilgunean dagoen Gurutze Gorriko egoitzan lanak egiten dabiltza, garaje bat egiteko anbulantzia batentzat.

**Garajea**

Bidegorria egin zenean, tokiz aldatu zuten Gurutze Gorriaren aparkalekua eta erreka ondora eraman zuten, errepidearen beste aldera. Bada, Gurutze Gorriko eskualdeko arduradun Santi Sarmientok adierazi digu azken urteetan behin eta berriz eskatu dutela aparkalekuaren aldaketa. Orain, Diputazioaren partida baten bitartez, hasi dituzte lanak.

"Egun anbulantziak ditugun tokia urrun samar gelditzen da eta horrek atzeratzea eragiten du gure zerbitzuan. Horretaz gain, errepidea zeharkatu behar dugu eta hori langileentzat arriskutsua da, batez ere, zirkulazio handieneko orduetan. Gainera, kanpoan egotean, anbulantziako materiala oso hotza egoten da". Horrenbestez, estalitako garajea egingo dute egoitzaren ondoan eta bertan gordeko dute larrialdietarako anbulantzia (bakarrarentzat izango da tokia). "Sarbide zuzena izango dugu egoitzatik eta horrek hobekuntzak ekarriko ditu", dio Sarmientok.


Rogelio Perez. | SUSANA ARRESE

**Rogelio Perez**
Soziologoa

# "Infanta inputatzeko, sistema juridikoa aldatu egin da"

I.G. | ARRASATE

Puri-purian dagoen gaia landuko du Rogelio Perezek, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendaria, aste honetan egingo duen hitzaldian. Zehazki, *La infanta, la justicia y la democracia* hitzaldia eskainiko du Sancti Spiritus unibertsitatean eguen honetan, hilak 16, 18:15ean.

**Zeri buruz hitz egingo duzu?**

Sistema politiko eta juridikoetan eman diren aldaketen gaineko elkarrizketa izango da. Esaterako, epaile batek infantaren inputazioa planteatzea ahalbidetu duten aldaketen gainekoa. Historian zehar eman den aldaketa garrantzitsua da eta azaldua izan behar du.

**Denboran zehar epaileen eginkizuna aldatu egiten al da?**

Bai. Epaileena aldatu egiten da eta baita legegile, politiko, irakasle eta errege-erreginena ere. Aldaketa horiek aztertu behar ditugu, bizi garen mundua ulertzeko.

**Zein da zuzenbidearen eta gizartearen arteko erlazioa egun?**

Egun, munduan, orokorrean, hitz egiten da politikaren judizializazioaz. Honek dakarrena da eztabaida politikoa epaitegietan luzatzen dela, baina beste argumentu batzuekin. Bestalde, ematen da baita harreman sozialen judizializazioa ere, eta batzuetan oso dimentsio dibertigarriak hartzen ditu. Irakurri dudanez, pertsona batek auzitara jo du Baltasar erregeak botatako gozoki batek buruan jo ziolako!

**Zergatik jarri infantaren kasua adibide bezala?**

Nabarmena delako. Nik dakidanez, inoiz ez da planteatu horrelako pertsonaia bat inputatzea, Europan. Zerk egiten du hori posible gure garaian? Ideia edo gai guzti hauetaz hitz egingo dugu eta gertakariak beste gizarte batzuetan gertatutakoekin alderatu.

# Gabonetako salmenta onak beherapenekin borobildu nahi dituzte bailarako merkatariek

Ohi bezala, beherapenak urtarrilaren 7an hasi ziren; gehienek %30 merkeago ipini dituzte artikuluak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ohiturari jarraituz, eta nahiz eta dagoeneko beherapen garaia ez dagoen legez mugatuta, Debagoieneko merkatariek joan den martitzenean, urtarrilaren 7an inauguratu zituzten ofizialki beherapenak. Eta, merkatari txikien elkarteen arabera, krisia hasi zen ezkeroko Gabon sasoi onena izan bada pasa berri duguna, goraldi hori borobildu dezakete urtarrileko beherapenek.

Askotariko aurreikuspenak daude batez besteko gastua zein izango den. Hala, Kantar Worldpanel aholkularitzak inkestatutako jendearen %70ek zerbait erosiko dutela esan dute, eta batez beste 150 euro gastatuko du bakoitzak. Espainiako Komertzio Konfederazioak (CEC), berriz, bezero bakoitzeko 60 euro gastatuko direla kalkulatu du, eta Espainiako merkatariek 3.900 milioi euro fakturatuko dutela. Gabonetan, iaz baino %3 eta %8 artean gehiago gastatu dela dio CECek. Erabiltzaile-Kontsumitzaile Independenteen Federazioak (Fuci) esan du, bestalde, batez beste 85 euro gastatuko direla –Euskadin, 88–, iazko beherapenetan baino %5 gehiago. Dena dela, azken urteotan, beherapenetan gero eta gutxiago gastatu izan dela ere nabarmentzen du Fucik.



Arrasateko Gili-Gili dendako Nerea Gonzalez, fraka pare bat eskuan duela. | L.K.

### "Ea loteria igartzen den!"

Debagoieneko arropa-denda gehienek %20 eta %30eko beherapenekin hasi dute sasoia. Bergarako Mirari jantzi-dendako Mari Carmenek esaten duenez, "dendena saldu nahiko" luke, "baina, komertzio txikian, oso zaila da hori". Berak deskontu ederrak ditu: "%20 eta %50 arteko beherapenak ditut, eta dendako artikulu guztiek dute beherapena. Espero dezagun ondo joatea. Arrasaten Gabonetako Loteria tokatu zen, eta ea zerbait igartzen den Bergaran ere!", komentatu du.

Gabon sasoia iaz baino hobeto joan da Mari Carmenendako. "Urtarrilaren 3an eta 5ean, eta abenduaren 23an, egun osoan zabalik izan nuen denda, eta jendeak eskertu zuen", esaten du.

Arrasateko Gili-Gili jantzidendan, Nerea Gonzalezek beherapenak "oso ondo, oso indartsu" hasi direla esaten digu. Arrasateko denda horretan ere artikulu guztiak daude ohi baino prezio txikiagoan: %30 merkeago, arropa, eta %10 merkeago, osagarriak. Gehien, txamarrak eta frakak erosten ditu jendeak.

Gabonetan, deskontuak 27an ipini zituen denda horrek. Gabonetan ere, salmentak "ondo" joan direla diosku dendariak, eta opari emandako gauza askorik bueltatzera ez dela joan jendea.

# Bideo-curriculum sariketak 1.500 euro banatuko ditu

Goiaz! foroak antolatu du, eta bideo-CV finalistak eskualdeko enpresen artean zabalduko ditu

L.K. | ARRASATE

*NiNeu-YoMism@* izenburuarekin, I. Bideo-curriculum lehiaketa deitu du Goiaz! Foroak, Debagoieneko Lanbide Heziketako Azokaren programaren barruan. Parte hartzeko, gehienez ere 2 minutuko ikus-entzunezko sorkuntza-lan inpaktanteak egin beharko dira. Sari ederrak daude: hiru kategoriatik bakoitzean, 300 euro irabazlearendako, eta 100 euroko sari bana 2. eta 3. onenarendako; eta, horrez gain, bideo-curriculum finalistak eskualdeko enpresen artean zabalduko dituzte antolatzaileek, haiek ikus ditzaten gonbidatuz eta, beraz, parte-hartzaileak lana aurki dezan erraztasunak ipiniaz.

Antolatzaileen esanetan, "helburua da norberak gogoeta egin dezan, norberaren gaitasunen, prestakuntzaren eta lan-helburuen gainean".

### Ikasle, langabe zein langile

17 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, eta hiru kategoria izango dira: ikasleak, langabeak eta langileak. Ikus-entzunezkoaren edukia hau izango da: norberaren burua aurkeztea, lana bilatzeko. Egilearen profil akademiko eta profesionala, gaitasunak eta helburu eta ibilbide profesionalak jaso beharko ditu lanak.

Bideo-curriculumak aurkezteko mugaeguna martxoaren 7a da, 14:00etan, eta *www.wetransfer.com* plataformaren bidez aurkeztu behar dira, *debagoiena.goiaz@gmail.com* helbidera e-maila bidalita.

Epaimahaiak hainbat alderdi baloratuko ditu: sormena eta originaltasuna, edukia, IKTen erabilera, komunikazio-gaitasuna…

### Laguntza tailerrak

Laguntza ere emango dute. Bideo-curriculumak oraindik formatu berri samarra dela kontuan hartuta, bi tailer ibiltari antolatu dituzte, *Zertarako egin BideoCV bat?* eta *Nola muntatu nire BideoCVa*, eta urtarril bukaeran eta otsail hasieran izango dira. Debagoieneko lau herritan izango dira horiek.

Oinarriak eta material osagarria webgune honetan izango dira: *www.debagoiena.net*.

# Lanpostu eta beka batzuetarako deialdiak daude zabalik egunotan

L.K. | ARRASATE

Zenbait lanpostu eta lan-poltsa osatzeko deialdiak daude zabalik egunotan. Baita zenbait beka eskatzeko deialdiak ere. Horien berri eman zuen Arrasateko Gazte Informazio Bulegoko arduradun Dorleta Kortazarrek Arrasate Irratian.

Gaur, urtarrilak 13, da Debabarreneko Mankomunitateak deitutako kale-garbitzaile lanpostura aurkezteko azken eguna. Mutrikurako eta Elgoibarrerako kale-garbitzaile peoi espezialistak behar dira.

Bestalde, Urduñako Udalak gizarte langile, alguazil eta zerbitzu askotariko langileen lan-poltsak osatu nahi ditu. Horietara aurkezteko mugaeguna urtarrilaren 31 da.

Azkenik, BBVA Ruta Quetzal proiektuan begirale izateko deialdia egin dute. 24 eta 28 urte arteko gazteak behar dituzte, lizentziatuak, gradu, master edo doktore tituludunak, eta lehen sorospen eta uretako lehen sorospen tituluen jabeak. Mugaeguna otsailaren 14a da.

### Atzerrian bekak

Gaur, urtarrilak 13, bukatzen da ere Europako hainbat herrialdetako enpresatan praktikak egiteko EHUren deialdia ere. Bertako tituludun langabeendako da, eta 65 beka emango dituzte.


Iazko Ruta Quetzalen, Chucunaque ibaian, Panaman. | ÁNGEL COLINA

# Confort-en bideragarritasun plana babestu du Garitanok

L.K. | DEBAGOIENA

Martin Garitano diputatu nagusiak Aldundiaren konpromisoa azaldu zuen joan den egubakoitzean, Fagorren Confort Ataleko Bergara eta Basauriko langileek lantegi horietarako proposatu duten bideragarritasun plana aurrera atera dadin. Bideragarritasun plan horren arabera, Bergarako lanpostu gehienei eutsiko litzaieke.

Joan den eguenean, Edesako 100 bat langilek, Fagorreko beste batzuen babesarekin, eserialdia egin zuten Mondragon Korporazioaren egoitza parean. Korporazioari Bergarako eta Basauriko lantegietarako bideragarritasun plan bat aurkeztu ziotela jakinarazi zuten, haiek berriz martxan jartzeko pautekin.

Ahaldun nagusiak egubakoitzean esan zuenez, bilera batera deituko ditu inplikatuta dauden instituzio guztiak, abalak edo beharrezko izango diren dirulaguntzak nola gauzatu aztertzeko. Aldundia gertu azaldu da egitasmoan dagokion zatia abalatzeko.

**Jose Manuel Corcuera** | Debagoieneko Fiareko arduraduna

# "Armak susta daitezen nahi ez duenak banka etikora jo behar luke"

- Fiare banka etikoak lantalde berria du, Aretxabaletan, Debagoieneko hirugarrena
- Bailaran urteak daramatza lanean Fiarek, gizarte-helburua duten proiektuak bultzatzen




Jose Manuel Corcuera, Aretxabaletan. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA

Fiare bankuaren Debagoieneko atalaren arduraduna da Jose Manuel Corcuera. Urteak daroatza Fiare banku etikoak Debagoienean, debagoiendarrek osatutako taldean; orain arte, batik bat Arrasaten eta Oñatin. Aurrerantzean, Aretxabaletan ere izango da lan-taldea, eta horren berri emango dute eguenean, hilak 16, Basotxo elkartean.

**Fiare da banka etiko eredu ezagunena Debagoienean.**

Banka etikoa egiteko modu asko daude; Fiare horietako bat da. Adibidez, Triodos Bank ere banku etikoa da. Fiareren berezitasuna hau da: batez ere, gizartea aldatzea eta hobetzea dela bere helburua, ekonomiaren inguruan mugitzen delako dena, eta helburu hori duten proiektuak babesten dituela, batik bat. Bestalde, Fiare kooperatiba da, eta Triodos Bank, sozietate anonimoa. Europan 22 banka etiko daude.

**Izen italiarra dirudi Fiarek, baina Euskadin sortua da, ezta?**

Bai. Fiare hitza Fundación Inversión y Ahorro Responsable esalditik dator, eta Bilbon sortu zuten Caritasetik zetozen zenbait erakunde erlijiosok. Ideia 2003an sortu zen eta 2005ean hasi zen Fiare lanean. Gaur egun, estatu osoan 5.000 bazkide inguru ditu Fiarek; zazpi langile nominadun; eta, 2013ko urrian, 4,46 milioi euro pasako kapital pilatua zeukan.

Orain, Italiako Banca Popolare Eticarekin (BpE) bat eginda dago Fiare. Europan bilatu genuen gure filosofiarekin bat zetorren banku handiago bat, eta, zorionez, BpE aurkitu genuen.

**Ze egitura dauka?**

Banca Popolare Eticak bost area ditu, eta horietako bat estatua da. Horren barruan, 19 zirkunskripzio ditu; iparraldean, zazpi, eta horietatik bost, Euskal Herrian. Gipuzkoan bat dauka, eta berau eskualdetan banatuta dago: dozena bat. Horietako bat da Debagoiena. Batez ere Arrasaten dihardugu; neurri txikiagoan, Oñatin, eta orain Aretxabaletan sortu da taldea. Baliteke, talde horiek izanda, bulego berriak sortzea.

**Nola parte har dezake herritar batek Fiaren?**

Kolaboratzailea, bazkidea edo aurreztailea izan daiteke. Iaz, Gipuzkoan %45 bazkide gehiago lortu genituen, 134 lagun gehiago, eta dagoeneko 431 gara. Debagoienean, 34 bazkide gara, eta zifra ona da hori; gainera, esan behar da iaz 18 bazkide berri izan genituela, guk sei aurreikusten genuenean. Aurten, gure helburua da 10 eta 15 bazkide berri artean lortzea.

**Zergatik uste duzu hazi dela hainbeste bazkide kopurua?**

Gipuzkoak baditu ezaugarri bereziak, izan ere, ez dago zentralizatuta. Bizkaian, bi zirkunskripzio daude, eta biak Bilbon daude; Gipuzkoan, zirkunskripzio bakarra dago, baina oso banatuta dago, eta eskualde bakoitzak bere izaera dauka.

**Bazkideek dirua ekartzen diote Fiareri, ezta?**

Bai. Batetik, kapital soziala dago, bazkideek ipini dugun dirua. Gaur egun, Gipuzkoako 431 bazkideen artean 250.000 euroko kapital soziala daukagu; bakoitzak, batez beste, 600 euro dauzka ipinita. Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak izan daitezke bazkide.

**Eta kapital sozialaz gain, zenbat diru mugitu zuen Fiarek iaz?**

Milioi erdi euro dago gordailuetan inbertitua. Banca Popolare Eticaren Fiare gunean, 39 milioi euro ziren.

**Banca Popolare Eticarekin bat egin zuenetik aldatu da Fiareren lan egiteko modua?**

Ez, baina eguneratzen eta baliabideak lortzen joan behar du, pixkana-pixkana. Adibidez, oraindik ez daukagu sare informatiko egokirik, dirua delako, eta hori arazoa da. 50 erakundek emandako 3.000 eurorekin jardun dugu. Orain, BpEk lagun diezaguke, eta sistema egokia izan dezagun lan egingo du.

Oraingoz, maila handiagoko banku batekin bat egiteari dagozkion aldaketak dauzkagu, baina hasierako espiritua du Fiarek. Eta bihotzez pozten gaitu Europan guk lan egin gura dugun moduan lan egiten duen banku bat topatu izanak.

**Zuen helburua gizartea aldatzea da. Nola egin duzue hori orain arte?**

Bai, horretan ahalegintzen gara, behintzat. Orain arte, jendeak gizarte-lana egiteko zuen nahiaren eta borondatearen ondotik haien dirua onartuz jardun dugu. Finantzatzen ditugun proiektuen bidez egiten dugu gure lana. Proiektu guztiek dute helburu soziala: batzuk ekologia arlokoak dira, beste batzuk gizarte arlokoak, beste batzuk gizarteratze arlokoak... baina helburu berberarekin, guztiak. Ideologikoki horretan oinarritzen gara. Eta gainera, bankuak badu Etika Batzordea, eta horrek ikuspuntu etiko batetik proiektua bideragarria ote den aztertzen du, eta baita, jakina, finantza ikuspuntutik ere.

**Egoki ikusten diren proiektuei dirua maileguan ematen diezue, orduan.**

Bai, jakina. Gero bueltatu egin behar dute, noski, beste edozein bankurekin gertatzen den moduan. Hori bai, interesak txikiagoak izaten dira.

Dena dela, jendea Fiarera etortzeko arrazoia etika izatea, eta ez dirua, gura dugu.

**Zelako gordailuak dituzue?**

Hainbat motakoak. Horietako baten, gutxienez 3.000 euro ipintzen dira, eta interesei dagokienez, gerora, elkartasun erakunde batzuen artean bat aukeratzen da eta hari borondatezko ekarpena egiten zaio. Bestalde, gaur egun, kontu korrontea egiteko aukera hasten dabil.

**Ze arrazoi emango zenioke debagoiendar bati Fiareko bazkide edo laguntzaile egin dadin?**

Ez badu gura bere diruarekin armak susta daitezen, banku etikora jo beharko lukeela. Burtsara doan ia denak arriskua dauka; eta, neurri baten, denok gaude arriskuan, banka etikoan ere inork irabazi-asmoak izan ditzakeelako. Baina, bene-benetan, aukera etikoena dela iruditzen zait, eta Europako finantzetan eragiteko bokazioarekin, gainera; ez elementu polita izateko bakarrik, finantzak lantzeko modua aldatzeko gogoarekin baizik.

**"Europan 22 banku etiko daude; banku etikoa egiteko modu bat da Fiare"**

**"Gipuzkoan, %45 bazkide gehiago lortu genituen iaz; eta bailaran, 18"**

**"Banka etikoa ez da bakarrik elementu polita; finantzak aldatu nahi ditu"**

## ZABALIK



**IÑIGO TROJAOLA**
http://goiena.net/iritzia/

# Moldaketak direla eta

Behin soziologo bati entzundakoak alarma moduko bat piztu zuen nire baitan. Gaur egungo gizartearen bere irakurketa egiten ari zen. Haren ustez, azken hamarkadetan emakumeak aurrerapauso nabarmenak egin ditu eta gizonak beraien aldaketetara moldatu behar ei du. Horretan oinarritu zuen irakurketa.

Ni erabat ados nago berak esandakoarekin, baina hankamotz geratu zela iruditu zitzaidan.

Neuri zuzenki afektatzen didan arlo batek ere moldaketak eskatzen baititu, eta ez zuen horren aipamenik egin. Badira urte batzuk homosexualoi ere adoptatzeko eta umeak harreran hartzeko eskubidea aitortu zigutela. Guk, zorionez, eskubide hori praktikara eramateko aukera izan dugu eta zera baieztatu nezake: gizarteak moldatzeko izugarrizko kapazitatea dauka. Familia, lagun eta herri mailan ez dugu inolako arazorik eduki. Aldiz, esperientzia biziki positiboa izan da; jakin badakigun arren denoi kostatzen zaigula aldatzea.

> **"Eboluzionatzeke dagoena administrazioa bera da"**

Oso pozik gaude, noski, baina poztasun hori ez da gurea bakarrik izan, besteengatik ere sentitu ahal izan dugu.

Azken finean, onarpena da jaso duguna. Egia esan, gu horri begira ez gauden arren, ez dago hori baino adierazle hoberik gizarteak eboluzionatu egin duela erakusteko.

Baina tira, eboluzionatzeke dagoena administrazioa bera da. Guraso izatean baimenak lortzeko bete behar izaten diren dokumentuak oraindik ez ditu eguneratu.

Neuri pertsonalki ez dit buruhauste handirik sortzen amatasunari dagokion atala mutil izenez betetzeak; baina ez zait serioa iruditzen, arazoak ere sortu sortzen baitira.

Hau horrela, baimen horiei izena aldatu beharko liekete; bi aita dauden lekuan amarik ez baitago, ezta aitarik ere bi ama dauden familietan.

Horra hor moldatu beharreko gauza bat.

## USTEAK USTE

**LEIRE KORTABARRIA** | lkortabarria@goiena.com

# Inoiz soberan ez den historia

Egunero ez bada, astean behin baino gehiagotan ematen dute La2 katean nazismoaren gaineko erreportajeren bat. Eta inoiz ez da zaharkitzen, inoiz ez dago soberan. Beti hotzikara eragiten du historiaren zati hori gogora ekartzeak, kontzentrazio-esparruen eta errepresioaren irudiak ikusteak. Inoiz lekuz eta garaiz kanpo ez dagoen albisterik edo erreportajerik badago, duda barik, nazismoaren eta haren biktimen gainekoa da. Egunotan, *Treblinka* liburua argitaratu da. Urtebetean, 700.000 pertsona baino gehiago hil zituzten han. 57k bakarrik lortu zuten bizirik irautea, eta horietako batek, Chil Rajchman-ek, idatzi du. Inoiz ez dago soberan lekukotza hori.

## KALE INKESTA

# Ze iritzi daukazu Abortoaren lege berriaren inguruan?



**IZASKUN EZPELETA**
ARRASATE

"Lege honen aurka nago. Norberaren erabakia da zer egin bere gorputzakin. Aspaldiko garaietara bueltatzen gara".



**IÑAKI VELASCO**
ARRASATE

"Erabaki ulergaitza da. Horrelako erabakiekin ikusten da, ez garela estatu libre baten bizi. Atzera pauso bat da".



**OIHANA ARANBARRI**
DONOSTIA

"Ez nago batere ados. Azken finean, bakoitzak nahi duena egin dezake bere gorputzarekin. Atzera pauso handia da".



**OLATZ GARAI**
ARRASATE

"Astakeria bat da, emakumeari askatasuna kentzen diote eta norberak erabaki beharko zuen abortatu edo ez".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# "Ekarri eskopeta tiro egingo diot eta"

**Onintza Irureta**
argia.com/blogak/onintza-irureta/

*Hey, hey, hey* du izena abestiak eta Los Tres musika talde txiletarrarena da.

Letra eta bideoklipa aho zabalik geratzeko horietakoak dira, emakumeen aurkako biolentziaren agerpen gordina (taldekideek diote apologiarik ez zutela egin nahi inondik inora).

Edo agian ez da hainbeste harritzekoa, hamarnaka horrelako ikusiak gara, eta sarean aurki daitezke.

Bitxia egin zait genero biolentziaren kontrako konpromiso sendoa erakutsi izan duen Luis Tosar aktoreak bideoklipean parte hartu izana.

"Ekarri eskopeta zeren tiro egingo diot / traizionatu nauen nire maiteari", edo "Lurra bustita dago niregandik isurtzen diren malkoez / zorua gorri isuriko dudan odolez / mila aldiz esan nion ez uzteko / eta orain bere patua nik erabakiko dut".

Abestiaren puskak dira.

Iruditan berriz, fideltasunik gorde ez dion emakumea hiltzen du gizonak.

Ondoren polizia (Luis Tosar aktore galiziarra) lankidearekin sexu harremanetan ageri da.

Lankide hori beste batekin harremanetan harrapatzen du eta irudietan elipsiak badira ere, uler daiteke Tosar poliziak bi lankideak hil dituela.

Biak emakumeak dira.

Dirudienez, bideoklipa sare sozialetan hona-hara ibili da eta halako batean Galiziako Implicadas No Desenvolvemento gobernuz kanpoko erakundearen belarrietara heldu da kontua.

GKE honek 16 urte daramatza emakumeen kontrako biolentziaren aurkako lanean eta Luis Tosar aktoreak urteak zeramatzan haiekin lankidetzan.

GKEak urtero Implicate jaialdia egiten du eta bideoklipa ikusita Luis Tosarri aurten parte ez hartzeko eskatu diote, koherentziagatik.

Aktoreak idatziz barkamena eskatu du eta aitzakiarik ez dagoela dio.

Bideoklipa gogorra eta erabat arbuiagarria iruditu zait, baina harritu nauena Luis Tosarrek halako gidoia irentsi eta parte hartzea izan da. Galiziar aktoreak, besteak beste, *Te doy mis ojos* (2003, Icíar Bollaín) film bikainean hartu du parte.

Emakumeen kontrako biolentziari buruzko pelikula sinesgarrian aktore nagusia izan zen.

Genero biolentziarekiko halako konpromisoa duenari zein argi itzali zitzaion egun hartan?

Zein zaila den betaurreko matxistak eranzteko pauso sendoak ematea, eta zein erraz egiten den atzera.

# Aberriaren hautua

**Bixente Serrano Izko**
berria.info/blogak/bixente/

Espainiar *patria(k/qu)eria*-k uxatu ninduen gaztaroan eusko abertzaletasunera, eta hemen nauzue oraindik ere, hainbat abertzale gorabehera.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK



Ezpala baliatuta biomasa lortzeko aukera dago. | ARAMAIOKO UDALA

ARAMAIO

# Biomasa etorkizuneko energia izateko lanean

- Udalak herri osorako proiektua garatzen dihardu 2008a ezkero
- 3.800.000 euro inguruko kostuaz, 13 urtetan amortizatuko litzateke

ZURIÑE V.D.M | ARAMAIO

Landa izaera eta 1.go sektorea bizirik mantentzea helburu duen Aramaixo Basarri Barri proiektuaren baitan, garapen iraunkorreko ekimenak egin izan dituzte. Esate baterako, Udalak 2008an energia berriztagarri ezberdinen bideragarritasuna aztertzeko aurre -diagonisia egin zuen. "Herriaren ezaugarri eta baliabideak kontuan hartuz, eredurik egokiena hautatzea zen helburua; eta hori, egindako ikerketen emaitzen arabera, basoetako biomasa dela ondorioztatu zen". Hala esan dute Aramaioko Udaletik. Orduan Giroa, Egimen, Biotermiak eta kanpoko beste enpresa espezializatuei ikerketak eskatu zitzaizkien eta emaitzen arabera, Aramaion *District Heating* izeneko proiektu bat garatzea posible litzateke. Hau da, basoetako egur baliabideetatik sortutako energiari esker, herrigune batean etxeko ur beroa banatzeko sarea ezartzea. "Ikerketek diotenez, herrigunearen ezaugarrien arabera ez litzateke obra handiegirik egin beharko, eta auzoetarako alternatibak ere aztertu ziren: biomasa galdara txikiak, besteak beste".

> **ESANAK**
>
> **"Herri osoan biomasa edukiko lukeen aurreneko herria izango litzateke Aramaio "**
>
> RAMON AJURIA | ARAMAIOKO ALKATEA

### Orain arteko urratsak

Biomasa ikerketen jarraipenerako batzordea sortzea izan zen Udalak emandako hurrengo urratsa. Eta konturatu ziren aurreko ikerketen emaitzak ez zetozela bat ez eskaera energetikoaz ezta egin beharreko inbertsioaz ere. "Egoera berriaren aurrean, Bartzelonako Unibertsitateari eta Smarlead enpresari azterlan berriak eskatu zitzaizkien eta agereian geratu zen erakunde publikoen, ESEren (zerbitzu energetikoko enpresa) eta herritarren elkarlanerako bideak topatu behar zirela". Horretarako, Ramon Ajuria alkateak aditzera eman duenez, besteak beste, Udalaren eta EVEren (Energiaren Euskal Erakundea), zein Arabako Foru Aldundiaren arteko bilerak egin dira. "Proiektuaren aurkezpen ekitaldiak ere egin dira interesa azaldu duten udalerriekin. Eta 2013ko maiatzean herriko kultur etxean Biomasaren inguruko jardunaldia antolatu genuen".

Biomasa proiektua garatzeko zenbait proposamen jaso dituzte gainera: Europatik dirulaguntzak lortzeko proiektua aurkezteko esan die AVEBIOM elkarte espainiarrak; Foru Aldundiak Arabako Energia Berriztagarrien Plan Estrategikoen ildoen baitan Aramaioko proiektuarekiko interesa azaldu du. Eta EVE, Hazi eta Aramaioko Udalaren arteko elkarlanerako hitzarmena egin da, basoetako baliabideak eta energia eskakizuna aztertzeko. Emaitzen arabera, EVEk, proiektuaren bideragarritasun tekniko zein ekonomikoa aztertzeko konpromisoa hartu du.

Proiektuaren alde tekniko eta ekonomikoa garrantzitsua bada, ikuspuntu sozialaren aldetik ere helburu batzuk ditu: "Lanpostu berriak sortzeko aukera dagoela uste dugu. Gainera, egurraren salneurria finkatu eta baserritar guztiei euren egurraren salmenta ziurtatuko genieke. Mendiak garbi eta egoera onean mantenduko lirateke, biomasarako beharrezkoa bertatik aterako litzateke eta. Eta gainera, gure energiaren horniketa ziurtatuko genuke".

### Epe luzeko proiektua

Ez da nolanahiko proiektua Aramaion garatu gura dutena, lortuz gero, biomasa sistema herri osoan zehar edukiko lukeen aurreneko euskal udalerria izango litzateke. Kostua handia izango dela badakite, baina apustuarekin aurrera jarraitzeko asmoa erakutsi dute. "Lan guztiak eginda aurrekontua 3.800.000 eurokoa izango da gutxi gorabehera. Baina 13 urtetan, amortizatuta legoke".

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Mikel Biain alkatea berriketan, *lunch*-ean. | GOIATZ ARANA



Neska-mutikoak jostailuen txokoko erregeak izan ziren, baina horiek ere ez zieten mokaduei muzin egin. | G.A.

OÑATI

# Lehen baino handiago eta erosoago, urte askotarako Txiki-Txoko!

Egubakoitzean inauguratu zuten Olakua auzoko haurreskola, egokituta eta gela bat gehiagorekin

GOIATZ ARANA | OÑATI

Gabonetatik bueltan estreinatu dute haurreskola berria eta egokitzen ari dira oraindik. Pozik daude, edozein kasutan: pozik, umeak; pozik, gurasoak; eta pozik, hezitzaileak. Lehen baino gela bat gehiago dute orain 0 urtekoentzat, baina guztiek sumatuko dute hobekuntza, lehengo instalazioak hobetzeko eta espazioak zabaltzeko aprobetxatu dituztelako lanok. 32 plaza zeuden orain arte eta zortzi haur gehiagorentzako lekua egongo da aurrerantzean. Matrikulazio epe berri bat irekiko dute orain eta, eskaeraren arabera, hezitzaileren bat gehiago beharko da edo ez; sei daude, gaur egun.

**Ate irekiak eta 'lunch'-a**

Egubakoitzean inauguratu zuten ofizialki Txiki-Txoko, Oñatiko Udaleko eta Haurreskolak Partzuergoko ordezkariak ere bertan zirela. Neska-mutiko, guraso eta aiton-amonek euren hitzak entzun eta instalazioak bisitatu zituzten, mokadutxoa eginez ospakizuna borobiltzeko. Zapatu goizeko ate irekietan izan zen haurreskola berritua bertatik bertara ezagutzeko bigarren aukera. Etxean moduan, euren saltsan, ikusi genituen neska-mutikoak, eta ilusioz beteta aita-amak.



**MAITE LARRAÑAGA**
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

"Haurreskola handitzea oso seinale ona da; Gipuzkoan oso herri gutxitan eman da egoera hori. Sorreratik, Oñatikoa handitzen joan da beti. Lan ona ari dira egiten".



**ITXASO GALDOS**
TXIKI-TXOKOKO HEZITZAILEA

"Orain arteko ilusio eta konpromiso berarekin egingo dugu aurrera gure proiektuarekin. Hemen haurrak dira protagonistak, eta hori da gure bereizgarri nagusia".



**ARITZA RUEDA**
ITOITZ SEMEAREKIN

"Bi urtez ekarri nuen seme zaharrena eta orain txikia hasiko da; etxetik gertu daukagu. Duen lorategiak kanpoan ibiltzeko aukera oso ona ematen die, gainera".



**IBAN LIZARRALDE**
ENEKO SEMEAREKIN

"Eneko etxean bezala egoten da hemen eta oso pozik gaude, ez genuke tokiz aldatuko. Egin berri dituzten lanekin, gainera, ikusten da handitu eta hobetu egin dutela".



**MIREN ARANBURU**
IZADI ALABAREKIN

"Toki asko irabazi dute obrekin, berogailua lurretik jarri dute... Itxura ona du, eta handitu izana ere ondo dago, ezagutzen dut-eta leku barik geratu izan den jendea".

OÑATI

# Irrien Lagunek Antixena gaztetxea haurrez bete zuten atzo arratsaldean

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Irrien Lagunak klubeko kideek kantuan eta dantzan jarri zituzten atzo arratsaldean Oñatiko neska-mutikoak. Antixena gaztetxean, *Arrantzara dantzan* ikuskizuna aurkeztu zuten, eta erantzuna ezin hobea izan zen.

Saioa hasi aurretik, urduritasuna nabaria zen gaztetxo batzuen artean; izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots etxean geratu baziren, euren lagunek arratsalde paregabea oparitu zieten oñatiar gazteei.

**Marikalanbre eta Martinbertso**

Kantuak, dantzak, antzerkia, bertsoak eta magia izan ziren protagonista *Arrantzara doaz* ikuskizunean. Eta esan bezala, Marikalanbrek eta Martinbertsok arratsalde magikoa oparitu zieten Oñatiko neska-mutikoei ezohiko eszenatokian.



Martinbertso eta Marikalanbre Antixena gaztetxean. | JOSETXO ARANTZABAL



Bisitariak Felix Laskurainen lanei begira. | IMANOL SORIANO



German Amurrioren eskultura; atzean, Jesus Beistegiren platerak. | I.S.



Jesus Ugalderen artelan ikusgarriak. | I.S.



Iñaki Olabarriaren lanak ere izan dira Aroztegin. | I.S.

BERGARA

# Zeramikarekin ere artelan ederrak egin daitezkeela agerian utzi dute

## Azken asteotan Bustinzale Zeramika Elkarteko kideen lanak egon dira ikusgai Aroztegi aretoan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Urtero moduan, Bergarako Bustinzale Zeramika Elkarteko partaideek egindako lanak ikusteko aukera egon da azken asteotan Bergarako Aroztegin. Abenduaren 27an inauguratu zuten erakusketa, eta atzo, domeka, arte bisitatu ahal izan da; horren harira, esan beharra dago harrera ona izan duela, 600 lagun inguru pasa direlako aretotik.

Elkarteko zortzi kideen askotariko artelanak egon dira han ikusgai; besteak beste, Iñaki Olabarriaren aulkiak, lauburua edo hostoak; Ana Orgazen Mayen egutegia; Felix Laskurainen eguzkilorea edo Jesus Beistegiren platerak izan dira, baita Xabier Zabala, German Amurrio, Javier Ugalde eta Idoia Etxarriren eskulturak ere.

Esan bezala, atzo itxi zuten erakusketa. Egubakoitzean, hilak 17, Beart elkartearen pintura erakusketa zabalduko dute Aroztegin.

ANTZUOLA

# Jabi-Sergio eta Iglesias-Etxabe sailkatu dira mus txapelketarako

## Lehen kanporaketak jokatu dituzte asteburuan Mox tabernan eta Eperran

MIRIAN BITERI | ANTZUOLA

Antzuolako Mus Txapelketa egiten dabiltza egunotan. Asteburuan bi kanporaketa egin dituzte: egubakoitzean jokatu zuten lehena, Mox tabernan; sei bikotek eman zuten izena, eta Jabik eta Sergiok osatutakoak lortu zuen sailkatzea. Atzo arratsaldean Eperra elkartean izan ziren partidak; zazpi bikotek jokatu zuten eta Iglesias eta Etxabe irten ziren irabazle.

Kanporaketak ez dira amaitu. Oraingo astean beste bi jokatuko dira. Egubakoitzean, hilak 17, izango da lehena, Gailur tabernan, 22:15ean; eta bigarrena zapatuan, Ongi Etorri jatetxean egingo dute, 16:30ean.



Bikote bi musean jokatzen, Mox tabernan. | IMANOL SORIANO

### Bikoteko 20 euro

Izen-ematea jokatu gura den tokian eman behar da, bikoteko 20 euro ordainduz. Jesus Kortabarria koordinatzaileak gogorarazi du bikoteak antzuolarrez edo antzuolar batekin senitasun lotura duen kanpoko batekin edo Antzuolan lan egiten duen kanpotar batekin ere osatu daitezkeela; inoiz ez bi kanpotarrekin. Horrekin batera, gaineratu du kanporaketa batean bakarrik har daitekeela parte. Asteburuan egingo diren kanporaketatik beste bi bikote sailkatuko dira finalerako. Azken hori hilaren 26an jokatuko da Arin jatetxean, 16:30ean.

### Euskal Herriko txapelketa

Bestalde, Antzuolako Mus Txapelketatik garaile irteten diren bikoteak VI. Euskal Herriko Mus Txapelketan lehiatuko dira; hilaren 26an jokatu den finalean eskualdekora zeintzuk joango diren jakinaraziko da. Otsailaren 14, 15 eta 16an herrialdeko kanporaketak izango dira, eta martxoaren 8an, finala.

ARRASATE

# Santamasetako saria Eskoriatzara joan da

Arrasateko Santamasetan zozketatutako "txerriek" badute jabea: Bittor Gurrutxaga eskoriatzarra. Irudia, Utzune Urrizalki, komisiñoko kidea, Gurrutxagari 500 euroko dirusaria ematen.



ARRASATEKO SANTAMAS KOMISIÑOA

ARETXABALETA

# Familian dantza egin dute Kuku Miku elkartean

Jaiki eta Kuku Miku elkarteek elkarlanean, *Dantza Familian* izeneko saioa egin zuten atzo arratsaldean Aretxabaletan. Dantza egiterakoan guraso eta seme-alaben artean sortzen den komunikazioa eta erlazioa lantzen dute bereziki saio horietan. Atzokoan, lehenik eta behin, luzaketa-ariketak egin zituzten, eta jarraian, askotariko dantzen bitartez gorputza astindu zuten parte-hartzaileek.



MIRIAN BITERI


Inazio Azkarragaurizar eta Larraitz Ugartek sinatu zuten eskualdatze hitzarmena. | GOIENA

# Mugarrieta eta Goiru arteko errepide zatia Udalaren esku dago

Udalak eta Foru Aldundiak egubakoitzean sinatu zuten hitzarmena

**J.I./I.G.** | ARRASATE

Olandixoko tuneletik doan mendebaldeko saihesbidea egin zenetik herri barruko izaera duen hiru kilometroko zatia Udalarena izango da aurrerantzean. Hitzarmen hau sinatzeak suposatzen du Diputazioak Arrasateko Udalari eskualdatzen diola GI-2620 Legutio - Arrasate, errepidearen zeharbide zaharra. Hau da, Mugarrietako errotondatik Goiruko errotondarainoko zatia. Hemendik aurrera Arrasateko Udala arduratuko da errepide hau zaindu eta ustiatzeaz.

Egubakoitzean Mugikortasun eta Bide-Azpiegituretako foru diputatu Larraitz Ugartek eta Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek sinatu zuten eskualdatze akordioari esker, errepidea konponduta eta behar moduko egoeran utzi beharrean, konponketok zuketen kostuaren adinako kopurua, 958.000 euro, emango dizkio Diputazioak Arrasateko Udalari. Aurreko urtean iragarri bezala, errepide zati honetan Goiru proiektua gauzatuko da.

**Hainbat lan egingo dituzte**

Uribarri auzoko zoruan hainbat konponketan egingo dituzte. Akordioa sinatzerako orduan Azkarragaurizar alkateak zehaztu moduan "Udalak urtetan Uribarriko errepide zatia konpontzeko hainbat eskaera jaso ditu, eta eskualdatzen honekin konponketa horiek gauzatu egin ahalko ditugu".

Ez da izango Arrasateko Udalak bide zati horretan aurten egingo duen lan bakarra. Takolo -Goiru proiektua gauzatzeari ere ekingo diote. Proiektu horren arabera, errepide zati horretan oinezko eta bizikletek lehentasuna izango dute. Horretarako, errepidea eztutu eta espaloia zabalduko dute."Aurten Foruen plazatik Udala plazara doan errepide zatiaren lanei ekingo diegu" jakinarazi zuen alkateak.

Eskualdatze honekin Arrasateko Udalaren "aspaldiko nahi bat" bete zela zehaztu zuen Inazio Azkarragaurizar alkateak.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

### Txakur-kakak berdeguneetan

Irakurle batek esan digu Iturripe kiroldegiko inguruetako berdeguneetan txakur-kaka asko pilatzen direla. Irudian ikusten duzuen kartela jarri duten arren, egoera ez da hobetu. Haren ustez, haur ugari jolasten dira bertan eta garbitu beharreko gunea da hori. Zoritxarrez, baina, hainbat espaloitan ere badaude txakur-kakak.

## Hile amaieran ekingo diete Literatura Solasaldiei

**S.C.** | ARRASATE

Antzerki saioak amaituta, urtarrilean Udal bibliotekan komiki saioei ekingo diete. Euskarazko saioen ardura Garazi Arrulak izango du, eta gaztelaniazko koordinatzailea berriz, Antonio Altarriba izango da.

Euskaraz eskaintza zabalagoa egongo da. Guztira sei saio izango dira, hilaren 26tik hasieta eta ekaina arte. Gaztelaniazko lehen saioa aldiz, urtarrilaren 22an egingo dute. Euskara nahiz gaztelaniazko saio guztiak Kulturaten izango dira, 18:30etik 20:30era.

Urtero moduan, bailarako udal liburutegiek, musika, zinea eta liburuak gomendio gida ere kaleratu dute.

## NIRE USTEZ

**HORACIO ARGARATE**



# Beltza

Gaur, urtarrilak 13, etorkin eta errefuxiatuen nazioarteko eguna ospatuko dugu.

Egungo migrazio fluxuak adin guztietako pertsonen (eta herrien) joan-etorri handienak dira. Miseria edo jazarpen egoeretatik ihes egiteko, aukera berrien bila edo bizitza salbatzeko hasten dute milioika pertsonak migrazio bidaia; eta beraien ametsak bete zain daudela konfiantza eza, itxikeria eta bazterkeria aurkitzen dituzte askotan.

Astebete pasa da, gure herrietan, Baltasar izeneko arraza beltzeko gizon bat kalez kale ibili zenetik. Baltasarrek bi adiskide ondoan zeramatzan. Hirukote famatu honek unibertsaltasuna adierazi nahi du: herri, arraza, hizkuntza, erlijio eta kulturek elkarren etsai izateko daukaten potentziaz gain, elkarren adiskide eta elkarri aberasteko dauzkaten indarren agerpena izan nahi du.

Gaurkoan, beltz kolorean margotuta omen dago gure etorkizuna. Euskal Herriko bakegintzan eta ekonomia arloan, gorriak ikusiko omen ditugu. Baina azala pintatu beharrik ez dauzkaten milioika pertsonak beraien odol gorria erakusten digute zorroztutako burdinazko hesi baten kontra beraien azal beltza urratzen dutenean.

Gaur ere, norberekeria kaltegarria gainditzeko, garai bateko gogoeta errepikatu beharko genuke: "Gizon-emakume oro nire anai-arreba da".

**"B eltz kolorean margotuta omen dago etorkizuna"**

## OHARRAK

**SEBER ALTUBE KALEKO ZIRKULAZIOA ETEN EGINGO DUTE**

Udalak aurreko urtean hondatu ziren eta kale horretan dauden lur azpiko edukiontziak konponduko ditu. Udaletik adierazi dutenez, bihar, lanak direla eta, 13:00etatik 17:30era Seber Altube kaleko zirkulazioa eten egingo dute.

**HAURRESKOLETAKO MATRIKULA ZABALIK**

Bedoñabe eta Musakolako haurreskoletan izena emateko epea gaurtik egubakoitza bitartean zabalik egongo da. Matrikula kanpaina martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko izango da eta 2012an, 2013an eta 2014an jaiotako haurrei zuzenduta dago.

### Arrasateko zeramika elkarteak hastapen mailako ikastaroa antolatu du urtarriletik martxora arte

*Ghost* filma estreinatu zenetik, zeramikak beti izan du ukitu berezi bat. Material horren sekretuak ezagutzeko, zeramikako hastapen ikastaroa antolatu du herriko elkarteak. Eskolak urtarrilaren 21etik martxoaren 6 arteko astelehen eta eguenetan emango dira 18:30etik 20:30era. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko, elkarteak bi telefono zenbaki jarri ditu: 620 94 11 62 (Paloma) eta 636 24 42 49 (Imanol).

## Besaide Mendizale Elkarteak ohiko batzar orokorra eguenean

**I.G.** | ARRASATE

Bazkide guztiei zuzenduta dago egueneko batzar orokorra eta Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da: 18:45ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

Ohar horretaz gainera, federatu txartelak jasotzeko aukera dagoela zehaztu dute Besaide Mendizale Elkartetik bertatik. Hain zuzen ere, txartela jasotzeko, bazkideek elkartearen egoitzara joan beharko dute martitzen eta eguaztenetan 19:30etik 20:30era.

**Eskiatzeko egutegia**

Irteera gehienak Formigalera izango dira, baina apirilean Alpeetara joango dira. Izena eman edo informazioa eskatzeko astelehen, martitzen eta eguaztenetan 18:30etik 19:30era Besaideren egoitzara joan besterik ez dago.

Gipuzkoako Mendizale Federazioak bi ikastaro antolatu ditu: urtarrilaren 25ean eta 26an mendiko eskiaren ingurukoa eta otsailaren aurreneko bi egunetan izotz eskaladakoa.



Niña Coyote eta Chico Tornado da aste honetako gonbidatua. | 12 PULGADAS

# Gitarra doinuak Kooltur eguenetan

I.G. | ARRASATE

Gaztetxeko Kooltur eguenak Gabonetako atsedenaldiaren ostean indartsu bueltatu dira. Eratu taldeak hasi zuen urtea eta metaletik, rocketik eta baita pop edo zaindutako melodietatik abiatuta gogor astindu zuen aurreko eguena. Urtarrileko gainontzeko proposamenak ere bide indartsu beretik joango dira.

Antolatzaileek oso eskaintza zabala sortu dute, eta proposamen originalak eroango dituzte eguen gauero Gaztetxera.

**Pisuzko taldeak**

Hurrengo taldea Niña Coyote eta Chico Tornado izango da eta desert-rock eta stonerretik hurbil dauden kantuekin osatuko du emanaldia. Etenaldi luze baten ostean oholtzetara bueltatu da The Soulbreaker Company taldea. Lan bakoitzean ezagutu beharreko taldea dugu hau. Cobra taldea ere abentura berri batean murgildu da, zinearen historian izan diren zenbait soinu-bandaren bertsioak eginda. Proposamen horiek ez dute inor eserita utziko.

### Jon Pozo artista arrasatearrak musikari ezagunak ekarri ditu gogora bere lehen erakusketan

Hilabetez Jon Pozo (Arrasate, 1977) artistaren lanak Hilbera tabernan egongo dira ikusgai. Pozok bere bi pasioak uztartu ditu lehen erakusketa horretan; izan ere, margoa eta musika batu ditu. Hala, besteak beste, Amy Winehouse, James Brown, Jimi Hendrix, BB King, Slash, Angus Young, Joey Ramone eta Bob Marley artista esanguratsuak aurki daitezke egunotan Hilbera tabernan.



IMANOL GALLEGO

## 995 kortxo

Urte amaieran argitu zen Ezkina tabernako misterioa. 995 kortxo zeuden kristalezko edalontzi erraldoian eta Lourdes Dorda aretxabaletarrak asmatu zuen desafioa. Hark izandako begi onari esker, tabernak eskaintzen zuen bi pertsonarentzako afaria irabazi du. Askori kontrakoa iruditu zitzaien arren, ez zen erronka erraza izan; tabernatik zehaztu duten moduan, 1.000 bezero inguruk hartu zuten parte, eta bakarrak asmatu zuen. 995 kortxo pilatu ostean zer? Ezkina tabernan ez dute irudimen faltarik, eta, urte berriarekin batera, beste erronka bat proposatu diete bezeroei: pilatutako kortxoekin zer egin daitekeen esaten duen proposamen originalenak Rioja Vega Magnum botila bat jasoko du. Erronka berri hori hil bukaeran argituko da, eta, ordura arte, nahi duen guztiak nahi adina proposamen bota ditzake Arbolapetako tabernan.

# Mondrak bere egutegi berria kaleratu du

## Herriko futbol klubak 1.000 ale argitaratu ditu eta lehenengoak Mojategiko tabernan saldu dituzte

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

100 urte ez dira egunero betetzen, eta 2013. urtean Mondra futbol klubak mendeurrena herritarrekin ospatu ostean, herriko klubak zaleekin eta harrobiarekin batera igaro nahi du hasi berri dugun 2014 hau. Horretarako, urtero egin ohi duen moduan, egutegia kaleratu du.

Duela pare bat aste hasi ziren lehen aleak saltzen, eta oraingoz egutegia Mojategiko tabernan soilik eskura daitekeen arren, laster erdiguneko hainbat tabernatan saltzeko asmoa dute. Edozelan ere, egutegiaren salneurria ez da aldatuko eta toki guztietan 5 euroko prezioa izango du. Oraingoz ondo saltzen ari diren arren, herriko kirolaren oroigarri polit bat izan daitekeen egutegi hori erostera animatu nahi dute arrasatear oro.



Bost euroren truke daude salgai egutegiak. | IMANOL GALLEGO

**Kategoria guztiak**

Antonio Murillo argazkilaria izan da lanaren arduraduna eta urteko 12 hilabeteetan zehar klubeko hainbat mailatako taldeak ageri dira. Jokalarien atzean, Murillok egindako lanari esker, herriko hainbat pasaia esanguratsu ere ageri dira. Bada, klubak Antonio Murilloren lana goraipatzeaz gainera, haren prestutasuna ere eskertu gura izan du.

Ohiko 12 orriez gainera, egutegi berean, uztailean Realaren aurka jokatutako partidua ere ekarri dute gogora. Horretarako, egutegi berezi horren amaieran, egun horretako pare bat argazki daude.

Egutegi horrekin, Mondrak argi utzi du 100 urteko ibilbidea aurrera begira ospatu duela. Harrobiak soilik ziurtatuko baitio beste mende bat herriko klub beteranoari.

### NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

## Mondraueko barientien lanak martxan jarri zittuen barriro be

Gipuzkuako Diputaziñuen eta Altuna-Uria enpresaren artien tira-birak egon zien Mondraueko barientien lanak ziela-eta; horren ondorixoz, obrak geldi euzen.

Ordureko buketute egon biher euen bariantiek, baiñe hainbat problema egon zien: alde batetik, esplosiñuek peligrosuek zien inguruko etxiendako eta enpresendako; bestetik, Labeko-kobaren aurkikuntzie eta Aranzadi elkartekuek bertan egindeko lanak euzen; eta azkenik, proiektuen beraren problema teknikuek.

Aukera bi euzen mahai gaiñien: batetik, Altuna-Uria enpresiekin kontratue bertan behera ixtie. Baiñe horrek asko atzeratuko euen bariantien konstrukziñue. Eta bestetik, presupuestue 149 milloi pezeta haundiketie. Eta hori erabaki euen, baiñe enpresa horrek beste lan-plan bat aurkeztu biher izen euen.

Gaiñera, Umezaintzak kejie ipiñi euen Udalien, leherketa baten ondorixoz San Josepe kalera harrixek jausi zielako.

**Tabernen ordutegixekin bueltaka**

Orduen, eta gaur egun be, kalien bolo-bolo ebillen tabernak ixteko ordutegixe.

Horrekin lotute, kaleko enkuestie be horren gaiñien egin euen: *Zer deritzozu tabernak ixteko ordutegiari?*

Betiko kontue, zelan ez: zeiñei preguntteu, erantzune bata edo bestie.

Gaztiek eta tabernarixek, ordutegixe luzeketien alde; eta nausitxuauek, lo lasai be egin biher dala...



orain eta hemen

**Arrasateko Bariantearen lanak berriro martxan**

Arrasateko bariantearen lanak direla eta, Gipuzkoako Diputazioa eta Altuna-Uria enpresaren artean izandako tirabirak konpondu ondoren, enpresa horrek segituko du lanekin, honela barianteari irtenbidea emanez.

Bariantean burutzen ari diren lanek dagoeneko amaituta egon behar lukete baina arazo ezberdinak direla eta -leherketek inguruko etxe eta enpresei zekarkien arriskua, Labeko-kobaren aurkikuntza eta Aranzadikoek bertan egin dituzten lanak eta proiektoaren beraren arazo teknikoak- atzerapen ugari jasan dituzte ia paralizatuta zeudelarik.

Arazoa konpontzeko bi irtenbide proposatzen ziren, enpresarekin kontratoa haustea; honek lanak nabarmenki atzeratuko lituzkeelarik eta orain hartu den erabakia. Hau dela eta aurrekontuak 149 milioitan gehituko dira, enpresak hil honen 20a baino lehen lan-plan berria aurkeztu beharko duelarik.

Gai honekin lotuta, Umezaintzak Udalaren aurrean kexu bat aurkeztu duela jakin ahal izan dugu, pasa den hilaren 28an San Josepe Auzoan leherketa baten ondorioz harriak jausi zirelako.



inkesta

**Zer deritzozu tabernak ixteko ordutegiari?**

**Bittori Etxebarria (Irakaslea)**
Nire ustetan, tabernak astean zehar ordubatak arte eta aste buruetan hirurak arte zabalik egonez, nahiko denbora dago parranda egiteko eta kontutan izan behar dugu auzokoek ere lo egin behar dutela.

**Jesus Altuna (tabernaria)**
Oso ordutegi txarra dela uste dut. Asteburua oso labur geratzen da. Arrasaten jendea gero eta beranduago irtetzen da kalera; gu, astean zehar dagoen ordutegiarekin ados gaude, baina asteburukoarekin ez. Gainera, zaratak ez dira taberna barruan gertatzen, kanpoan baizik.

**Marijo Etxaide (Irakaslea)**
Ni kalean gutxi ibiltzen naizen arren, oso gaizki ikusten dut tabernak ixteko orduak jartzea. Bakoitzak libre izan behar du parranda nahi duen arte luzatzeko. Norbaitek goizeko bostak arte parrandan ibili nahi badu, ez daukate tabernak zertan itxi. Hori bai, neurriak hartu beharko lirateke auzokideak ez molestatzeko.

**Juan Mari Belategi (ikaslea)**
Goiz ixten dituztela uste dut. Martxarekin zabiltzanean, kalean geratzen zara zer eginik ez duzula.

**6. zenbakixe** 1989-01-13



Palmerakuak taldeko kideak. | PALMERAKUAK

# Mendiko bizikletarekin erlazionatutako asteburua

## Palmerakuak taldeak mendiko bizikletarekin lotutako ekintzak antolatu ditu asteburuurako

**ANE ETXEBERRIA** | BERGARA

Mendiko bizikleta gustuko duten herritarrek aukera bikaina dute asteburu honetan kirol honetaz disfrutatzeko, izan ere, Palmerakuak taldearen eskutik, Palmerakleta ekimena izango da asteburu osoan zehar.

Hainbat ekintza antolatu dituzte bizikleta zale hauek: ostiralean, hilak 17, bideo emanaldi batekin emango diote hasiera asteburuari. Juan Arbeloaren *Mountain Bike Enduro en Ethiopia* dokumentala izango da ikusgai Migel Altuna Institutuan 19:30tatik aurrera. Zapatuan aldiz, erakusketa bat jarriko dute martxan San Martin plazan *Atzoko eta gaurko bizkletak* izenburupean. Bertan Alberto Bolañosen antzinako bizikletak eta txirrindu osagarriak izango dira ikusgai. Halaber, gaur egungo bizikleta desberdinak izango dira eta bertaratzen direnekin batera, jokoak eta erakustaldiak egingo dituzte. Erakusketa, arratsaldean izango da, 17:00etatik 21:00etara.

Domekan aldiz, mendi bizikleta irteera egingo dute. Trekutz -Irimo aldera abiatuko dira bertako baso eta naturaz gozatzera. Herritar guztiei irekita dago, hortaz, interesa eta zaletasuna duten guztiak gonbidatuta daude. Hitzordua igandero bezala, 9:00etan *Palmeran* izango da.

Leontzio Asolo taldeko kideak adierazi bezala, hasiera batean kontu txiki bat antolatzea zen helburu eta azkenean asteburu guztira begira zerbait antolatu da: " Mendiko bizikleta Bergarara zabaltzea izan da Palmerakleta antolatzera bultzatu gaituena batez ere. Ethiopiara mendiko bizikletan ibiltzera joandako batzuen bideoa erakustea zen hasierako asmoa eta azkenean asteburu guztira zabaldu ditugu ekintzak, gainera guztiak doan izango dira". Horrez gain,"Palmerakuekin irtetzen garenoz aparte hainbat jende dago mendiko bizikletan ibiltzen dena eta baita mendiko bizikleta gustoko duena ibili ez arren. Esango nuke astebukaera hau herri guztiarentzat irekia dela" adierazi du.

**Palmerakuak taldea**

Euria, elurra, hotza, beroa… nahiz eta eguraldia eskasa izan edo primerakoa, domekero domekero, bizikleta hartu eta herritar talde bat *palmeran* elkartzen da txirrinduaz buelta bat ematera joateko. Txirrindularitza atsegin dute guztiek eta talde txiki bat izatetik, hau da lagun arteko plana izatetik, talde handi bat sortzera pasa dira.

Igandero goizeko 9:00tan elkartzen dira Ibargarai kaleko palmeran, hortik, taldearen izena. Talde irekia da, hortaz, nahi duen orok parte har dezake irteeratan, baldintza bakarra zera da: mendi bizikleta gustuko izatea eta umore ona izaten bada nagusi, hobe. Poliki poliki taldea osatuz eta handituz joan da, adin desberdinetako 30 bat pertsonek osatzen dute gaur egun taldea.

### Liburutegia zapatutan ere irekita, azterketa garaia dela-eta

Bergarako Udaletik aditzera eman dutenez, urtarrilean eta otsailean zehar liburutegiak ordutegi berezia izango du. Arrazoia ikasleak azterketa garaian murgilduta daudela da, eta hori horrela, bi hilabeteotan zapatutan ere irekiko dute liburutegia, herritarrek erabilgarri izan dezaten. Goiz eta arratsaldez joan ahal izango dute, gainera, interesatuek bertara eta ordutegia zein izango den ere zehaztu dute dagoeneko. Hori horrela, goizetan 09:00-tatik 13:00etara irekiko dute eta arratsaldetan, ostera, 15:30etik 19:30era erabili ahal izango da liburutegia.

### Baserrietan-eta erabilitako plastikoa batzeko egutegia prest

Baserri ingurunean sortutako plastikoaren bilketa egingo du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak 2014an. Urtarrilaren 28an, otsailaren 25ean, martxoaren 25ean, maiatzaren 27an, uztailaren 22an, irailaren 23an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango da. Arratsaldetan atera beharko da plastikoa honako tokietara: Ugarrixa, etxalde parean; Muinondo, trenbide ondoan; San Juan auzoko eliza aurreko plazan. Noiz behinka, eta aurrez 943 762 547 zenbakira Elosu eta Santutxun ere batuko dute. Zenbaki berdinera deitu beharko da plastikoa beste tokiren batean jasotzea gura baldin bada ere.

# Amodiozko 60 gutunetik gora lehian, aurtengoan

## Urtero Jardunek antolatzen duen Amodiozko gutunen irabazlea otsailean ezagutuko dugu

**A.E.** | BERGARA

Urtero Jardunek antolatzen duen Amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko epea behin amaituta, gutun hoberena aukeratzeko prozesua martxan jarri da. Aurtengoan, 65 gutun jaso dira, iazkoarekin alderatuta 5 gutxiago, beraz, kopuru antzekoa aurtengoan. Maitane Arizabaleta Jarduneko arduradunak adierazi duenez, "azkenengo egunetan heldu dira ia gutun guztiak, baina pozik gaude".

Urtero legez, San Balentin egunean banatuko dira sariak Kultur etxean 19:00tatik aurrera, baina orain, gutun guztiak irakurri eta balorazioa egiteko unea da epaimahaiko kideentzat. Epaimahai nagusia kide hauez osatuta dago: Ion Suinaga, Manex Agirre, Miren Narbaiza eta Iratxe Esnaola. Epaimahai gazteari dagokionez, batxilergo mailako Ipintza eta Aranzadiko ikasleak egongo dira: Maider Santorcuato, Ane Eraña, Karmele Uribesalgo eta Maddi Elortza ikasleak.

**Balorazioa**

Jaduneko arduraduna oso pozik azaldu da parte hartzea mantentzen delako. Aurten gainera, eskutitz ia guztiak, bi izan ezik, e-postaz iritsi dira eta asko poztu dira horregatik. Idatzi gehienak emakumezkoek bidali dituzte eta Debagoieneko 11 lan jaso dira. Bergarako herritarrek idatzitako lan gutxiago jaso dira aurten. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lanak jaso dituzte, aurten ez da Nafarroa zein Iparraldeko lanik jaso.



*Jainko txiki eta jostalari hura* lanaren irudia | MIKEL VALVERDE

# Kulturaz blai dator urtarrila Bergarara

## EOS–ren kontzertuaz zein Beart elkartearen pintura erakusketaz gozatzeko aukera egongo da, esaterako

**ZURIÑE V.D.M.** | BERGARA

Indartsu dator urtarrila Bergarara kulturari dagokionez. Eguazten honetan, esaterako, *1813. Historia edo mitoa?* izeneko mahai-ingurua egingo dute Irizar jauregian, 19:00etan hasita. Bestalde, hilaren 31n, *Makrobiotikoaren onurak* izenburua duen berbaldia eskainiko du Jexux Larretxeak.

Musika emanaldiei dagokienez, egubakoitz honetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bisitatuko du udal pilotalekua, eta 20:00etan hasita, Miguel Gonzalez Bastida omenduko dute. Bestalde, *Jainko txiki eta jostalari hura* emanaldia eskainiko dute Mikel Urdangarinek, Bingen Mendizabalek, Rafa Ruedak eta Mikel Valverdek urtarrilaren 24an. Eta hurrengo egunean, DJ jaialdia egongo da Zabalotegin bertan. Urtarrileko azken domekan, ostera, Udal Musika bandaren txanda izango da.

Antzerkiari dagokionez, hilaren 19an, 1 eta 3 urte bitarteko umeei zuzendutako *Kulunka* ikuskizuna egongo da; eta hilaren 31n, ostera, *Ondoko tipoa* ekarriko du Txalo antzerki taldeak.

**Erakusketak eta zine-kluba**

Aroztegi aretoan ohi bezala erakusketa ezberdinak izango dituzte herritarrek eskura. Urtarrilaren 17atik 26ra Beart elkartearen pintura erakusketa egongo da. Ostean, hilaren 29tik martxoaren 2ra, *Inbasio Napoleonikoak* deiturikoa ipiniko dute ikusgai

Eta zine-klubari dagokionez, *Argo* emango dute hilaren 15ean; *El Gran Gatsby* hilaren 22an eta *La lluita a la motxilla / Borroka bizkarrean,* 29an; guztiak 22:00etan hasita, Zabalotegin.



Janaria batzeko kutxa Eroskin. | GOIENA

# Eskoletara zabaldu dute sahararren aldeko janari-batzea

Bereziki, arroza, pasta, atun eta sardina latak, azukrea, fardelak eta konpresak behar dira

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Abendu erdialdean abiatutako kanpaina ikastetxeetara zabaldu du Bubisher elkarteak Gabonetako oporren ostean.

Kanpainaren helburua da Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren sahararrei ahalik eta elikagairik gehien eramatea, han jasaten duten elikagai falta ahal duten neurrian arintzeko. Bergarako Bubisher elkarteak bat egiten du helburu horrekin, eta, horregatik, otsailean Aljeriarantz abiatuko den *Piztu itxaropena* izeneko Sahararen aldeko euskal karabanarako ahalik eta elikagai gehien batu nahi dute herrian.

Abenduan abiatu zuten kanpaina, eta, ordutik hona, herriko dendetan, supermerkatu handietan eta udaletxean dihardute batzea egiten, eta, esandako moduan, orain Aranzadi Ikastolara, Mariaren Lagundia Ikastolara, San Martin Herri Eskolara eta Ipintza Institutura zabaldu dute kanpaina; baita Soraluzeko eskoletara ere. Hori horrela, bereziki honakoak batzea komeni dela gogorarazi dute Bubisherretik: arroza, pasta, atun eta sardina latak, azukrea, lekaleak eta helduendako fardelak eta konpresak.

Horrekin batera, kontua ireki dute Laboral Kutxan laguntza ekonomikoa egin nahi dutenendako: 3035 0080 94 0800054177.

### Urtarrilaren 19ra arte

Kanpaina hilaren 19ra arte izango da eta Bubisherretik dei egiten diete herritarrei parte har dezaten. Batzea bide onetik doala ere gehitu dute. Eta, horrekin guztiarekin batera, gogora ekarri nahi izan dute elkarteak ateak irekita dituela parte hartu nahi duten guztiendako.

## NIRE USTEZ



AITZIBER PLAZAOLA

# Itsasotik, uholdera!

XEPPK-ko bitartekaritza eta abokatuen atxiloketak, Preso Politikoen eskubideen aldeko mobilizazioaren debekua, Irati Mujikaren atxiloketa, filtrazioak... dena, ilusioz elkartutako tantak sakabanatu, eta ezerezean hauek lurruntzeko etengabeko saiakeran. Gure konpromisoaren tanta, inpotentzia eta amorruaren malko bihurtzeko lanean.

Euskal Preso Politikoen eskubideen aldeko atxikimenduak, malkoak isurtzera eraman gaitu askotan, eta orain, konpromiso eta baita sentimendu horrek ere, tanta egin gaitu. Izotz edo laino ginenok, elkartu egin gaitu, eta norbera berean jardutetik, herrian, kalean, gure errekatxoak, eta baita ibaiak ere, osatzen joan garen arte.

Ibaiek, urak, berak bidea egin behar izaten du ezinbestean, eta gero eta jende gehiago busti. Eta bai, asko gara busti garenak. Bustitzeko saiakeran itotzeko beldur direnik ere badago, hau horrela izanik ere, edo zalantzan egon, edo... batek daki zergatik, oraindik euritakoa dutenei, gonbidapena luzatu nahiko nieke, jada sortu den itsaso zabal honetara batu daitezen.

Loreak moztu arren, udaberria gelditzerik ez dagoela sinistu izan dut beti. Eta gaur, ibaiari, edo itsasoari oztopoak jarri ezkero, gainezka egin, eta uholdeak sortzen dituela konbentzituta nago.

**"Itsaso zabal honetara batu dadin gonbidatzen dut jendea"**

### Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastida omentzeko egingo duen saiorako sarrerak

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastida zenaren omenezko kontzertua egingo du urtarrilaren 17an, datorren egubakoitzean, 20:00etan, Udal Pilotalekuan. Sarrerak dagoeneko salgai daude, 10 eurotan, kultura etxean eta Lazkano oinetako-dendan. Emanaldiaren egunean leihatilan ere jarriko dituzte salgai, 12 eurotan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak *Orkestra herrietan* delako ekimenaren barruan egingo du saioa. Udalarekin elkarlanean, EOSek gurean egingo duen bosgarren kontzertua da.

# Garbigune ibiltaria hilean birritan etorriko da San Martin plazara

Etxean sor daitezkeen hondakin arriskutsuak batzeko zerbitzua da

**M.B.** | BERGARA

Garbigune ibiltaria martxan da, eta, aurreko urtean egindako moduan, bailarako herri guztietatik igaroko da. Baita Bergaratik ere. Eta asteon, martitzenean, izan zen San Martin plazan, etxeko hondakin arriskutsuak, hala nola erradiografiak, bonbillak, disolbatzaileak, bateriak, etxetresna elektrikoak, olio zaharrak, pilak, CDak, DVDak eta margoak batzeko.

Debagoieneko hiru herritan daude garbigune finkoak, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran, hain zuzen ere, baina ibiltariarekin gainontzeko herrietara ere iritsi nahi izan du Debagoieneko Mankomunitateak.


Garbigune ibiltaria martitzenean San Martin plazan. | IMANOL GALLEGO

### Egutegia finkatuta

Dagoeneko finkatuta dago garbigune ibiltariaren 2014ko egutegia eta bailarako herri guztietara iritsiko da. Hala, hamabostean behin eta herri bakoitzerako zehaztutako datan, egun osoa emango du bertan, bizilagunek, modu erosoan, etxean pilatu dituzten hondakin arriskutsuak bertara bota ditzaten.

Mankomunitateak Goiena Gidarekin batera banatuko du egutegi hori. Goiko taulan Bergarara etorriko den egunak ikus daitezke. Datorren guztietan San Martin plazan jarriko dute, 10:00etatik 21:00etara.

**EGUTEGIA**

| HILABETEA | EGUNA |
|---|---|
| Urtarrila | 21 |
| Otsaila | 4, 18 |
| Martxoa | 4, 18 |
| Apirila | 1, 15, 29 |
| Maiatza | 13, 27 |
| Ekaina | 10, 24 |
| Uztaila | 8, 22 |
| Abuztua | 5, 19 |
| Iraila | 2, 30 |
| Urria | 14, 28 |
| Azaroa | 11, 25 |
| Abendua | 9, 23 |

San Martin plazan, 10:00etatik 21:00etara

# '1813, historia edo mitoa?' mahai-ingurua hilaren 15ean

**M.B.** | BERGARA

Eguaztenean, hilaren 15ean, *1813, historia edo mitoa?* mahai-ingurua egongo da 19:00etan Irizar jauregian. Xabier Kerexetaren, Maggie Bullen-en eta Mertxe Trancheren ikuspuntu feministatik abiatuta, gure historia eta tradizioak aztertuko dira bertan. Mahai-ingurua ez da ekintza isolatua izango. Hilaren 29an Aroztegin irekiko den *1808-1813. Inbasio napoleonikoak* izeneko erakusketarekin lotuta dago. Erakusketaren helburua Bake-itunaren diskurtso historikoa lurralde osora zabaltzea da, Gipuzkoan XIX. mendearen hasiera gatazkatsuan izandako gertakizunak nabarmenduz. *Bake-ituna* Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua ekimeneko proiektuaren barruan dago.



Akordeoi eta trikiti-pandero taldeetako ikasleak, 2013ko Herri Egunean | JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

# 25. urteurrena ospatzeko prest dago musika eskola

## Argazki zaharren jendaurreko proiekzioa egin gura du eta herritarren erretratuak jaso gura ditu

IRATI GOITIA | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolak 25 urte beteko ditu aurten eta hamaika ekintza antolatu ditu urteurren hori herritarrekin batera ospatzeko. Adibidez, disko bat grabatzea, argazki zaharren proiekzioa egitea eta Kataluniara bidaian joatea.

**Argazki zaharrak**

"Musikaldia egin dugu eta orain, epe laburrean, disko bat grabatzeko asmoa dugu. Oñatin egingo den jaialdi berezi baten aurkeztuko dugu, argazki zaharren proiekzioarekin batera. Batutako dirua gaixotasunen bat duten haurren elkarte batera bideratzea da asmoa. Udaleko Kultura Sailarekin ere harremanetan gaude, baina oraindik ez dugu jaialdirako datarik zehaztu", aurreratu du Aitor Madinak, Jose de Azpiazu musika eskolako zuzendariak.

Argazki proiekzio horretarako, baina, ahalik eta argazki gehien batu gura dituzte eta herritarrei dei egiten die etxean dituzten argazkiak musika eskolara bidaltzeko otsailaren 14a aurretik. Hauxe da helbidea: *idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com*.

**340 ikasle**

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle kopurua handituz joan da azken urteetan; 340 inguru dira egun. Ikasle helduak ere gehiago dira urtetik urtera. "Arrakastaren arrazoietako bat musika taldeen garrantzia da, norberaren ikaste prozesua aberasteko. Musikaz gain, errespetua, puntualtasuna... ere ikasten dira", dio Madinak.

# Kiroletako diru laguntzak banatzeko araudia egingo dute

## Udalarekin hitzarmena dutenak ez dira sartzen

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kirol arloko ekintzetako diru laguntzak banatzeko araudia egingo du Udaleko Kirol Sailak. Horrek arautuko du nola banatu urtero Udalak kirol ekintzetarako ematen duen diru laguntza kopurua.

**13.000 euro**

"Azken urteetan, gutxi gorabehera, antzera banatu dira diru laguntzak eta pentsatu dugu hori arautzea. Araudi hori, baina, herriko kirol elkarte, talde edo kirol ekintzak antolatu gura dituen edozein norbanakorekin egin gura izan dugu. Horregatik, joan den eguaztenean bilera egin genuen asmoa zein den azaltzeko eta euren kezkak, iritziak edo ekarpenak jasotzeko. Izan ere, aurrerantzean araudi hori aplikatuko da diru laguntzak banatzeko, eta denon artean egitea pentsatu dugu", azaldu du Udaleko Kirol teknikari Oskar Carrascalek.

Kirol batzordeak gaur, astelehena, egingo du urteko lehen bilera, eta araudia onartzea espero da. Behin onartuta, kaleratu egingo da. "Gero, berriz jarriko gara harremanetan 2014an kirol ekintzak antolatu gura dituztenekin, eskaerak egin ditzaten. Euren proposamenak aztertuko ditugu eta horren arabera banatuko da diru laguntza", zehaztu du Carrascalek. 2014ko aurrekontuetan, 13.000 euro gorde dira kiroletako diru laguntzetarako. "Kanpoan geldituko dira Udalarekin hitzarmena eginda duten elkarteak; Aloña Mendi eta Atxintxiketan, esaterako. Eta aurten, baita Aloñako igoera antolatzen duen taldea ere. Aurten 10 urte betetzen ditu proba horrek eta lankidetza sinatu du Udalarekin", argitu du Kirol teknikariak.

### Hermansoloñak 32. edukiontzia bidaliko du Argentinara

Hermansoloña GKEk laguntza humanitarioko beste edukiontzi bat bidaliko du Argentinara. Zehazki, 32.a izango da eta ia 20 tona izango ditu. Orotariko materiala batu dute: arropa, oinetakoak, jostailuak, eta abar. Bihar ontziratuko dute, Bilbon.

### Gaur hasiko dira Zubikoako bazkide kuotak kobratzen

Kiroldegiko bazkide tarifek igoera izan dute: banakako bazkideen kuota %3 garestitu da eta familia osokoa, %5. Bazkide txartela helbideratu gabe dutenei, oharra bidaliko diete zehaztapenekin. Gainerakoei banketxeen bitartez kargatuko diete.

**NIRE USTEZ**

MAIALEN ARRAZOLA



# Elikatuz elikatu

Dietista eta elikagaien teknologoa naizen aldetik, noizean behin zuekin izango naiz elikagaien munduko gaien inguruan hitz egiten.

Aldaketen txanparako egokia izan liteke urtarrila… Bai noski!

Baina gehiago egingo du nahi duenak ahal duenak baino. Elikadurak, ariketa fisikoak eta alderdi psikologikoak bat egiten dute gure osasunean. Batak besteari eragiten dio eta lotuta daude azalore baten loreak elkarrekin lotuta dauden bezala.

Nire aholkua hauxe da: bizitza osasuntsua, ohitura aldaketetan oinarritzea eta aldaketak poliki-poliki geure egitea, gustuko hartzen ditugun heinean eta gure bizitzan txertatzen ditugun neurrian. Helburu hau lortzeko espezialista ezberdinen laguntza ere bultzada bat izan daiteke, baina norberak du norberaren aldaketen giltza.

Eta gogoratu… elikadura aukeraketan dugun ardura, gure osasunaz gain ingurugiroarekin, etikarekin, arlo sozialekin, kulturarekin, plazerarekin edo teknologiarekin ere baduela; era egokian jateak horrekin guztiarekin du lotura eta txikitatik hasitako elikadura hezkuntza egoki batek borobiltzen du.

Lapikoa sutan jarri eta dasta dezagun urte berriko norbere erronkak. On egin digula janak eta gaitzik ez edanak.

**"Dasta ditzagun urte berriko norbere erronkak"**

# Urteko lehen mendi irteera egingo du Aloña Mendik

O.E. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak domekan egingo du urteko lehen mendi irteera. Araotz-Kurtzebarri-Aretxabaleta itzulia aukeratu dute urtea sasoitsu hasteko.

Ibilbide ezaguna da mendizaleendako. 13 kilometro inguru ditu, guztira, eta 800 metroko desnibela, gutxi gorabehera. Itzulia bukatzean bazkaria egingo dute Apotzagako elkartean, urteko lehen irteeran urtero egin ohi duten moduan.

Domekan, urtarrilak 19, egingo dute lehen irteera hori, 08:00etan postetxetik abiatuta. Mendi saileko bazkide direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 13 euro eta langabezian daudenak, bost euro. Izena emateko azken eguna eguena da.

**TXALOAK ETA TXISTUAK**



O.E.

# Eserlekua falta autobus geltokian

Olakua auzoan dagoen autobus geltokian eserleku bat falta dela konturatu da herritar bat. "Lehengo eserlekuak marroiak ziren eta gero berriak jarri zituzten, gorriak. Baina jarri bezain laster eserlekuetako bat bere tokitik kendu zuten. Ez dakit zergatik. Orain, alde batean bi daude eta beste aldean hiru", azaldu du herritar batek.

**Joseba Iñurrategi** | Pilotazalea eta Eskoriatza Kirol Elkarteko delegatu ohia

# "Pilotarekiko zaletasuna txikitu egin da eta pena ematen dit"

- 8 urte zituenean hasi zen pilotan eta bizitza osoa egin du kirolari lotuta
- Egindako lanagatik omenaldia egin zioten abenduaren 27an eskoriatzarrari

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Pilotaren mundua ondo ezagutzen du Joseba Iñurrategik, ia bizitza osoa eman du-eta Eskoriatzako Udalaren eta Eskoriatza Kirol Elkartearen eta, oro har, herri osoaren izenean. Udal Pilotalekuak, gainera, bere izena eramango du aurrerantzean.

**Omenaldi polita jaso berri duzu...**

Ez nuen horrelakorik espero. Hogei bat egun lehenago deitu zidaten udaletxetik zerbait egin gura zutela esanez, eta nire onespena behar zutela. Arrazoi batengatik eman nuen baietza; hain zuzen ere, Udaletik inoiz ez didatelako ez niri eta ez beste inori, kirol arloari dagokionez, omenaldirik egin, eta herrian zer lan egiten den erakusteko balioko zuela iruditu zitzaidan. Nire familiak bazekien zer egin behar zuten, baina nik ez, sekretua mantendu zuten. Hunkigarria izan zen, benetan, eta oso eskertuta nago.

**Udal Pilotalekuari zure izena ipini diote, gainera.**

Hori agian larregikoa izan da, eta oraindik ez dut guztiz sinesten! [Barre]

**Nola hasi zinen pilotan?**

Arantzazun ikasi nuen, eta hotzetik ihes egiteko bide bakarra geneukan eta pilotan jokatzen genuen, alpargatak jantzita. Gainera, Oñatiko pilotariak-eta bertara joaten ziren, batzuetan entrenatzera, partiduak jokatzera bestetan... Giro hartan zaletu nintzen.

**Eta jokatzen jarraitu zenuen.**

Bai; Arantzazukoa amaituta, herrira etorri eta pilota partidu bat ikustera joan nintzen; Eskoriatzak galdu egin zuen Bergararen kontra. Iñaki Kortazarrek –hura ni baino gazteagoa da– jokatu zuen, eta honela esan zidan: "Praka zuriak oparitzen dizkizut, hemendik aurrera jokatu gura baduzu!". Hurrengo asterako eginda neukan fitxa. 24-25 urte nituen orduan eta federatuta 33 urte nituenera arte aritu nintzen, istripua eduki nuenera arte, eta gero beste lau bat urte beteranoetan.

**Ez zen hor amaitu pilotarekiko harremana, ezta?**

Ez, urte dezente egin ditut delegatu moduan. 1980ko hamarkadan hasi nintzen beste bizpahiru lagunekin batera, tartean Isidro Garaterekin. Elkarrekin urtebete arituta, besteek utzi eta nire ardurapean geratu zen guztia. Egia esan, oso gustura aritzen naiz mutikoen artean jokatzen -eta, baina orain ezin dut erritmoa jarraitu.

**Baina hartu dizute erreleboa.**

Bai, eskerrak! Gazteren batzuk sartzea gura nuen eta Apotzagako Zubizarreta anaiek hartu dute. Esan nien pilotan aurrera jarraitu gura baldin bazuten txikiagoei lagundu beharko lieketela. Orain ez naiz tartean askorik ibiliko; zale gisa, ostera, bai.

**Urte hauetan, herrian pilotarekiko afizioa aldatu al da?**

Izugarri. Mundu horretan dabiltzanek badaukate, baina, bestela, ez askorik. Eta pena ematen dit. Lehen, domeka eguerdietan frontoian egiten ziren partiduak ikustera joaten zen jendea, edo kontzejupean orduak igarotzen genituen jokatzen eta tabernetan-eta horri buruz egiten zen berba eta apustuak-eta ere ez ziren falta. Bestalde, telebistan ere pilota asko ematen dute, eta, agian, jendea nekatu egin da; eta lehen baino kirol eskaintza zabalagoa ere badago... Pilota zaletasuna frontoian geratu da.



Joseba Iñurrategi, bere izena duen pilotalekuan. | Z.V.D.M.

**"Oso hunkigarria izan zen omenaldia, ez nuen horrelakorik espero"**

**"Arantzazun hasi nintzen pilotan eta urte asko eta asko eskaini dizkiot"**

**"Ordu asko egiten genituen frontoian zein kontzejupean pilotan jokatzen"**


Abenduaren 27an omendu zuten eskoriatzarra. | MONIKA BELASTEGI

# Landa-gunean erabiltzen den plastikoa batuko dute

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Debagoieneko Landa Garapen Elkartetik urtean zehar zortzi aldiz batzen dute nekazaritzarako erabiltzen den plastikoa landa-gunean, eta, 2014an sartuta, zehaztu dute Aretxabaletako egutegia eta jasotze puntuak zeintzuk diren ere eman dute aditzera.

Jasoko den materialari dagokionez, siloa estaltzeko plastiko beltza, belar boletan erabiltzen dena, berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen dena batuko dutela eman dute aditzera, eta baita berotegiko plastiko zuria ere. Bestalde, plastikozko sokak ez dituztela batuko eman dute aditzera Debagoieneko Landa Garapen Elkartetik.

**Urtean zortzi aldiz**

Egutegia ere zehaztu dute. Hain zuzen ere, urtarrilaren 28an, otsailaren 25ean, martxoaren 25ean, maiatzaren 27an, uztailaren 22an, irailaren 23an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango da. Arratsaldeetan atera beharko da plastikoa.

Aretxabaletari dagokionez, Lausittan Izurieta bidegurutzetik 100 metrora utzi beharko da; Bainetxen, Mendiolako bide parean; eta azkenik, Oroko bidegurutzean. Eta Eskoriatzan, ostera, Zarimuzko bidegurutzera atera beharko da plastikoa. Hala ere, esandako lekuez gainera beste tokiren batean jasotzea gura baldin bada, 943 76 25 47 telefono zenbakira deitu beharko da.

# Frontenis txapelketa solidarioa antolatu dute dirua biltzeko

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Urtarrilaren 19an frontenis txapelketa solidarioa egingo dute Aretxabaletan. MUko LEINN graduko bigarren mailako 17 ikaslez osatutako Wantcoop enpresako kideak dira antolatzaileak. Txapelketa 09:30ean hasi eta 20:00etan amaituko da. Izena emateko azken eguna hilaren 18a izango da eta Paulaner eta Hirusta tabernetan eta estankoan egin daiteke, "bikoteko 20 euro ordainduta", diote antolatzaileek.

**Bidaia-gastuak ordaintzeko**

"Aretxabaletako neska gazte bati laguntzeko antolatu dugu, duen gaixotasunari aurre egiteko beharrezko tratamendua jasotzeko Bartzelonara joan behar du eta bidaia-gastuak ordaintzen lagundu gura diogu". Hala eman du aditzera Danel Garziak, antolatzaileetako batek.

## Basotxok antolatuta, minusbaliotasunari eta menpekotasunari buruzko berbaldia bihar (17:30)

*Minusbaliotasuna eta menpekotasuna Aretxabaletan* berbaldia antolatu du Basotxok biharko, martitzena. Hector Prieto Rosado aretxabaletarrak hartuko du parte. Antolatzaileek honela azaldu dute: "Helburua da minusbaliatuen eta menpekoen egoeraren inguruko analisi pertsonala, kolektibo honetako pertsonek bizitza duina eta independentea egiteko dituzten mugetan sakondu".

## Arreta soziosanitarioan lan egiten dutenek egubakoitzera arte baliozkotu dezakete titulua

Pertsonentzako etxez etxeko arreta soziosanitarioa eskaintzen duten langileek zein erakunde sozialetan mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa eskaintzen dutenek titulazio berria atera beharko dute 2015ean. Titulua baliozkotu nahi dutenak, Lanbide Heziketa eskolara joan beharko du hilaren 17a baino lehen, 08:30etik 17:30era. Ziurtagiriak eraman beharko dira, orain arteko prestakuntza formala edo lan esperientzia kontuan hartzeko.

## Fiare banku etikoa Aretxabaletan ezagutzera emateko bilera egingo dute eguen honetan Arkupen

Fiare banku etikoa aurkeztuko dute datorren asteko eguenean, arratsaldeko seietan hasita, Arkupeko bigarren solairuan. Aurkezpen horrekin nahi dutena da Fiare proiektua ezagutaraztea, eta, modu horretara, pixkanaka-pixkanaka bazkide, aurreztaile eta laguntzaile gehiago lortzea. Arrasaten eta Oñatin dagoeneko ezaguna da Fiare eta orain Aretxabaletan ezagutarazi nahi dutela eman dute aditzera.



David Guapok zabalduko du, zapatuan, Elgetako II. Monologo Mostra. | TTIPIA KULTURA

ELGETA

# Umorea izango da nagusi hiruhileko honetan Espaloiaren programazioan

## Monologo Mostrarekin, Pagadi eta konpainiaren azken ikuskizunarekin eta Yllana taldearen '¡Muu!2' antzezlanarekin, izango da barre egiteko aukerarik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

AM Big Band eta atzo, domeka, egindako *Herrixa dantzan* ekimenarekin eman diote hasiera urte berriari Espaloian. Urte berezia izango da Espaloian; izan ere, ekainean hamar urte beteko ditu Goibeko euskara elkartearen erronka potolo izan den kultura ekimenak. Horrekin lotuta, 10. urteurrena gogora ekartzen duen logo bereziarekin aurkeztuko dira hilabeteotako ekimenak, eta orain arte egindako ibilbidearen laburpena egiten duen irudi erraldoia ipini dute antzokiko agertokian. Irudi horretan, hamar urteotan Elgetako antzokitik igaro diren artisten eta ekimenen argazkiak daude.

Testuinguru horretan, hiru hilabeteko programazio berria aurkeztu dute Elgetako kafe antzokitik. Urtarrilean David Guapo eta Luis Piedrahita izango dira Elgetako II. Monologo Mostraren barruan eta otsailean, Txabi Franquesa eta Sergio Fernandez *El Monaguillo*.

Umoreak protagonismo berezia izango du urteko lehen hiruhileko honetan, eta otsailaren 21ean Egoitz Lasak, Mikel Pagadizabalek eta Nagore Aranburuk *Potologoak* izeneko lana ekarriko dute Espaloira. *Bodologoak* ikuskizunarekin barre egin zuten Elgetan orain bi urte, eta *Potologoak* izango dituzte orain. Yllana konpainiaren *¡Muuu!2* ikuskizunak ere emango du zeresana. Martxoaren 28an izango da ikusgai, Espaloian, eta bere jarraitzaileak ditu konpainia horrek gurean.

### Musika eta ikus-entzunezkoa

Martxora bitartean bi musika emanaldi iragarri dituzte Espaloia kafe antzokitik. Otsailaren 7an Bide Ertzean eta Balerdi-Balerdi taldeak izango dira Elgetan. Bide Ertzean taldeak 77 diskoa aurkeztuko du. Martxoaren 2an, berriz, Mursego eta Napoka Iria izango dira taula gainean.

Urtarrilean, hilaren 22an, ikus-entzunezkoa ere eskainiko du Arkaitz Astiazaran lasturtarrak. Udaberrian 4.400 kilometro egin zituen bizikleta gainean Euskal Herrian zehar, eta abentura horren berri emango du.

### Zerbitzu aldaketa

Urte berriarekin batera ordutegi aldaketa izan da antzokiko ostalaritza zerbitzuan. Aurrerantzean, eguenetik domekara bitartean egongo da antzokia zabalik. Eguenetan eta barikuetan 18:00etatik aurrera eta zapatuetan eta domeketan 11:00etatik aurrera.

ANTZUOLA

# Sahararen aldeko X. Piztu Itxaropena kanpaina abian da

## Urtarrilaren 8tik 18ra egongo da martxan elikagaiak batzeko urteroko kanpaina hori

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Elkartasun kanpainaren helburu nagusia saharar herriari elikagaiak helaraztea da, Tindufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararrek gaur egun jasaten duten elikadura krisiari aurre egiten laguntzeko. Kanpaina Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteak jarri du abian eta Antzuolan Eskolak, Udalak eta Anelkarrek bultzatzen dute.

Aurtengo kanpainan elikagai hauek jasotzea da helburua: hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, lekaleak eta helduentzako fardelak eta konpresak. Produktu horiek eskatzen dira, horiek direlako sahararrentzako elikadura osagarria biltzeko estatu mailan egin den banaketan Euskadiri egokitu zaizkion produktuak.

Elikagaiak eskolan, Aixa fruta-dendan, Eroskin eta Kalebarren dendan jasoko dira urtarrilaren 18ra bitartean.

### 'Gure esku dago' ekimena

Egubakoitz honetan *Gure esku dago* ekimena aurkeztuko dute herrian. Olaranen izango da aurkezpena, 19:30ean. Herritar guztiak gonbidatuta daude ekimenaren berri izan eta antolatuko diren ekintzetan parte hartzera. Ekimen hori erabakitzeko eskubidearen alde lan egiten duen herri dinamika bat da.

ARAMAIO

# 'Bazan behin Aramaixon' liburuxka otsailean aurkeztuko dute

## Dibina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak jasotako ipuin eta kondairak ditu oinarri lanak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren ekimenez, *Bazan behin Aramaixon* liburuxka inprentan dago dagoeneko. Urtarrilaren 17an egin behar zuten aurkezpena, baina inprentako lana atzeratu denez, otsailean aurkeztuko dute.

Arantza Ozaetak eta Dibina Arriolabengoak egindako Aramaioko ipuin eta kondairen bilketa aprobetxatu du Udalak liburuxka osatzeko. Ozaetaz eta Arriolabengoaz gain, Belen Morenok –irudigilea–, Miel A. Elustondok, Jabier Kaltzakortak, Txipi Ormaetxeak –edizioa– eta Manex Agirrek –zuzentzailea– hartu dute parte proiektuan. Haurrendako irakurterraza izatea gura dute; horregatik, liburuxkako marrazkiak handiak dira eta kolore ugari erabili dira diseinuan. Hitzak ere handiak, argiak eta kaligrafia borobilekoak dira.

### Aramaioko euskaran

Ipuinak euskalkian idatzi dira, Aramaion erabiltzen den euskara ahalik eta gehien mantentzeko asmoz. Hala ere, hainbat hartzailerendako ulergarria izan dadin, ipuinak euskara batuan ere idatzi dira. Lehentasunezko lekua Aramaioko euskarak izango du eta ondoan *itzulpena* joango da.

Aurkezpenean proiektuaren oinarri diren protagonistak gogora ekarriko dituzte.


Julian Untzueta eta Nikolas Gardoki 2011ko omenaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

LEINTZ GATZAGA

# Errepideari eragiten dioten lanak, bukatuta

## Herritarrendako eragozpenak saihesteko, Gabonak aprobetxatu dituzte obrak egiteko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gatzagan eraikitzen dihardüten araztegi berriko obretan aurrerapen garrantzitsua egin dute Gabonak aprobetxatuta: errepidea lur azpitik zeharkatuta eraiki behar ziren azpiegiturak egokitu dituzte. Modu horretan, araztegiaren obrek sor ditzaketen eragozpenik handienak saihestu dituzte.

Izan ere, besteak beste, edateko ura zein saneamendu urak banandu eta horiek araztegi berrira bideratzeko, beharrezkoa zen hodia errepide azpitik pasaraztea, Dorletara doan errepidearen azpitik, hain zuzen ere. Eta jakinda horrek errepidearen etetea eta, ondorioz, herritarrendako eragozpenak ekar zitzakeela, bada, Gabonak aprobetxatu dituzte zeregin horietarako.

Euri urei dagokienez, berriz, horiek errekara joaten segituko dute, orain arte moduan.

Errepide azpiko obrez gainera, besteak beste, errepide inguruko pinu batzuk botatzeko ere aprobetxatu dute.

Edozelan ere, horiek "hasierako lanak" besterik ez da izan. Marian Aristik, Leintz Gatzagako aparejadoreak esandako moduan, orain hasiko dira "obra potoloa" egiten.

### Bost hilabete

Azaro amaieran hasi zituzten araztegia eraikitzeko obrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. 629.357,43 euro da aurrekontua (BEZa barne). Eta bukatzeko epea, berriz, bost hilabetekoa. Azpiegitura horren helburua da herriko ur zikinak garbi botatzea Deba ibaira.

Aurreztu
eta irabazi

1.000€*
erosketa txarteletan

Gorbeiako
Merkealdiarekin

*Sartu
centrocomercialgorbeia.com webgunean
1.000€-ren zozketan parte hartu ahalko duzu, 200€ banako 5 erosketa-txarteletan

2014ko urtarrilaren 7tik otsailaren 1era arte
Oinarri osoak: centrocomercialgorbeia.com webgunean

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour Gorbeia DECATHLON Norauto BRICO DEPOT McDonald's merkal calzados YELMO CINES GORBEIA CIMER el outlet del electro BOOM CORTEFIEL asian center Mr. Wok asian bistro Carrefour Viajes

# KIROLA




UDA eta Zarautzen arteko norgehiagokako une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

## Garaipen garrantzitsua

- Merezitako garaipena lortu zuen atzo Aretxabaletak Zarautzen aurkako partiduan
- Oxel Apraizek berdegunea utzi behar izan zuen lehen zatian, belaunean min hartuta

**EMAITZA**

ARETXABALETA
**2-0**
ZARAUTZ

**FITXA TEKNIKOA**

**Aretxabaleta:** Castellano, Raul Sanchez, Amutxategi, Arromajauregi, Etxabe, Haritz, Rodriguez (Perez, 65min.), Orueta, Apraiz (Zaitegi, 20min.), Lopez (Iker Sanchez, 55min.), Mar (Badillo, 75min.).

**Zarautz:** Jaka, Urdangarin, Aizpurua, Ahedo, Ferreras, Arriola (Barandiaan, 70min.), Zubielki, Petxarroman (Imanol, 86 min.), Iriarte, Iribar, Vega (Nestor, 77min.).

**Beste:** Haize hotzari aurre eginez, zale ugari izan ziren harmailetan.

**ANE ETXEBERRIA** | ARETXABALETA

Partidu lasaia izan zen Ibarra futbol zelaikoa. Lehenengo zatiko lehenengo minutuetan partidua orekatua izan zen, bai etxekoek zein kanpotarrek aukera oso politak izan zituzten. Defentsan lan handia egin zuen UDAk eta aurrean ere presio handia sartzen aritu zen. Hala, 6.minutuan gol bikaina sartu zuen Oxel Apraizek. Oso garrantzitsua izan zen gola, jokalariak animatu eta gol gosez, zarauztarren areara behin eta berriz gerturatu baitziren. Hori bai, zorte gutxirekin, izan ere, azken pasetan, azken jaurtiketetan, zerbait falta zitzaien, hutsegite asko egin zituzten.

19. minutuan baina, etxekoen golegileak, Apraizek, min hartu zuen belaunean, falta baten ostean. Kanpora atera zen eta denbora gutxira berriz ere zelaira atera bazen ere, hurrengo sarrera batean berriz ere min hartu eta zelaia utzi behar izan zuen lesionaturik. Bere partez orduan, Zaitegi sartu zen. Hurrengo minutuetan, Zarautz primeran aritu zen bere atea defendatzen. Sarrera ugari izan ziren eta txartel hori nahikotxo atera zituen epaileak.

Lehen zatia amaitu aurretik, giroa berotu egin zen, protestak izan ziren jokaldi baten ostean eta epaileak UDA zein Zarauzko taldeko jokalariei zenbait txartel hori atera zizkien. Zarautzek presioa sartu zuen eta aukerak izan zituen, baina etxekoek ez zuten amore eman eta borrokari eutsi zioten. Azkenean, lehen zatia amaitu zen. Hori bai, 5 minutu luzatu zuen epaileak.

**Bigarren zatia indartsuagoa**

Bigarren zatiko jokoa azkarragoa izan zen, oso indartsu eta eraberrituta atera ziren etxekoak eta gol gosez, ekin eta ekin aritu ziren, baina azken jaurtiketan huts asko eginez. UDAk oso ongi jokatu zuen, asko ukitu zuen baloia, jokaldi politak egin zituzten eta bigarrena lortzeko zorian behin baino gehiagotan egon ziren. Bigarren zatian UDA gehiago izan zen, Zarautzek ezin izan zion aurre egin minutu askotan. Etxekoek lan asko egin zuten, fin ibili ziren jokaldi geldiak ongi atera eta arriskua sortuz.

Azkenean, presioak eta lanak izan zuen emaitza borobila. Partidua bukatzeko minutu gutxi falta zirenean, 43. minutuan, bigarren gola sartu zuen UDAk. Iker Sanchezek egin zuen gola jokaldi eder bati amaiera borobila emanaz. Merezi eta behar zuen gola izan zen azken hau, izan ere beheko postuetatik ateratzen hasteko garaipena behar zuten jokalariek eta gol honekin, garaipena ziurtatzen zuten. Hala, irrifartsu eta lana ongi egin zutelako sentimenduarekin etxekoak pozik eta gustura amaitu zuten norgehiagoka. Eta zer esanik ez zaleen poztasunaz. Urduritasunaren ostean, harmailatan elkartutako lagunak pozik utzi zuten futbol zelaia.

**GORKA VALLE** | ENTRENATZAILEA

### "Azken jaurtiketetan hutsegite asko egiten ditugu, baina gaur pozik nago"



ANE ETXEBERRIA

Gorka Valle oso pozik eta gustura azaldu zen bere jokalariek egindako lanarekin. Presioa eta lana izan ziren nagusi, baloiaren jabetza etxekoen oinetan izan zen ia partidu osoan.

**Zer moduz ikusi duzu taldea?**

Egia esan, oso ondo ikusi dut taldea, lehenengo zatia ez da horren ona izan, baina eurek ere ez dute aukera askorik izan, guk izan dugu baloiaren jabetza partiduko minutu askotan eta aukera asko izan ditugu nahiz eta amaiera bikainik ematerik izan ez dugun.

Bigarren zatian ere aukerak izan ditugu eta azkenean gola sartu dugu eta garaipena geurean geratu da.

**Aukera asko izan dituzue, baina azkenengo jaurtiketetan huts egiten duzue...**

Bai hala da, sailkapenean azkenengo postuetan zaudenean kosta egiten zaizu golak sartzea eta bigarren zatian argi geratu da hori. Aukera asko izan ditugu golak sartzeko baina ez zen sartzen, saiatu eta ezin, hori izan da gaurko partidua.

Bigarren gola ere justu justu sartu da, ematen zuen atezainak geratu egingo zuela, baina bueno, azkenean zortea izan dugu eta bigarrena sartzerik izan dugu eta partidua irabazi dugu, garaipena ziurtatu dugu.

**Oxel Apraizek min hartu du lehen zatian, zer dauka?**

Bai, min hartu du belaunean, oraindik ere ez dakigu zer daukan zehazki, baina ezin izan du aurrera egin. Bihar ikusiko dugu zer duen mindutako belaunean.

OHOREZKO ERREGIONALA

# Garaipena merezi izan bazuen ere, banakoarekin konformatu behar

Epaileak erabaki kritiko asko hartu zituen, txartel ugari atera eta Zubikarai kaleratu zuen lehen zatian

**EMAITZA**

ANTZUOLA
1-1
TOLOSA



Partidu oso beroa izan zen zapatuan bizi izan zena. | IMANOL SORIANO

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Partidu oso beroa izan zen zapatukoa. Ez eguraldi ederragatik, Eztala futbol zelaian jokalari, zale eta epailearen artean sortutako giroagatik baizik.

Lehen zatia lasai samar hasi zen. Tolosaren aukerak alde batetik eta bestetik Antzuolarenak. Nahiko orekatua izan zen: batzuetan Antzuolak aukera politak izan zituen eta besteetan Tolosak. Arana eta Zubiren arteko jokaldi politek ere aukera bat baino gehiago eragin zuten, baina ezinean aritu ziren, jokaldia amaitu ezinka. Falta asko izan ziren partiduan eta, halakoetan, aukera eta arrisku asko sortu zituen bisitariak. Baina lehen gola Antzuolako jokalariena izan zen. 20.minutuan, korner baten ondorioz, Oinatzek gol bikaina sartu zuen; denbora tarte horretan egindako lan eta esfortzuaren emaitza borobila izan zen gola. Hortik aurrera, baina, gauzak aldatzen hasi ziren, faltak eta txartel horiak ateratzen hasi baitzen epailea.

30. minutuan, zaleek eta jokalariek eurek ulertu ez zuten jokaldi batean, Zubikarairi bigarren txartel horia atera eta kalera bidali zuen epaileak. Iñaki Agirre kapitaina protestan, txartel horia ikusi zuenean, baina lehen zatiko azken hamar minutuak zein bigarren zati osoa hamarreko taldearekin jokatu behar izan zituen Antzuolak.

Lehen zatia bat eta hutsekoarekin amaitu bazen ere, bigarren zatian indartsu atera ziren Tolosako jokalariak eta lehenengo minutua pasa ostean gola sartu zuten, banakoa jarriz markagailuan. Etxekoek ez zuten amore eman eta aukera bat baino gehiago izan zuten Arana eta Aitor Godoyren eskutik.

20.minutuan, baina, marrazainak kexa luzatu zion epaileari, zale batzuek txistua bota ziotela-eta. Epaileak partidua geratu zuen eta une beroak izan ziren: jendea protestaka eta epailea partidua bertan behera utziko zuela mehatxuka. Azkenean, protestak medio, txartel hori dezente atera zituen, baita aulkian zeuden jokalariei ere. Galdutako denboraren ondorioz, partidua zortzi minutu inguru luzatu behar izan zuen epaileak.

35.minutuan, baina, Inaki Agirrek gertu izan zuen garaipena, izan ere, kontraeraso batean eta tolosarren areaen barruan, eskuarekin ikutu zuen baloia defentsa batek. Penaltia, beraz, etxekoen alde. Garaipena bertan zen, baina Tolosako atezainak geratu egin zuen Frisek botatako baloia. Hurrengo minutuek luze jo zuten. Tolosak aukera bat baino gehiago izan zituen partidua irabazteko, baina Jon Iturbe atezainak egindako irteera bikainei esker ez zuen lortu.



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

ARETO FUTBOLA

## Aretxabaletak erraz irabazi zuen

Gipuzkoa mailan, Aretxabaletako areto futboleko taldeak maila ona erakutsi zuen Hirukide taldearen kontra jokatutako partiduan. Zapatuan Ibarra kiroldegian izandako norgehiagokan 8-1 nagusitu ziren etxekoak. Pozik daude jokalariak, joko ona egin zutelako eta taldeak irudi ona eman zuelako. Asteon Zurt tabernaren kontra lehiatuko dira aretxabaletarrak.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Kanpotik puntu bana ekarri dute Bergarak eta Aloña Mendik

Aurrera eta Bergararen arteko lehia 0-0 amaitu zen; Beti Gazte eta Aloña Mendirena, berriz, 1-1

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Futbolean, Ohorezko Erregionalean, bi partidu jokatu dira asteon Debagoienetik kanpo. Zapatu arratsaldean Bergara Ondarroako Aurreraren kontra lehiatu zen, eta Aitor Arrateren mutilak puntu batekin bueltatu ziren etxera, 0-0 berdindu ostean.

Arrate berak azaldu digu zapatuko norgehiagoka orekatua izan zela, eta ez zela aukera askorik izan. Hasierako asmoa lehia irabaztea bazen ere, Ondarroako Zaldupera sei bat lesionaturekin joan zirela eta partidua hasi bezain pronto konturatu zirela ez zela samurra izango hiru puntuak lortzea.

Lehen zatian bergararrek dominatu zuten norgehiagoka, gola markatzeko aukera gutxi izan bazuten ere. Bigarren zatian, berriz, Aurrerakoak ibili ziren finago, baina ezin izan zuten gola sartu, eta esan bezala, 0-0 amaitu zen partidua. Arrateren arabera, "merezitako" berdinketa izan zen, eta pozik itzuli ziren Bergarara, "itxura ona" eman zutelako.

### Gola Gaizka Zelaiarena

Aloña Mendik ere berdinketa lortu zuen etxetik kanpo, Lesakako Beti Gazteren aurka: 1-1. Lehen hamar minututan sartu zituzten bi taldeek golak; lesakarrak aurreratu ziren, baina handik minutu gutxira, oñatiarren gola heldu zen. Gaizka Zelaiak sartu zuen gola.

Defentsan ondo ibili ziren Andoni Azkargortaren mutilak, baina erasoan, berriz, ez. Horren harira, Azkargortak berak onartu du ez zutela partidu ona egin, eta lesakarrek hobeto jokatu zutela.

Sailkapenean, zazpigarren dago Aloña Mendi, 24 punturekin. Asteon ere kanpoan jokatuko du Real Unionen kontra.

BIGARREN MAILA

## Añorgak 10-0 irabazi ostean, puntu barik dihardu Mondrak

Mondrako neskek ezin izan zuten ezer egin atzo Añorgaren kontra; 10-0 galdu zuten eguerdian Rezolan jokatutako lehia. Sailkapenean azkenak daude. Orain arte ez dute punturik lortu eta azken aurrekoarekin duten aldea handitzen doa; Barakaldo zortzi puntura dute orain. Bestalde, oraingo asteburuan ere kanpoan jokatuko dute arrasatearrek; hain justu, Logroñoren kontra lehiatuko dira Errioxan.

ERREGIONAL PREFERENTEA

## Berdinketarekin itzuli ziren Mondrako mutilak Zumaiatik

Erregional Preferentean, Mondrako mutilak puntu bat lortu zuten joan den zapatuan Zumaiakoren kontra jokatu zuten partiduan; bi taldeek 0-0 berdindu zuten Zumaiko Aita Mari berdegunean. Sailkapenean zortzigarren postuan daude orain etxekoak; hain justu, 26 punturekin berdinduta Zumaiakorekin. Bestalde, asteburuan Zestoako mutilen kontra jokatuko dute etxean. Zestoa Mondraren atzetik doa sailkapenean, 23 punturekin.

SASKIBALOIA

# 21 puntuko aldearekin garaipen justua lortu zuten MUko mutilek

## Deustu Loiola Indautxuko jokalariek ezin izan zuten ezer egin arrasatearren aurka (79-58)

**ANE ETXEBERRIA** | ARRASATE

Hasiera hasieratik indartsu eta gogotsu aritu ziren Arrasateko mutilak eta hori antzeman zen bai, markagailuan, izan ere, lehen minutuetatik, saskiratze eta puntu ugari lortu zituzten etxekoek. Deustukoek ere lan fina egin zuten, kontuan hartuz, aurten igo direla maila honetara. Josu Larreategi MUko entrenatzaileak adierazi zuenez "nahiz eta aurten igo, ez zaie nabaritzen, oso ondo jokatzen dute eta gauzak zail jartzen badakite. Ez dute beldurrik eta jokalari gazte eta indartsuz osatutako taldea da".

Mondragon Unibertsitateko jokalarien arerio zuzena da Deustu, izan ere, partidu honen aurretik, MU bigarren postuan kokatzen zen sailkapen nagusian eta Deustu aldiz, hirugarrenean bi puntuko desberdintasunarekin.

Partiduaren agindua arrasatearren esku egon zen momentu oro, oso fin aritu ziren lanean eta horregatik oso pozik azaldu zen MUko entrenatzaile Josu Larreategi: "oso fin aritu gara, oso pozik nago, Gabonetatik bueltan izan dugun lehen partidua izan da eta Gabonetan egindako lanaren emaitza, beraz, oso gustura nago taldeak egindakoarekin, jokalarien konpromisoa oso handia izan da" adierazi zuen.


MU-Deustu partiduko une bat. | SORIANO

Lehen zatian arazo batzuk ere izan zituztela aitortu zuen Josuk: "jakin badakigu, Deustukoak oso onak direla erreboteetan eta partidu osoan zehar" min handia egin zieten atal horretan, baina hala ere "garaipen garrantzitsua lortu" zutela aitortu zuen entrenatzaileak.

Partidua esan bezala, etxekoen esku egon zen, eurek erritmoa jarri eta jokaldi polit asko ikusteko aukera luzatu zieten Iturripera gerturatutako guztiei.

Ia partidu guztian, alde handia izan zen markagailuan, beti izan ziren etxekoak, gutxienez, 15 puntu goitik, tarteka ere, 19 edo 20 puntu aurretik. Amaitu ere hala egin zen partidua, 21 puntuko aldearekin (79-58). Etxekoak kontraerasoan fin ibili ziren, baloia lapurtu ostean jokaldiak borobiltzen aritu baitziren. Hiruko ederrak eta saskiratze interesgarriak ere izan ziren bi taldeen partetik, izan ere, bai bizkaitarrek zein arrasatearrek, hiruko ikusgarriak saskiratu zituzten behin baino gehiagotan. Partidu polita eta oso entretenigarria beraz. Indartsua eta azkarra ere izan zen, ez etxekoek ezta bisitariek ere, ez zutelako beldurrik izan eta falta nahikotxo izan baziren ere, partidua ez zen askotan geratuta egon.

Jaurtiketa libreei dagokionez, nahiko fin aritu ziren bi taldeetako jokalariak.

**Hurrengo partidua Tolosan**

Hurrengo norgehiagoka Tolosa inguruan izango da eta partidu garrantzitsua izango da sailkapenean dauden tirabira horiekin amaitu ahal izateko. Josu Larreategi entrenatzaileak adierazi bezala, "partidu garrantzitsua da guretzat sailkapenean berdinduta baikaude".

Beraz, aste honetan ere zaleek izango dute partidu bikainaz disfrutatzeko aukera eta jokalariek gogor egin beharko dute lan aste barruan datorren norgehiagoka garrantzitsura ahalik eta motibatuen eta indartsuen heltzeko.


J. ARANTZABAL

ESKUBALOIA

## Defentsan akats asko eta galdu

Defentsan akats asko egin zituzten Aloñako jokalariek eta hor joan zitzaien partidua, izan ere, Idurre Elortzak adierazi bezala "partidu osoan zehar akats berdina egin dugu, defentsan huts egin dugu, hori zuzendu beharra daukagu". Amorruz bukatu zuten jokalariek, euren esku izan baitzuten garaipena, "posible izan zitekeela jakin bagenekigun" baina ezin izan zuten garaipena lortu. Azkenean 21-23.

SASKIBALOIA

## Natra-Oñatik ezin izan zuen garaipena lortu zapatuan

### 13 puntuko aldearekin galdu zuten etxekoek Berrio-Otxoa talde bizkaitarraren aurka (56-69)

**A.E** | OÑATI

Natra Oñatik ezin izan zuen ezer egin talde bizkaitarraren aurka. Zapatuan izan zen partidua Zubikoan eta nahiz eta etxeko taldea saiatu zen, ezin izan zuen garaipena lortu Hotel Gran Bilbao Berrio- Otxoaren aurka. Azkenean, 56-69 galdu zuten etxekoek.

Gabonetatik bueltan izan duten lehen partidua izan zen zapatukoa eta antza atseden egunek ez diote onik egin taldeari, izan ere, oporretara joan aurretik, partiduak irabazi eta irabazi aritu ziren Oñatiko taldeko kideak. Hala ere, laugarren postuan kokatzen dira sailkapen nagusian zapatuko aurkariaren atzetik.

**Partiduaren nondik norakoak**

Iñigo Zabaleta jokalari oñatiarrak adierazi bezala, "hasiera hasieratik nahiko flojo sartu ginen partidura, saiakera asko egin genituen, baina ezin, ez genuen asmatzen". Kanpoko tiro asko huts egin zituzten, hirukoak bota baina ezin izaten zuten jokaldia borobildu. Partidu guztian zehar atzetik joan ziren etxekoak eta nahiz eta nohizbait 6 puntuko aldea izatera iritsi, beti bizkaitarrak hamar puntuko aldearekin garaile izaten ziren. Azkenean, 13 puntuko aldearekin, etxekoek partidu "kaskarra" galdu zuten.

Hurrengo norgehiagoka, domekan izango da Galdakaon eta Iñigo Zabaleta Natra-Oñatiko jokalariak esan bezala, "irabaztera aterako gara, asteburuko partida kaskarraren ostean, garaipenaren bila joko dugu". Domekan beraz, hilak 19, Ibaizabalen aurka jokatuko dute oñatiarrek 12:00etan hasita.


Natra Oñatik zapatuan jokatutako partidua. | SORIANO

SASKIBALOIA

# Gipuzkoa eta Bizkaia onenak Euskadiko kimu txapelketan

Lurraldeen arteko lehia hartu du Arrasateko Iturripe kiroldegiak egubakoitzetik domekara

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Azken asteak entrenatzen eman ostean, egiaren ordua izan da asteburuan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 11-12 urteko neska-mutilak nor baino nor aritu dira Euskadiko Txapelketan; BKE eta Ointxe!-ko mutil bana eta azken horretako hiru neska, tartean. Zenbait momentutan, nerbioek ez diete utzi eman zezaketen guztia ematen, baina txukun aritu dira, orokorrean; mutiletan, Gipuzkoa izan da garaile; eta nesketan, Bizkaia. Talde batean zein bestean baziren besteekiko nabarmentzen ziren jokalari batzuk eta, horrekin batera, altuerak ere laguntzen du saskibaloian, noski. Giroa, oso ona; eta esperientzia, ahaztezina.



Gipuzkoako mutilak garaipena ospatzen, kopa eta guzti. | JOSETXO ARANTZABAL


Arabako eta Gipuzkoako neskak lehia bizian. | J.A.


Nesketan, agerian geratu zen bizkaitarren nagusitasuna. | J.A.


Bizkaiko nesketako batzuk taldekideak animatzen, aulkitik . | J.A.



**GORKA ZURUTUZA**
OINTXE!-KO KOORDINATZAILEA

"Balorazioa ezin positiboagoa da: neska-mutikoek eta guk geuk ere ondo pasa dugu, Iturripe beteta egon da eta giro aparta. Emaitza gutxienekoa da azkenean".



**SAIOA, NAHIA ETA HAIZEA**
ARRASATE

"Bizkaiarekin genuen beldur gehien, eta eurak izan dira garaile azkenean. Oso altuak dira eta maneiu gehiago dute eskuekin. Baina guk ere baditugu gure armak, abiadura eta kontrola, eta pozik geratu gara egindakoarekin. Txapelketa etxean jokatu da, gainera, eta berezia izan da guretzat".



**ENEKO MUNARRIZ ETA ENAITZ ERRASTI**
BERGARA ETA ARRASATE

"Onenak izan gara mutiletan eta oso gustura gaude. Lan ona egin dugu defentsan eta, gainera, disfrutatu egin dugu, bigarren partiduan batez ere. Lagunak ere etorri dira animatzera eta horrek ere laguntzen du".

FRONTENISA

# Emakumeen frontenis txapelketa Aretxabaletan

J.D. | ARETXABALETA

Aurten lehenengoz, Emakumeen frontenis txapelketa antolatu dute elkarlanean Aretxabaletako Udalak, Loramendi Elkarteak eta UDA Kirol Elkarteak. Urtarrilaren 25ean hasiko da txapelketa eta martxoaren 8ra arte Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan jokatuko dira norgehiagokak.

**Parte hartzeko deia**

Antolatzaileak pozik daude, dagoeneko hainbat bikotek izena eman dutelako. Hala ere, debagoiendar guztiei zabaldu nahi diete bertan parte hartzeko aukera.

Izena emateko, hiru bide daude: lehena, Aretxabaletako Udalera jotzea; bigarrena, Loramendi Elkartean izena ematea; eta azkena, *emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com* helbidera mezu bat bidaltzea. Izena emateko epea, datorren egubakoitza, hilaren 17a, izango da; eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu txapelketako lehenengo partiduan.

Irabazleek 200 euroko bonoa, trofeoa eta txapela eramango dituzte etxera; bigarren sailkatuek, berriz, 100 euroko bonoa eta trofeoa.

MENDI IRTEERAK

## Mendi eski irteera eta GPS ikastaroa, Pol-Pol taldekoen eskutik

Urtea indartsu hasteko Pol-Pol mendi taldeak, mendi eski irteera antolatu du asteburu-rako. Frantzia aldera joango dira, Piau Engaly ingurura zehazki. Izena emateko azken eguna bihar da. Gainera, GPS ikastaroa eskainiko dute frontoian duten bulegoan hurrengo bi asteetako astelehen, eguazten eta zapatuetan, 19:00etan.

IGERIKETA

# Ehun neska-mutikotik gora Bergarako igerilekuan

Bergarako, Oñatiko, Legazpiko, Eibarko, Azkoitiko eta Azpeitiko ehun igerilaritik gora batu ziren zapatuan Bergarako Agorrosingo igerilekuan. Bertan, errendimendu eta parte-hartze ligako hirugarren jardunaldia jokatu zuten. Crawl, bizkarrekoa, tximeleta eta bular-igeriketa estilotan lehiatu ziren neska-mutikoak.


IMANOL SORIANO


I.S.

MENDI LASTERKETAK

# Otsailaren 16an egingo da Antzuolako 8 Miliak probaren bigarren edizioa

▶ Iaz lehen aldiz egindako lasterketak izandako arrakasta ikusirik, bigarren edizioa ospatuko da aurten

▶ Martxan da XIII. Zegama–Aizkorri mendi maratoia ere; etzi zabalduko da izena emateko epea

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Iaz antolatu zuten lehen aldiz Antzuolako 8 Miliak proba eta, izandako arrakasta ikusirik, aurten bigarren edizioa jokatuko da. Aldaketa batzuk izango ditu, baina helburuak berberak izango dira; kirola bultzatzea eta guztientzako jai herrikoi bat gauzatzea, hain zuzen ere. Aurreko urtean bailarako Antxintxika Triatloi Taldeak eta Antzuolako Udalak izan zuten antolakuntzaren ardura. Udaletik biziki eskertu diote Antxintxikari lehengo urteko edizioan eskainitako laguntza, baina aurten, aurreko urteko esperientziaz baliatuz, herriko Arrola Mendi Elkarteak, A8M antolakuntza taldeak eta Udalak antolatuko dute ekitaldia.


Lasterkari batzuk, iazko probako punturik altuenetik igarotzen; zurituta zegoen orduan. | GOIENA

Antolakuntzatik azpimarratu dute saiakera bat egin dutela gaur egungo egoera ekonomikoarekin bat datorren lasterketa bat antolatzeko eta, besteak beste, erabaki dute izen-ematea bost eurotan jartzea. Sari eta zozketak apalagoak izango dira, baina ekintza guztiak mantenduko dituzte: "Jai polita eta herrikoia izango da". Herritarren parte -hartzea bultzatzeko, Udalak doako 10 izen-emate zozketatu asmo ditu, gainera. Atzo zabaldu zuten izen-ematea *kirolprobak.com* webgunean.

Lasterketa prestatzeko nahiz egunean bertan laguntzeko boluntarioak behar dira: "Denetariko lanak egongo dira, baina ez dira konplikatuak izango (bidea markatu, kruzeak egin, hornidurietan egon...) eta korrika egiteko asmorik ez baduzue esker onez hartuko dugu zuen bultzadatxoa". Minimotoen lasterketa ere egingo da.

**Maiatzean, Zegama–Aizkorri**

Maiatzean, berriz, beste urte batez debagoiendar asko eta asko batuko dituen beste lasterketa bat jokatuko da: Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Hamahirugarren edizioa izango da aurtengoa eta pasa den eguenean aurkeztu zuen Foru Aldundiko Kirol zuzendari Asier Sarriegik. Lasterketa erdi mailako mendietan izango da, Aratz eta Aizkorri mendilerroetan zehar. Bertan, EAEko gailur garaienetariko batzuk igaroko dituzte parte-hartzaileek: Aratz, Aizkorri, Aketegi eta Atxuri, besteak beste.

Maiatzaren 25ean ospatuko da froga; 09:00etan izango da irteera ordua. 42,195 kilometroko distantzia izango du eta 5.472 metroko gora-behera metatua. 3 ordu, 54minutu eta 18 segundotan dago errekorra gizonezkoetan (Rob Jebb) eta 4 ordu, 38 minutu eta 19 segundotan emakumezkoetan (Emanuela Brizio).

Sarriegik adierazi zuenez, Zegama Aizkorri munduko probarik garrantzitsuenetako bat da, kirol ekitaldi bat eta gehiago baita: "Gure lurraldearen sustapen turistikoa da eta horrek, zalantzarik gabe, oso interesgarriak diren bestelako eragin batzuk dauzka, kirolaz haratago, kulturan eta ostalaritzan, esaterako". 500 pertsonak parte hartu ahal izango dute gehienez. Eguaztenetik otsailaren 7ra arte eman ahalko da izena *www.kirolprobak.com* webgunean. Otsailaren 28an egingo da zozketa, Zegaman.

## FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Zarautz | 2-0 |
| Beti Gazte-Aloña Mendi | 1-1 |
| Aurrera-Bergara | 0-0 |
| Antzuola-Tolosa | 1-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Berio | 35 | 17 |
| 2 | Anaitasuna | 35 | 17 |
| 3 | Tolosa | 31 | 17 |
| 4 | Aurrera | 28 | 17 |
| 5 | Ostadar | 25 | 17 |
| 6 | Real Union | 24 | 17 |
| 7 | **Aloña Mendi** | 24 | 17 |
| 8 | Beti Gazte | 23 | 17 |
| 9 | **Antzuola** | 23 | 17 |
| 10 | Hondarribia | 22 | 17 |
| 11 | **Bergara** | 20 | 17 |
| 12 | Hernani | 20 | 17 |
| 13 | Vasconia | 20 | 17 |
| 14 | **Aretxabaleta** | 18 | 17 |
| 15 | Getaria | 17 | 17 |
| 16 | Touring | 17 | 17 |
| 17 | Zarautz | 12 | 17 |
| 18 | Lagun Onak | 10 | 17 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Getaria-Lagun Onak
**Antzuola**-Anaitasuna
Aurrera-Tolosa
Vasconia-**Bergara**
Berio-Hondarribia
Beti Gazte-Hernani
Real Union-**Aloña Mendi**
**Aretxabaleta**-Touring
Zarautz-Ostadari

**EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Deportivo Alaves | 0-0 |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Zumaiako-Mondra | 0-0 |

**1. ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta B | Atsedena |
| Arizmendi-Eibartarrak | 3-1 |
| Urki-Bergara | 3-2 |

**OHOREZKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Mondra -Zumaiako | 1-0 |
| Tolosa-Aloña Mendi | 7-0 |
| Zarautz-Bergara | 1-1 |

**GAZTEEN 1. MAILA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi - Burumendi | 4-3 |
| Soraluze-Urki | 0-3 |
| Bergara-Segura Goierri | 1-0 |
| Urki B-Arizmendi | 5-0 |
| Aretxabaleta-Beasain | 2-1 |

**OHOREZKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Bergara-Tolosa | 1-4 |
| Aretxabaleta-Lagun Onak | 0-4 |
| Zumaiako-Arrasate | 1-0 |

**EMAKUMEAK 2. MAILA**

| | |
|---|---|
| Añorga-Mondra | 10 -0 |

**EMAKUMEAK GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Tolosa-Bergara | 6-0 |
| Aloña Mendi-Zestoa | 0-1 |

**EMAKUMEAK, 1. KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Bergara-Arizmendi | 2-1 |
| Anaitasuna-Aloña Mendi | 0-0 |
| Mondra | Atsedena |

## ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Ereintza-Soraluze BKE | 25-21 |

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Eibar | 35-29 |

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEAK**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Aialde | 21-23 |

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Urnieta-Aloña Mendi | 19-24 |

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Bergara | 22-21 |

## ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Scalibur-Eskoriatza | 1-1 |

## SASKIBALOIA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

| | |
|---|---|
| MU-Deustu | 79-58 |

**SENIOR GIZONAK, 2. MAILA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Soraluze BKE | 60-64 |
| Dolphins-MU A | 52-57 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Astigarraga | 34-59 |

**GAZTEAK ERRENDIMENDUA**

| | |
|---|---|
| MU A-Saskiaxular | 38-61 |

**KADETEAK ERRENDIMENDUA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Goierribus | 61-73 |

**KADETEAK ERRENDI. EMAK**

| | |
|---|---|
| Askatuak-Soraluce BKE | 18-29 |

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

ZIKLISMOA

Jon Odriozola | Gipuzkoa txirrindulari taldeko kirol zuzendaria

# "Amateur mailan ziklisten prestakuntza da inportanteena; horren atzetik datoz emaitzak"

- Gipuzkoa taldeak 15 euskal txirrindulari izango ditu amateur mailari aurre egiteko
- 2015erako profesional mailako taldea osatu gurako luke zuzendari oñatiarrak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jon Odriozola (Oñati, 1970) amateur mailako Gipuzkoa txirrindulari taldeko kirol zuzendaria da. Hirugarren urtez egingo du lana oinarritzat Gipuzkoako ziklistak dituen taldearekin. 15ekin, hain zuzen. Batez ere, prestakuntzan oinarrituko du jarduna, baina errepideko lana ahaztu barik. 2015erako profesional mailako taldea sortzea da Odriozolaren helburu nagusia.

**Eki-Gipuzkoa izatetik Gipuzkoa izatera pasako den amateur mailako taldea izango da. Zer dela eta aldaketa?**

Babesletza kontua da. Izena bakarrik aldatzen da. Taldearen oinarria ez da aldatzen.

**Hortaz, gipuzkoarrez osatutako txirrindulari taldea izaten jarraituko du?**

Bai. 15 txirrindulari ditugu: 13 gipuzkoarrak, bat nafarra eta bestea arabarra. Gipuzkoan sortutako taldea da eta Gipuzkoan lan egingo duena. Duela bi urte hasitako bidetik jarraituko dugu. Sendo lan eginda.

**Gipuzkoa taldeko kirol zuzendari zaitugu. Zeintzuk dira zure lanak?**

Betebehar asko ditut. Amateur mailako talde batek lan handia eskatzen du. Gu geu saiatzen gara txirrindulariei ahalik eta prestakuntza zabalena eta handiena ematen. Baliabideak eman behar dizkiegu, amateur mailatik haratago, euren bidea egiteko aukera izan dezaten.

Aurten, Tolosako Usabal kiroldegian lan egingo dugu mutikoekin. Xabier Muriel izango da prestatzaile fisikoa eta harekin zehaztuko dugu egutegia. Txirrindulari bakoitzari jarraipen zehatza egingo diogu: hitzaldiak, elikadura aholkuak, psikologoarekin lana, bizikleta gaineko posturak, aerodinamika...

Bestalde, txirrindulari nintzela Italian egindako urteetan ikasitako eta erabilitako testak ere egingo dizkiet, ziklista bakoitzak ze errendimendu eman duen baloratzeko.

Aurten, berrikuntza gisa, Australiako testa erabiliko dugu. Xabier Carbayeda hasiko da gurekin lanean.

**Zertan datza test hori?**

Aspaldi dihardu lanean Carbayedak test horrekin. Arrabolan (rodilloa) askotariko probak egiten dira, txirrindulari bakoitzaren muskulatura nolakoa den ikusteko. Test horrekin jakingo dugu norberaren muskulaturan zein atalek duen errendimendu txikiena. Hori horrela, alderdi hori indartzeko lan egingo dugu. Ziklistaren gorputza formatzeko beste bide bat da.

Lan hori egingo du Xabier Carbayedak. Era berean, Australiako Federazioarekin elkarlana hasi gurako genuke.

**Errepideko lana bai, baina berebiziko garrantzia ematen diozue prestakuntzari. Ezinbestekoa da?**

Amateur mailan bai. Esango nuke hori dela inportanteena. Noski, errepidean lortutako emaitzak inportanteak dira hazteko eta esperientzia hartzeko. Kontuan hartuta Gipuzkoako talde bat dela, guk asko baloratzen ditugu lortutako garaipenak eta bestelako emaitzak. Erreferentzia gara askorendako, eta hori oso inportantea da, baina formazio barik ez dago ezer.

Formazio egoki baten atzetik datoz emaitzak.

**Etxeko txirrindulariekin, etxeko taldean lan egitea. Zer da hori zuretzat?**

Amets bat bete ahal izatea. Behetik gora datorren proiektu bat da. Harrobiarekin lanean hasi, profesional mailako talde bat izatera heltzeko. Amateur maila profesionaletara salto egiteko azken urratsa da. Horra heldu gurako nuke.

**Aberasgarria da orduan?**

Zalantza barik, bai. UCI ProTour eta Continental mailetan zuzendari lanak egin izan ditut, baina amateur mailarekin geratzen naiz. Beste poztasun bat ematen du. Lan handia eskatzen du eta egindako lanak ez dauka oihartzun handirik hedabideetan, baina asko betetzen nau. Oso gustura nago. Gipuzkoako talde erreferentea gara, eta harro nago orain arte egindako lanarekin.

**Etxeko taldea izateak badauka gabeziarik?**

Futbol taldeen antzera, mugak zabalduz gero, maila handiko txirrindulariak lortzeko aukera izango genuke. Baina hau da gure oinarria eta helburua: etxeko txirrindulariak. Amateur mailan diharduten ziklistekin lan egiten jarraituko dugu.

Gure oinarriak lehenetsiko ditugu.

**Hurrengo urratsa profesional maila da, orduan.**

Horrela da, eta hori da gure helburu nagusia. Profesional mailan euskal talde bat izateko, amateur mailan landutako taldea izan behar da aurretik. Hori lortu dugu. Aurtengoa hirugarren denboraldia izango da maila horretan.



Jon Odriozola, etxeko lorategian. | MIREIA BIKUÑA

**"Xabier Carbayeda hasiko da gurekin lanean, test batzuk egiteko"**

**"Espainiako Kopa izango da gure ardatz nagusia aurten ere"**

**"Amateurrekin lan egitea aberasgarria da, oihartzun handirik ez badu ere"**

**"Izen propioen gainetik, talde-lana azpimarratuko nuke"**

Denbora luzea daramat helburu hori lortzeko lanean, eta ea, bada, 2015ean lortzen dugun. Azken ahalegina egingo dugu.

**Bitan kale egin dizu proiektuak. Hirugarrenean bai?**

Hori da helburua, ametsa eta gogoa. Ez da erraza izango, baina euskal txirrindularitzak halako proiektu baten beharra dauka. Hori lortzeko dihardugu lanean, eta 2015ean izan behar du.

Aurreko bietan proiektuak huts egin ostean, gogoa izan dut aurrera egiteko, baina 2015ean lortzen ez badut... Akaso, beste proiektu batzuei heltzeko ordua izango da.

Amateur mailako taldearekin lan egiteko, beste proiektu batzuk alboratu behar izan ditut, eta horrek guztiorrek merezi izango du azken helburua betetzen badugu: profesional mailako txirrindulari taldea.

**Gipuzkoa taldea lehiatzeko gai dela erakustea ezinbestekoa izango da helburua lortzeko bidean.**

Bai. Emaitza onak inportanteak dira. Aurten ere Espainiako Kopa izango dugu oinarri. 2012an taldekako sailkapena irabazi genuen eta iaz bigarren geratu ginen, Caja Ruralen atzetik.

Hor erakutsi behar dugu euskal txirrindulariekin bakarrik talde erreferentea izateko gai garela.

**15 txirrindulari dituzue, gehienak gipuzkoarrak eta banaka batzuk debagoiendarrak. Bateren bat aipatuko zenuke besteen gainetik?**

Taldea azpimarratuko nuke. Egia da lasterketaren arabera txirrindulari bat edo beste bat izaten dela protagonista. Talde-lana eta taldeko giroa dira inportanteak, eta txirrindulariek badakite.

Dena den, ukaezina da badaudela txirrindulari batzuk etorkizun luzea izango dutenak: Jon Ander Intxausti, Urtzi Bagües, Iñaki Davoz, Alain Gonzalez, Julen Mitxelena...

**Pistan aditua den Asier Maeztu ere taldekide duzue. Zein da haren lana?**

Gurekin prestatzen du denboraldia, eta lasterketa batzuetan ere parte hartzen du gurekin. Baina haren lana gainerako ziklistei laguntzea da. Esperientzia handiko txirrindularia da, erlojuaren kontra eta pistan ondo dabilena, Kirolgiren beka jasotzen duena eta proba askotan parte hartu izan duena.

Gurekin batera probetan parte hartzen duenean, taldearendako egiten du lan: ihesaldietan, esprintak prestatzen...

# Dietaren gantz portzentajea lotuta dago sabelaldeko gizentasunarekin

Nerabeak arrisku–taldea dira; EHUk ikerketa egin du gaiaren inguruan

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Gehiegizko pisuaren eta obesitatearen presentzia nabarmen handitu da azken urteotan nerabeen artean, eta, horren ondorioz, baita haiekin lotutako arazoak ere. EHUren azterketa baten arabera, dietan gantz-portzentaje handiegia hartzeak sabelaldean gantz gehiago metatzea eragiten du. Berdin da kontsumitutako kaloria kopurua eta egindako jarduera fisikoa zein den. "Orain arte uste zen ariketa asko egiteak nolabait konpentsatu egiten zuela dieta desorekatua. Azterketa horren bidez frogatu dugu ez dela horrela", azaldu du EHUko ikertzaile Idoia Labaienek.

Adituek diotenez, sabelaldean gertatzen den gantz-metaketa da arriskutsuena osasunerako, arazo kardiobaskularrak, diabetes mellitusa, hipertentsio arteriala, hiperkolesterolemia eta abar izateko arriskua handitzen baitu.

Ez zegoen aurretiazko lanik dietaren osaera eta sabelaldean gantz gehiegi izatea elkarrekin erlazionatzen zuenik nerabezaroa bezalako garapen-aldi kritikoan. "Arrisku-taldea dira sasoi horretan beren erabakiak hartzen hasten direlako jan nahi duten eta jan nahi ez dutenari buruz, eta, era berean, askok kirola egiteari uzten diotelako", esan du Labaienek.

## Gantza, faktore garrantzitsua

Finkatutako helburuak ikertzeko, 224 nerabez osaturiko azpi-lagin bat aztertu dute EHUko ikerlariek. Zehaztasunez neurtu dute gazteen sabelaldeko gantza X izpien bidezko absortziometria dualaz baliatuta. Gazteen ohitura dietetikoak eta jarduera fisikoa ere aintzat hartu dituzte.

Azterketa horretako emaitzek argi frogatzen dute dietaren gantz-portzentajea estuki lotuta dagoela sabelaldeko gizentasuna handitzearekin, eta, gainera, erlazio hori ez dagoela nerabeek egiten duten jarduera fisikoaren mailaren mende. Kontuan hartzeko ondorioa, zalantzarik gabe.



Nerabeak. | ED YOURDON

# Hazkuntza gutxietsita dago eta egun ez dago benetako erantzukidetasunik, edo oso-oso minoritarioa da

Ez:Berdin zentroak eta On:Giz elkarteak antolatuta, hazkuntzari eta erantzukidetzari buruzko jarduera gidatu zuen Iñaki Kasaresek Gasteizen

L.Z. | ARRASATE

Abenduaren 10ean egin zuten hazkuntzari eta erantzukidetzari buruzko jarduera gaiaren inguruan auto-gogoeta bultzatu eta partekatzeko helburuarekin.

Hamar lagunek hartu zuten parte: sei gizonek eta lau emakumek. Talde txikia, Kasaresek *Gizonezko* izeneko bere blogean adierazi duenez, baina gogoeta interesgarri ugari utzi zituena. Kasaresek blogean egindako laburpena ekarri dugu asteon *Guraso.com* atarira.


Haur txikia aitarekin parkean. | EDOUARDMINC

## Zailtasunak eta oztopoak

"Hazkuntzan, guraso eta, oro har, haurren tutoreek izaten ditugun zailtasunei begiratu genien, nork bere bizipenetatik abiatuta", adierazi du Kasaresek. "Ikusi genuen zailtasunak handiak direla eta gurasoen bizimodua askotan gogor samarra dela".

Ondorioetako bat izan zen hazkuntza egokia garatzeko oztopo estrukturalak eta pertsonalak daudela. Aipatutakoen artean, egungo sistema sozioekonomikoan hazkuntza gutxietsita dagoela nabarmendu zen, baita jarduera pribatutzat hartzeak ez diola mesederik egiten ere.

Zailtasun pertsonalei dagokienez, hazkuntza jarduera estresagarria dela azpimarratu zuten bertaratutakoek: erabakiak etengabe hartu beharra, emozioak pil-pilean edukitzea... Egungo soldatapeko lan munduaren antolaketaren eta hazkuntzaren arteko talka ere aipatu zen, eta horren ondorioz lehentasunak erabaki beharra izatea —nork bere egoeraren arabera.

Laguntza instituzionalak nahikoak ez direla argi eta garbi geratu zen. Hala, ondorioetako bat izan zen nork bere inguruan eraiki behar duela laguntza-sarea: lagunekin, senideekin, beste gurasoekin, etab. Azken finean, mikrokomunitateen beharra dagoela.

## Prestakuntza eskasa

Gurasoek prestakuntza eskasa dutela ere aipatu zen Gasteizko jardunaldian. "Egungo egoerari egokituta ez dauden iraganeko erreferentziek ez dute balio", adierazi zuten. Gizonezkoek bereziki azpimarratutakoak izan ziren erreferentzia eza, ingurukoen presioa —esaterako, lanaldia murrizteko— eta gaiarekin lotuta emakumezkoekin sortzen diren gatazkak emakume batzuei gogor egiten baitzaie hazkuntzaren ardura gizonen esku uztea.

## Erantzukidetasuna

"Egun ez dago benetako erantzukidetasunik, edo oso-oso minoritarioa da, andrazkoek jarraitzen baitute izaten zaintza eta hazkuntza-lanez arduratzen direnak, eta alde handiz, gainera". Antolakuntza sozioekonomikoak zaildu egiten du erantzukidetza, eta gizonei begirako politiken beharra azpimarratu zuten. Baita nork bere inguruko gizonekin egin beharreko lana ere.

# Haurtzaroa eta gozokiak: debekatu baino, hobe da kontsumoa dosifikatzea

Komeni da haur txikiek egun eta ospakizun bereziekin lotzea gozokien kontsumoa

L.Z. | ARRASATE

Maria Jose Roldan psikologoak argi dauka: gozokiak kaltegarriak dira. *Entrepadres* atarian hainbat aholku eman ditu seme-alaben gozoki kontsumoaren inguruan kezka duten gurasoendako. "Kaloria hutsalak ekartzen dituzte, gosea kentzen dute, ez dute organismoa elikatzen, gizendu egiten dute eta txantxarrak sortzen dituzte".

Hori esanda, debekurik ez ezartzeko gomendatzen du: "Debekuek ez dute funtzionatzen. Umeari sortuko zaizkio gozokiak kontsumitzeko aukerak —lagunekin, ospakizunetan...—, eta debekuaren ondorioz abagune horietan neurriz kanpo kontsumitzera hel daiteke".

## Dosifikatu kontsumoa

Gozoki kontsumoa neurtu egin behar da, dosifikatu. Lehenengo eta behin, komeni da kontsumoa atzeratzea. "Umeak ez baditu gozokiak ezagutzen ez ditu faltan igarriko", dio Roldanek. "Behin ezagutzen dituenean komeni dena da gozokien kontsumoa egun bereziekin lotzea: domekak, ospakizun bereziak...". Hiru gozoki aldiro neurri polita da goserik ez kentzeko eta urdaila ez kaltetzeko. Txantxarrei aurre egiteko komeni da umeak gozokiak ez hozkatzea, baizik eta txupatzea. Gehiago iraungo dute eta arrasto txikiagoa utziko dute haginetan. Eta komeni da ondoren hortzak ondo garbitzea.


Gozokiak. | EMEPETRESES

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

# KULTURA



Keu Agirretxea & Fignuh Experience kontzertua eskaintzen Oñatiko gaztelekuan, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO



Gari, bakarka, kantuan. | I.S.

# Nostalgia eta molde berriak nahastuta, Gariren eskutik

▸ Keu Agirretxea & Fignuh Experience eta Gari kontzertuan, Oñatin

▸ Gaztelekua bete egin zen eta publikoa goxotasunean bero egon zen

**IRATI GOITIA** | OÑATI

Saxofoi, baxu, bateria eta gitarraren doinu leunetan, eta Keu Agirretxearen ahots goxoan gustura izan ziren egubakoitz gauean Oñatiko gaztelekura joandakoak. *Behe presioaren erdigunean* azken lana aurkeztu zuen Keu Agirretxeak Fignuh Experience-ez batera (Iñaki Jaio baterian, Mikel Arakistain baxuan eta Isuski Ramon saxofoian). Doinu nahasiak eskaini zituen laukoteak eta samurtasunean goxo izan ziren entzuleak. Amaitzeko, doinu intergalaktikoak, *Indar galaktikoa* abestiarekin. Orduko beteta zeuden gaztelekuko ahulki guztiak, 110 lagun, gero zetorrenaren zain.

## Nostalgia

Garik kontzertua ohituta ez dagoen ordutegian zela esanez hasi zuen emanaldia. "Niretzat nahiko berandu da dagoeneko. Ordutegi hauek neurritik kanpo daude niretzat. Kafetxo bat hartu dut badaezpada". Gari, baina, ez zegoen ez orduz kanpo ezta tokiz kanpo ere. Gustura izan zuen publikoa. Nostalgiaz ere irten zen taula gainera eta publikoari "txapa" sartzeko lizentzia eskatu zion, nolabait etxean sentitzen zela esanez. Hala, behin baino gehiagotan ekarri zituen ahora gaztetan Oñatira etortzen zeneko kontuak. Gaineratu zuen esperientzia pribatua eta berezia bizitzea espero zuela publikoaz. Hala izan zen. Jotzen hasi eta ez zen bozgorailuetatik entzuten. Teknikariari jakinarazi zion, baina publikotik benetan pribatua zela esan zioten. "Bai, oso pribatua!" erantzun zuen berak.

Bakarka aurkezpena egin ostean, Migel Moyano gitarra eta Albaro Alonso bateria igo ziren taula gainera. Hasierako goxotasunaren ostean, rock & roll-aren ordua. Gogor ekin zion hirukoteak lehen abestiaz. *Ez da amaiera* azken diskoko kantak eskaini zituzten. Garai bateko Gariren emanaldietatik aldentzen da egun egiten duena, agian publikoan bazen nostalgikorik ere.

## Jostari klasikoez

Diskoa aurkeztuta, jolaserako unea iritsi zen. Gari bakarrik gelditu zen berriro eszenatokian eta publikoa kantuan jarri zuen. *Zaharra zara Bilbo* eta *Amets* batera kantatu zituzten. Fundamentu gutxi ikusi zuen Garik eta entzuleak zirikatzen ibili zen.

Amaitzeko hirukoak beste bi kanta eskaini zituen. Noski, publikoak beste bat eskatu zuen eta orduan etorri ziren klasikoak. Besteak beste: *564*, *Zoratzen* eta *Esperantzara kondenatua*. Baita Xabin Egaña oñatiarrak idatzitako *Bidegurutzean* ere. Guztiak ere oso bereganatuta kantatu zituen Garik. Zapore ezberdin nahiz goxoa utzi zuen.

**GARI** | MUSIKARIA

## "Nire emanaldiak Tourreko gora-behera askoko grafikoak bezalakoak dira"

Kontzertua hasi aurretik Garirekin hitz egiteko aukera izan genuen eta egun zertan dabilen kontatu zigun.

**Zer da gaur ikusleei eskainiko diezuna?**

Esan beharra dago, nire herritik, Legazpitik, oso gertu dagoen herri batera natorrela. Hainbat urtetan hemen ibilitakoa naiz; txikitan eta gaztetan, batez ere. Beraz, berezia izango da. Gaurko honetan martxoan kaleratu genuen *Ez da amaiera* diskoa aurkeztuko dugu. Hirukote formatoan igoko gara taula gainera. Nik uste dut errepertorio honek errodajea eginik duenez, gai izango garela gaur hemen, Oñatin, ikuskizun nahiko borobila eta itxia aurkezteko.

**Taula gainean ez zarela bakarrik egongo esan duzu. Gainera, kolaborazio asko izan dituzu disko honetako hitzak idazten...**

Normalean, disko batean saiatzen naiz hainbat lagun eta gustuko ditudan musikari edo idazleak gonbidatzen. Kasu honetan ere, nire proiektu orokor honetan, hainbat lagun eta ezezagunek hartu dute parte. Baina zuzenean, azkenaldian batez ere, saiatzen ari naiz horrelako erakustaldi txiki bat egiten publikoren aurrean. Tourrean Alpetako etapak egiten dituztenean grafikotan izugarrizko gora-beherak ikusten dira. Bada, horrelako grafiko bat eskaintzen dut azkeneko sasoi hauetan zuzenekoetan eta hori da gaur ikusiko duguna.

**Saio didaktikoak ere egiten dituzu azkenaldian.**

Bai, gero eta interes gehiago dut txikiekin mundu berriak eraikitzeko. Azken batean, erritmoak eta melodiak eurekin oso gertuko giroan lantzea. Nolabait, Afrikatik ekarritako esperientziarekin du lotura edo jarraipena. Hein batean, umeei musika zuzenean eskaintzea da. Nire kasuan, rock & roll-a, hori delako nire hizkuntza musikala. Hizkuntz hori eurengana hurbilbu eta eurekin jolastu, elkarri eragin. Azkenengo bolada honetan jasotzen ari garen emaitza oso gustukoa izaten ari da, oso gustura sentitzen gara eurekin mundu hori lantzen. Horrek berpizten ditu guregan indar eta ilusio berriak.

**Azken diskoak dagoeneko errodaje bat egina duela aipatu duzu. Izenburuak *Ez da amaiera* dio. Saio didaktikoez gain, baduzu besterik eskuartean?**

Badaude hainbat proiektu berri, baina bere ibilbidea behar dute eta orain ez naiz ezer aurreratzeko gai. Uste dut gaur aukera izango dugula ondo pasatzeko eta une xelebre bat bizitzeko. Guztion artean disfrutatzeko.

# Negargura eta barrea eskutik, Zabalotegin

▸ 'Emaztegaiaren semea' antzezlana eskaini zuten

▸ Oso harrera ona izan zuten zapatuko bi emanaldiek

**MIRIAN BITERI** | BERGARA

Pozik irten ziren zapatuan *Emaztegaiaren semea* izeneko antzezlana ikustera Bergarako Zabalotegi aretora joan zirenak. Bi emanaldi eskaini zituzten, eta aretoa guztiz bete ez bazen ere, oso harrera ona izan zuten biek.

Fernando Castets eta Juan J. Campanella gidoilarien *El hijo de la Novia* filma ospetsuaren antzerki egokitzapena da Zabalotegin ikusitakoa. Belvedere familia-jatetxean gertatzen da guztia. Rafael Belvedere (Asier Hormaza) Nino eta Norma gurasoek zabaldutako jatetxe italiarra aurrera ateratzen saiatzen da, baina ezin, eta hasieran, kate multinazional bati saltzea uko egiten badio ere, azkenean, saldu egingo dio.

**Gurasoen ezkontza**

Bitartean, 41 urtez elkarrekin egon ostean, bere aita (Kandido Uranga) amarekin (Iñake Irastortza) elizatik berriz ezkondu nahi da, eta horretarako, laguntza eskatzen dio semeari. Rafael aztoratuta dabil gertatzen ari den guztiarekin, eta bihotzekoa du. Ospitaletik irtetean, bizitzari buelta ematea erabakitzen du: negozioa saldu, aitari ametsa betetzen lagundu; eta kostata bada ere, Nati (Sara Cozar) neskalaguna bere ondoan behar duela konturatuko da.

Jatetxea saldu bai, baina gurasoen ezkontzarekin oztopoak sortzen dira. Normak alzheimerra dauka, eta hori dela-eta, Apezkikutzak ez die ezkontzeko baimenik ematen. Rafaelek ez du etsiko eta txikitako bere lagun Juan Carlos (Mikel Laskurain) engainatutzen du abade lanak egiteko, eta gurasoek ezer jakin barik, baliotasunik ez duen ezkontza ospatzen dute.

Ikuslea barre algaratik negargurara eraman zuten pertsonaiek; nabarmentzekoa da komedia osoan zehar Mikel Laskurain bergararrak antzeztutako Juan Carlosen umorea; eta baita oroimena galduta duen Norma atsoaren ateraldiak.



**MARISA EZPELETA**
IKUSLEA

"Oso gustuko izan dut. Komedia tristea da, baina Mikel Laskurain bergararrak behar zuen ukitu komikoa ematen jakin du. Oso aktore onak dira guztiak; dena dela, gehien gustatu zaidana Iñake Irastortza izan da".



**MIKEL LASKURAIN**
AKTOREA

"Ikus-entzuleak oso gustura ikusi ditut, eta gu ere horrela ibili gara agertoki gainean. Arratsaldeko saioak oso harrera ona izan du, kontuan hartuta Bergaratik sei autobus irten direla Bilboko manifestaziora".



**MAITE OLABARRIA**
IKUSLEA

"Asko gustatu zait. Aktore guztiak ezin hobeto ibili dira agertokian. Filma ikusita neukan aurretik, eta ederto egin dute, pertsonaiak oso ondo antzeztu dituzte. Izatez oso gai tristea da, baina irribarre ere egin izan dugu".



Nino eta Norma jatetxean, Rafael semeak telefonoz berba egiten duen bitartean . | IMANOL SORIANO



Juan Mari Beltran musikaria atzo Bergaran. | JOSETXO ARANTZABAL

# Euskal musika tradizionalaren ikerlari Juan Mari Beltran gurean izan da

Urteak daramatza familiendako saio didaktikoak eskaintzen; Bergaran egin du azkena

**MIRIAN BITEIR** | BERGARA

Juan Mari Beltran musikari eta musikologoa Bergaran izan zen atzo, domeka, iluntzean, familiei zuzendutako saioa eskaintzen. Musikan ibilbide luzea du donostiarrak: Euskal Herriko musika tresna, doinu eta kantutegi tradizionalean aditua da, eta baita musikaria ere: hamar disko grabatu eta hamaika musikarirekin lan egin du. Irakasle moduan ere ibilitakoa da.

Badira, gainera, hainbat urte kontzertu didaktikoak eskaintzen dituela. Horren harira, honakoa esan digu: "Oso harrera ona duen formatua da. Euskal Herrian zein kanpoan gabiltza; azaroan, esaterako, Belgikan 26 saio eman genituen. Gainera, moldagarria da ikus-entzule kopuru eta edukiari dagokionez".

**Jaiotzetik familian**

Familian musika lantzearen garrantziaz ere egin du berba honakoa aipatuz: "Gero eta gutxiago lantzen bada ere, horrela izan da musikaren historian. Jaiotzean haurrek familian dute musikaren aurreneko hastapenak, sehaska kantuen bitartez".



Zabalotegin egin zuten atzo iluntzean saio didaktikoa. | J.A.

## Ordu eta erdiko bidaia, gozatzeko

Bidaia berezia egin zuten atzo, domeka, Bergarako Zabalotegin batu zirenek. Juan Mari Beltran, Ander Barrenetxea eta Andoitz Antzizarrekin batera, Euskal Herriko eskualde guztietako doinu, kantu, dantza eta musika-tresnak ezagutu zituzten. Ordu eta erdi inguru iraun zuen ibilaldi horretan gaur egun bizirik dirauten zein erabiltzen ez diren soinu-tresnekin disfrutatu zuten parte-hartzaileek.

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

20 euroko 100 erosketa-bonuren zozketen

# IRABAZLEAK

erosketak Debagoienean egitearren



**ARETXABALETA**
Jose Ortiz Gutierrez
Mari Asun Esteban
Loly Mayoral
Mikel Altuna Lopez de Armentia
Esther Etxebarria
Loredi Beitia
Corpus Paul
Loraia Ortiz
Juanita Goñi
Maria Caceres
Mertxe Luelmo
Begoña Urkia

**ARRASATE**
M. Carmen Zabala Navarro
Ana Maria Bengoa Altuna
Luis Usatorre Aranzabal
Irati Olalde Gallastegi
Leire Zuazubiskar Otxandiano
Eva Errasti Arana
Amaya Bañuelos Kortabarria
Africa Marteatxe Etxebarria
Belen Jimenez Martinez
Ana Mari Fernandez Leon
Saioa Gomez Rubio
Arantza Garcia Bolinaga
Rosmery Montaña Parada
Justina Larrea Elorza
Tere Campollo Felix
Miren Garai Garai
Ainhoa Urrutia Almandoz
Andere Errasti Etxebarria
Juanma Vitoria Vallejo
Marisol Torres Parra
Laura Aguilar Alonso
Susana Carrasco Nogales
M. Jesus Lopez Moreiras
Jose Luis Perales Morales
Petra M. Inda Leibar
Ander Arejolaleiba Iria
Iosebe Gomez Aranburu
Ana Isabel Anaut de Miguel
Leire Etxebarria Abarrategi
Marisa Delgado Diez
Mikel Martin Sanz
Ana Isabel Najera Ortigosa
Marijo Bedia Perez
Maite Uribarren Jimenez
Rosarito Zubizarreta Guridi
Amaia Arregi Korta
Karmele Garai Uriarte
Itziar Mondragon Elorza
Nazaret Dominguez Ortega
Maribel Rojas Tomillero

**BERGARA**
Mariaje Alberdi Arizaga
Rosa Iñurrategi Lazpiur
Jose Antonio Cabo Fernandez
Egoitz Markiegi Aranburu
Begoña Payas Ametzua
Juan Cruz Azkarate Arizabaleta
Ixabel Arejolaleiba Aracama
Mertxe Gillegi Larrañaga
Saioa Martinez Martinez
Izaskun Iztueta Arando
Felix Igarza Iñarra
Irati Lazpiur Barankua
Mertxe Elkoroberezibar Odriozola
Margari Borda Remiro
Jose Luis Uribesalgo Gonzalez
Aitor Molina Moreno
Amaia Agirre Inza
Ines Borrego Caballero
M. Eugenia Basterra Arregi
M. Eugenia Arregi Eguren
Lorea Palacios Olamoja
M. Nieves Unamuno Vega
Irene Madinabeitia Uriarte
Ugutz Basauri Ganboa
M. Luisa Gesalaga Larrea
Miren Pereira Gonzalez
Itziar Arrue Aizpurua

**OÑATI**
Miren Zuazola Azurmendi
Ihanire Urteaga Cid
Mikel Sologaistoa
Mauro Gorostiaga Caballero
Nati Ormazabal Letamendi
Cristina Madina Arrondo
Myriam Etxegoien Arzuaga
Amaia Mundiñano Larraza
M. Asun Isasi
Pili Arzuaga
Nekane Murua Olalde
Goretti Madinabeitia Beitia
Andoni Elkoroiribe
Sonia Santos Soñora
Axibar Palacin Iñurritegi
Aitziber Arregi Telleria
Pili Zubizarreta Lapizondo
Ascension Dorado Muñoz
Mila Igartua Agirre
Ana M. Zumalde
Elena Altube Zurutuza

**ESKERRIK ASKO**
**erosketak zure herrian egiteagatik, eta zorionak!**

Nork bere herriko dendari elkartean erabili ahal izango du 20 euroko bonua 2014ko martxoaren 31ra arte.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
aretxarte
BEDELKAR
ibai-arte
txanda

# Goiena Klubeko urtarrileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




EROSKI

## Lenovo tableta

**Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako Lenovo ideatab A2107A tableta**
Parte hartzeko sariaren izena:
Lenovo




ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz




argia

**3 liburu sorta.**
**Freexkue, Mantxut eta Mantxut, Mantxut? liburuak**
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburuak




argia

**2 joko**
**Argiako Bizi Birzi jokoa**
Parte hartzeko sariaren izena:
Bizibirzi

**PARTE HARTZEKO:**
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** kluba@goiena.com
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Teodora Barbarie Iruñatik, punk-crust musika defendatzen. | IMANOL SORIANO



Trigger Travis indartsu ibili zen. | I.S.




Banizu Nizukeko kideak liburuaren aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

# Hardcorearen gotorleku bihurtu da Bergarako gaztetxea Tapoi Fest-en

Musika, liburu zein fanzine artean igaro zuten Tapoi Fest-en hirugarrena

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

Gaztetxera sartu orduko, belarrietarako tapoiz betetako kaxa zegoen esperoan Tapoi Fest jaialdiaren hirugarren edizioan, eta egia esan, beharrezko bihurtu ziren. Kontzertuen intentsitatea eta bolumena izan ziren protagonista bai egubakoitzean eta baita zapatuan ere.

Hardcore eta punk doinuez gain baina, gehiago egon zen Bergarako gaztetxean. Hasi, *Musika eteten denean dantzariak tokialdatu egiten dira* liburuaren aurkezpenarekin hasi zen jaialdia, eta horrez gain, fanzineak, kamisetak, liburuak eta cd zein biniloak erosteko aukera egon zen.

### Argazkilariak aldarrikatzen

*Euskal Herriko Musika Argazkilariak* liburu bildumako laugarren alea aurkezten hasi zuten aurtengo Tapoi Fest jaialdia. Hardcore eta punk eszena deskribatzen duen argazki bilduma txukuna da *Musika eteten denean dantzariak tokialdatu egiten dira* liburua.

Ariane Smierci, Hodei Esteban eta Egoitz Irizar argazkilarien lana batzen du liburuak; eta azken horrek, Banizu Nizuke argitaletxeko Pablo Salgadorekin batera aurkeztu zuten liburua. Salgadoren esanetan, "argazkilarien lana aldarrikatu beharrekoa delako", animatu ziren liburu bilduma kaleratzera, eta aurkezpena amaitu orduko, batek baino gehiagok esku artean zuen liburuaren ale bat.

### Dezibelioak nagusi

Zazpi talde pasatu ziren oholtza gainetik bi egunetan, eta guztiek emanaldi indartsu eta bortitzak eskaini zituzten. Egubakoitzean Trigger Travis, Bar Remigio eta Gaitze; eta zapatuan, Fly Shit, Teodora Barbarie, MKT eta Hardflip. Azken horiek, Drop! taldea ordezkatu zuten halabeharrez.

# Dolua eta heriotzaren inguruko 'Aulki hutsak', bihar Zaraia aretoan

Iñaki Peña medikuak idatzi eta zuzendutako dokumentala Aretxabaletan proiektatuko da

**JAGOBA DOMINGO** | ARETXABALETA

*Maite dugun hori hiltzean zer?* galderari erantzuten saiatzen den *Aulki hutsak* dokumentala proiektatuko dute bihar, hilak 14, Aretxabaletako Zaraia aretoan, 19:30ean hasita.

Heriotzari eta doluari buruzko dokumentala da Iñaki Peña medikuak, idatzi eta zuzendutako ikus-entzunezko lana.

### Herritarrak protagonista

Duela hilabete estreinatu zuten *Aulki hutsak* Elgetako Espaloian, eta aste honetan Aretxabaletan egingo du geldialdia Iñaki Peñaren ikus-entzunezkoak. Aretxabaletako proiekzioa gainera, berezia izango da; izan ere, dokumentalean testigantza ematen dutenen artean Aretxabaletako herritarrak daude-eta.

Edukia ikuspegi ezberdinetatik lantze aldera, profesionalei eta norbait galdu duten senideei egindako elkarrizketak batzen ditu dokumentalak. Horrela, gaur egun, gizartean tabu bihurtu den gaiaren inguruan, esperientzia pertsonal eta profesionalen bidez argibideak ematen saiatzeko. Beraz, bihar Arkupe kultur etxean 19:30ean hasiko da proiekzioa.



Dokumentalaren *making of*-a. | ARTEMAN



*Aulki Hutsak* grabatzen. | ARTEMAN



Aulki hutsa, Urkulun. | ARTEMAN

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Abadiñoko Zelaieta auzoan etxea salgai. 3 logela, guztiz hornitutako komun 2, sukalde berria, egongela, ganbara eta berogailu zentrala. 100 m2. Altzari guztiak berriak dira, eta bertan uzteko asmoa dugu. 252.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 667 -04 41 06.

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Laugarren solairua da. 72 m2. Egongela, sukaldea, bi logela, komuna eta trastelekua. Guztiz berritua. Bizitzera sartzeko prest. Aukera ezinhobea. 99.999 euro. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 618-44 38 44.

**Bergara.** Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan ematen da. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 170.000 euro, negoziagarri. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 626-65 99 94.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat txoko gisa edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko moduaan. Aukera oso ona! Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 651-34 80 08.

**Iurreta.** Arriaundi auzoan etxea salgai. Prezioa: 50.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 685-72 80 42.

**Oñati.** Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 656-00 84 92.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Pisu bat alokagai daukat Abadiñoko herrian, Muntsaratz auzoan. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 655-73 29 28.

**Antzuola.** Herri erdian kokatua. Duplex dotorea. Beheko solairuan sarrera-egongelasukaldea, zabalik, logela bat eta bainugela guztiz jantzia. Atikoan, 50 metro koadroko logela eta egongela. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 699-92 18 60.

**Bastida.** Labastidan oporretako pisua alokatzen dut igerilekuarekin. Torre - Otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara:: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

**Durango.** Durangon pisua alokagai. 4 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 657 -79 54 95.

**Durango.** Durangoko Urkiagatorre kalean pisua alokagai. 3 logela, jan-egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 680-94 92 05.

**Durango.** Etxea alokatzen da Durangon. Lau logela, komuna, sukaldea eta egongela. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 605-77 36 11.

**Durango.** Bi logelako pisua alokagai Durangon. Garaje partzela aukeran. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 680-42 77 02.

**Durango.** Durangon, Mikeldi kalean, pisua alokatzen da. Logela 2, komun 2, egongela, sukaldea eta balkoia. Garajea aukeran. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 680-42 77-02.

**Elorrio.** Elorrio erdialdean, San Juan kalean, pisua alokagai. 111 m2, 3 logela, sukaldea, sarrera, saloia eta bainugela 2. Lehenengo pisua. Igogailua dauka. Kontaktua: Argia (posta elektronikoz bakarrik) argiaub@hotmail.com.

**Elorrio.** 3 logelako pisua alokagai Elorrion. Guztia muntatuta, bizitzera sartzeko prest. Inguru lasaia, eta aparkatzeko oso erraza. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 634-44 00 34.

**Elorrio.** Etxebizitza alokagai Elorrion. 3 logela, bainugela 2, trastelekua eta sukalde egokitua. 600 euro. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 634 -45 72 01.

**Eskoriatza.** Duplexa (lau logelarekin) eta hiru logelako etxebizitza bat errentan ematen dira, oso merke. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 645703663

**Tolosa.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 644 -47 51 69.

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 660-45 87 56.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasaten etxebizitza bat hartuko nuke errentan. 3 logelakoa ahal bada. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 632-17 45 11.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 669-30 16 89.

**Arrasate.** Etxe bat hartuko nuke errentan Arrasateko herrian. Hiru logelekin eta igogailuarekin. Harremanetan jartzeko deitu ezazu hurrengo telefono zenbaki honetara: 617-98 88 76.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez ere. Bi edo hiru logelakoa. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 671-84 71 71.

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 631-36 17 62.

**Oñati.** Etxebizitza bat hartuko nuke errentan, gehienez bi logelakoa eta aukeran, erdigunean. Mila esker. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 672 -62 27 57.

**Durangaldea.** Alokatzeko pisu baten bila nabil, Iurretan edo Durangon. Harremanetan jartzeko deitu honako telefono zenbaki honetara: 631-16 44 82.

### 105. ETXEAK OSATU

**Abadiño.** Logela alokagai Muntsaratzeko auzoan. Etxe berria toki lasaian. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 679-61 71 54.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. Alokairuaren kontratua beharrezkoa. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 664-13 67 44.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan grupo San Juanen, espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 602-69 31 56.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 628 85 42 06

**Bergara.** Logelak emango nituzke errentan Zubiaurre inguru horretan. Emakumeentzat nahiago dut. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 637-18 07 23.

**Durango.** Pisukide bila nabil. Logela bat alokagai, komun pribatuarekin. Etxabe argitsua da, eta terraza bi ditu. Tabira auzoan. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara:637-29 24 65 telefonora.

**Lasarte-oria.** Logela ematen da errentan Lasarte-orian. Eskatzen den bakarra lan-kontratudun pertsona izatea. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 644-23 91 52.

**Oñati.** Logela alokatzen da plazatik gertu dagoen duplex berri batean (langileei, ikasleei...). Wifi konexioarekin. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 656-74 29 49.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Elorrio.** Elorrioko herri erdiko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Pintatu berria. Berria bezala. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 658-75 92 64.

**Otxandio.** Garajea irekia salgai dago Otxandion. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675 -71 72 83

**Otxandio.** Estalitako garajea salgai persianarekin Otxandion. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675-71 72 83.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 943 79 09 59 edo 687 04 49 90

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 83 06 83

### 204. ERRENTAN HARTU

**Autokarabanandako garajea.** Autokarabana sartzeko lekuren bat hartuko nuke Antzuola edo Bergara herriko inguruan. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 676 20 74 35

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Aretxabaleta.** Lokal bat erosiko nuke. 40-90 metro koadro artekoa gustatuko litzaidake. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara:628 51 22 78

### 303. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Berogailudun lokala alokagai, txoko funtzioa betetzeko. 130 m2. Mendiolan. Egun baterako alokatu daiteke, adibidez, jaiak antolatzeko (urtebetetzeak, ezkontzak, batzarrak, agurrak). PlayStation kontsola daukagu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 94-605 62 79.

**Bergara.** Gazteentzako lokalak ematen dira errentan. Oso toki ona. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 669 36 69 53

**Durango.** Plateruen plazan bulegoa alokagai. Gastu guztiak barne 250 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 616-17 71 91.

**Elorrio.** Aukera zoragarria Elorrion, 170m ko lokala herriaren erdian alokatzeko pres, berria, 5 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan ... 400 euro edozein negozio ipintzeko prest, primerako baldintzekin, Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 94-655 03 58 Etxelan 654-75 32 11 .

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** 15-16 urteko neskak lokal baten bila gabiltza, Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 634 45 27 44 edo 671 44 31 90

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Atxondo.** 25 urteko neska euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emoteko prest. Astelehenetik ostiralera. Magisteritza haur hezkuntzako titulua. Eskerrik asko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 658-74 46 87.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Bergara.** Premiaz lana bilatzen dut. Edozein motatako lana egiteko prest. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 606 24 79 09 edo 943 76 52 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu dago. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziaduna eta tituluduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanetarako ere. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 680 77 06 46

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko.Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperitziadun batek, etxeko lan edo zainketarako. Nahiz heldu edo haur. Gidabaimena daukat. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

**Debagoiena eta Debabarrena.** Emakumea gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 943 75 20 98 edo 620 77 30 09

**Debagoiena.** Erizain graduatuak lana aurkitu nahi du osasun arloan: ospitaleak, klinikak eta egoitzak. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 628 30 00 28

**Debagoiena.** 24 urteko neska bat eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia dauzkat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Harremanetan jartzeko

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berrituta. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berrituta. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berrituta. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 617 20 59 43

**Debagoiena.** Emakume arduratsu bat, oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu zein edozelako garbitasun lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldean zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40,

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaindu, garbiketak eta abar. Egunez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 673 78 08 99

**Debagoiena.** makumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen zein edozelako garbitasun lanetan. Esperientzia daukat eta ordutegia adosteko gertu nago. Autoa daukat. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 618 10 37 50

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 602 69 31 56

**Debagoiena.** Esperientziadun mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu, egunez. Ospital zein egoitzatan ere lan egingo nuke orduka eta asteburuetan. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaindu eta sukaldeko laguntzaile lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 943 04 46 37edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientzia handia dut pertsonen zaintzan. Sukaldatzen ere badakit. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: garbiketak, sukalde laguntzaile, gidari, eraikuntzan eta abar. Ez deitu sexu proposamenak egiteko, mesedez. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizain laguntzaile moduan. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasioan ateratzeko gertu. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: egun osoz, etxean bertan bizi izanda, edo bestela. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 673 78 08 99

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketak orduka egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita gauak ospitalean pasatzeko ere. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutan lan egiteko prest. Autoa daukat. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: furgoneta gidari, denetariko garbiketak, zerbitzari eta abar. Auto eta kamioaiak gidatzeko baimena daukat eta baita autoa ere. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: tabernatan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskalerritarra. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

**Debagoiena.** Neska bat lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen zein garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz eta baita orduka ere. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Durangaldea.** Neska gaztea 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 602 -11 06 10.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzen, edo taberna, denda edo fruta-denda batean lan egingo nuke. Erreferentziak eta gidabaimena dauzkat. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 638-33 59 23.

**Durangaldea.** Berrizko andrea etxeko lanak,edozein motako garbiketak eta umeak zein nagusiak zaintzeko prest (Berriz, Durango, Matiena...) urteetako esperientzia. Autoa daukat. Oharra: ez dakit euskaraz hitzegiten. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 659-24 35 48.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, 24 orduz. Atariak eta bulegoak garbitzen ditut. Harremanetan jartzeko deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 690-68 73 95.

**Durangaldea.** 24 orduz nagusiak zaintzeko prest nago. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 679-53 01 60.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketan aritzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Erreferentziarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 632-83 47 97.

**Durangaldea.** Lan bila nabil. Ume eta pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest, orduka edo interna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 609-88 79 21.

**Durangaldea.** Tituludun neska euskalduna bat umeak zaintzeko prest dago. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 662-36 41 64 / 94 681 39 40.

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila. Barneko edo kanpoko langile lez. Umeak edo nagusiak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 662-36 41 64 / 94 681 39 40. 652-85 63 47.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila, barneko edo kanpoko langile lez, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 602-06 73 29.

**Durangaldea.** Tituludun neska euskalduna prest dago umeak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara 662-36 41 67 / 94 681 39 40.

**Durangaldea.** Neska arduratsua prest dago etxeko lanak egiteko zein nagusiak eta umeak zaintzeko; interna edo orduka. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara 632-59 32 80.

**Durangaldea.** Arduratsua den neska bat prest dago etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko ere bai; interna zein orduka ere bai. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara 631-13-22-91.

**Durangaldea.** Pertsonak zaintzeko prest nago: orduka edo interna ere bai. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara 623-64 60 82.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago: orduka edo interna. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 632-43 56 59.

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil: interna, eguneko edo asteburuetan ere bai. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 602 -04 87 45.

**Durangaldea.** Egunez edo gauez, eta egunero zein asteburuetan, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 690-68 73 95.

**Durangaldea.** Egunez edo 24 orduz pertsona nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 633-93 41 06

**Durangaldea.** Metal arloko peoia naiz eta bigarren mailako soldatzaile ere bai prest dago edozein lan egiteko. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 603-07 40 48.

**Durangaldea.** Mutil durangarra edozein ofiziotan lan egiteko prest. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 687-39 26 86.

**Durango.** Lanerako prest dagoen gizon euskaldun bat naiz. Edozer egiteko prest nago: nagusiak zaindu (esperientzia daukat), garbiketa lanak egin, denda edo tailerren batean lan egin... Mesedez, niretzako lantxoren bat badaukazu emaidazu aukera bat, eskertuko nizuke. Eskerrik asko. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez Elorrion haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 688-64 06 04.

**Klinika laguntzaile.** 25 urteko esperientzadun klinikako laguntzaile naiz. Ospitalean jendea zaintzeko prest nago. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 609 98 02 52

**Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest.** Gizarte hezkuntzan ikasketak dituen eta haurrekin esperientzia duen 28 urteko neska oñatiar bat naiz. Arratsaldetan umeak zaintzeko prest nago. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 637 05 63 35

**Neska euskalduna umeak zaintzeko gertu.** 24 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko edota hezkuntza errefortzua emateko prest. Pedagogian lizentziatua eta haurrekin esperientzia handia. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 669 88 49 55

**Oñati.** Gizarte hezkuntzan ikasketak dituen eta haurrekin esperientzia duen 28 urteko neska Oñatiarra naiz. Arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 637-05 63 35.

**Zaintza lanak.** Emakume bat gertu gauez zaintza lanak egiteko, ospitalean edo bestela ere bai, baita orduka ere. Geriatria titulua daukat eta baita autoa ere. Debagoienetik kanpo joateko arazo barik. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Durangaldea.** Frantses eskola partikularrak jaso nahi ditut. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 636-45 73 62.

### 502. EMAN

**Bergara.** Neska euskalduna eta esperientziaduna naiz, Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu nago. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 655 72 41 22

**Durangaldea.** Haur Hezkuntzan, hezkuntza berezian eta psikopedagogian lizentziatua dagoen neska euskaldunak eskola partikularrak ematen ditu Durango aldean, astean edo asteburuetan ere bai. Ikas teknikak, idazketa-irakurketa errefortzuak zein premia bereziak dituzten ikasleei laguntza eskaintzen dut. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 665-71 37 11.

**Durangaldea.** Ingeniaritza lizentziatua LH, DBH edo batxilergoko ikasleei laguntza eskolak emateko prest. Euskaraz zein gaztelaniaz. EGA tituluduna. Edozein ikasgai emateko prest. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 679-42 89 5.

**Durangaldea.** Mintzapraktika eskolak: mutil eskoziarra ingelesez hitz egiteko eskolak emateko prest, heldu eta umeei. Harremanetan jartzeko deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 689 -68 50 19.

**Durango.** Administrazio eta zuzendaritzan lizentziatutako neska euskaldunak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia dauka klaseak ematen. Baita haur eta gazteekin ere. Ordua 6 euro izango litzateke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27.

**Durango.** Ingeles eskola partikularrak eskaintzen ditut Durangon. Dinamikoak eta entretenigarriak. Talde txikiak. Ingelesez hitz egin eta idatzi nahi baduzu. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27. 637-29 24 65.

**Villabona.** Matematika,fisika,kimika, ingleseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituloduna. Hizketaldiak,azterketak, lehendabiziko eguna proba moduan izanik,gero zuk erabaki. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27. 664-16 02 68.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW E30 autoa salgai.** Egoera ezin hobean eta prezio oso ekonomikoan: 1.500 euro (negoziagarriak). Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27.

**Ford Mondeo familiarra salgai.** 2002. urtekoa 223.000 km, 115 zaldi, 5 ate, diesela, gurpil berriak, olioa eta filtro guztiak aldatu berriak, klima, bolarekin, zilar kolorekoa, atzeko leihoak beltzak, beti garajean gordea eta ondo zaindua. 3.100 euro. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 686-89 77 32.

**Nissan Pick Up.** Nissan Pick Up markako autoa salgai: 180.000 km; 2.000. urtekoa; 3.300 euro (negoziagarriak). Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 688-80 55 19.

**Peugeot 307 sw pack 2.0 hdi 110.** 2.003 urtekoa. 159.000km. Neguko gurpilak. Korrea eta filtroak aldatu berri. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 634-43 80 66.

**Mercedes marco polo furgoneta kamper.** Westfalia etxeko ekipazioa, motorra 2.2 cdi 122cv, eskuzko kanbioa, 2002. Urtekoa, 206.000 km Egoera onean. Beti garajean. Prezioa: 21.000 euro. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 606-38 86 90 / 669-24 49 47.

### 602. EROSI

**Enduro motorra.** Bigarren eskuko Enduroko motor bat erosiko nuke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 618 76 34 40

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurra.** Setter ingeles arrazako txakur gazte bat daukat oparitzeko. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 685 76 99 83

**Txakurrak.** Euskal artzain-txakur eta Alemaniako artzain -txakur arrazako txakurkumeak oparitzen dira. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 633-87 05 51.

### 704. BESTELAKOAK

**Perikitoa galdu Aretxabaletan.** Aretxabaletako Iturrizar plaza inguruan perikito urdin bat galdu zen urtarrilaren 7an. Norbaitek ikusi edo hartu badu, dei dezala mesedez zenbaki honetara: 680 68 22 93 edo ainereca@gmail.com

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta.** Aluminiozko kuadroa eta karbonozko horkilarekin. Shimano ultegra piezak. Interesatuok deitu telefono honetara. 687 -11 07 21.

**Errepideko bizikleta.** Errepideko bizikleta, haur edo kadetea, salgai. Orbea vento. Gurpilak: Campagnolo vento. Veloce 10v. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 655-72 40 90.

**Mendiko bizikleta salgai.** Mendiko bizikleta salgai. Ezaugarriak: Felt Q 120 (Gila modeloa); Deore aldagailuak; RST suspentsio urkilak; Disko -balazta hidraulikoa; Neurria: S; Kolorea: grisa; 5 urte ditu. Prezioa: 375 euro; Oso gutxi erabilia, eta berri-berri dago. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 665-71 47 83.

**Entziklopedia salgai.** Enciclopedia General del Pais Vasco Auñamendiren 58 tomo salgai 1.000 euroan. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 946-20 11 67 / 688-88 35 23.

### 802. EROSI

**Elurretako erraketak erosiko nituzke.** Elurretako erraketak erosiko nituzke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 628-51 22 78.

**Moisesarentzako gurpilak.** Moises kapazo batendako gurpilak behar ditut. Emateko edo saltzeko badituzu, gustura hartuko nituzke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 688-61 73 43.

**Nekazaritzarako lursaila.** Nekazaritzarako baliagarria den lursaila erosi nahi dugu, Zaldibar, Mallabia edo Berriz inguruan. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 680-42 77 02.

**Ogia egiteko makina.** Soberan daukazun ogia egiteko makina hori saldu nahi baduzu. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 666 45 87 32

**Soinu txikia.** Trikitixa jotzeko bigarren eskuko soinua erosiko nuke. Salgai duenak dei dezala telefono zenbaki hauetara: 689 20 72 41 edo 943 76 07 09

### 803. EMAN

**Super Nannyren liburuak** ematen dira opari. CDarekin. Seiliburu dira eta berri-berri daude. Bergaran. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

### 804. HARTU

**Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara.** Zure ordenagailua hondatuta edo zahartu badago, edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu eta Kainabera GKEaren bitartez bidaliko dugu Peru eta Boliviako ospitale eta eskoletara. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 655-71 76 66.

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

**Moisesarentzako gurpilak.** Moises kapazo batendako gurpilak behar ditut. Emateko edo saltzeko badituzu, gustura hartuko nituzke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 688 61 73 43

**Poltsikoko egutegiak.** Poltsikoko egutegi txikiak hartuko nituzke. Edozein urte eta iruditakoakizan daitezke. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 617 17 15 88

### 806. GALDU

**Samsung S2.** Samsung S2 telefonoa galdu da Aretxabaletan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskerrik asko. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 639 99 33 34

**Eguzkitako betaurreko.** Gorriak funda eta guzti galdu ditut Arrasaten. Adidas markakoak.Aurkitu izan badituzu, deitu mesedez honako telefono zenbaki honetara: 606 -24 79 09.

**Eskularru eta lepokoa.** Eskularruak eta Buffa galdu nituen mekolalderako bidean abenduaren 17a inguruan. Aurkitu izan badituzu, deitu mesedez honako telefono zenbaki honetara: 943-76 52 39.

## 9. HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Arabiera-euskara.** Hizkuntza trukea egiteko gertu: nik arabiera erakutsi eta trukean euskara jasoko nuke. Debagoienean. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 631-46 56 98.

**Bila nabilkizu eta ez zaitut aurkitzen.** Bila nabilek jo eta ke eta ez haut aurkitzen. Jakin bazekiat nonbait egon behar duzula ezkutatuta edo. Non hago: Bilboko edo inguruko mutil euskalduna, musikazalea, bidaiazalea, irakurzalea, hondarttzalea, hire lagunak zaindu, eta, hitz aspertuak gustoko jendearekin gozatzen dituena , euskal kulturaren maitale haizen hori? Ni Bilboko neska bat nauk 55 urtekoa,eta bizitzari gatza eta piperrarekin betetzen didan aztia aurkitu nahi nuke, ilusioa piztu eta bizitzari ilusioz berriro aurre egin ahal izateko. Heu bahaiz deitu eta konponduko gaituk. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 606-25 05 84.904.

**Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila.** Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 637-34 83 37.

**75 urteko emakumea adiskidetasun bila.** 75 urteko emakume alargunak, antzeko adineko Baiona, Biarritz, Donostia edo inguruko gizon nahiz emakumeekin adiskidetasun bat bilatzen du, pasieran ibiltzeko, museoetara joateko, hizketan aritzeko. Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero deitu telefono zenbaki honetara: (0034) 697-23 28 83 (Marisol).

**Durangotik Arrasatera autoa partekatu.** Durangotik Arrasatera autoa partekatzeko prest nago. Harremanetan jartzeko edo interesa baduzu deitu honako ezazu telefono zenbaki honetara: 610-94 16 74. WhatsAppa daukat.

# Hartz-marka digitala eta erloju adimendunak, 2014ko izarrak

Ericsson etxeak urte hasieran egin ohi duen galdeketaren berri eman du

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Ericsson etxearen ConsumerLab txostenak urte berriko joera nagusiak iragartzen ditu urtero-urtero, erabiltzaileei egindako galdeketa baten bidez. Kontsumitzaileen uste eta lehentasunak azaleratzen dira horrela, joerak ikusteko. 2013aren sokatik, aurten Ericssonen arabera hatz-marka digitalaren aukeretan eta erloju adimendunetan sakonduko dute teknologia enpresa nagusiek. Horretarako, 100.000 elkarrizketa pertsonal egin dituzte 40 herrialde eta 15 mega-hiritan.

**Edonon eta edonoiz**

Eskaera handiena, ikerketaren arduradun izan den Michael Björnen arabera, egunerokoan eragina duten aplikazioena da. Teknologiak eta aplikazioak ugaldu egingo dira arlo horretan, antza. Txostenean jasotzen da aplikazioek, jadanik, mugikorra erabili eta komunikatzeko ditugun moduak zeharo aldatu dituztela eta bilakaera horrek aurrera egingo duela datozen hilabeteetan. Mugikorren ahalmenaren gehikuntzaren fase berri baten sartuko garela diote Ericssonen, eta, hori horrela, erabiltzaileek eskatu egingo dutela bizitzako arlo guztietan erabili ahal izango diren aplikazio mugikorrak, esate baterako, "erosketa egin, osasuna zaindu, harreman instituzionaletarako eta garraioan erabiltzeko".

Bigarren joera nagusia gorputz atal eta lorratzen identifikazioaren alorrekoa izango ei da. Geroago eta pasahitz zehatz eta katramilatsuagoak behar izaten dituzte gailu eta aplikazioek eta horrek biometrika delakoarekiko interesa areagotu du. Inkestatu dituzten erabiltzaileen gehiengoak ongi ikusten du eta nahiko luke pasahitzak barik hatz-makak edo begi-ninia atzeman ditzakeen sistemaren bat erabili. Inkestatuen ia gehiengoak uste du aplikazio biometrikoak urteko joera teknologikoa izango direla.

Horrekin lotuta, gailuek eskaintzen dituzten lokalizazio eta kuantifikazio tresnek norberaren jardueraren kuantifikaziorako aukera, tresna eta aplikazioen zabalkundea ekarriko du, ikusten dutenez, 2014an zehar, dela kirol jarduera, dietaren jarraipena edo taupada edo odol-presioaren monitorizazioa ahalbidetzen duten sistemekin. Finean, mugikorrak eta gorputza elkar lotuko dira aplikazio ezberdinetarako. Guztia eta uneoro konektatu egon behar horrek erabiltzaileen konektibitate eta konexio mailaren kalitate exijentzien gorakada ekarriko duela ondorioztatzen dute galdeketatik.



Lorratz digitalaren irudikapen bat. | SELEKSLAG.COM

# Txioak editatu ahal izateko aukera gaituko du Twitterrek

**J.B.** | ARRASATE

Litekeena da aurki Twitterrek erabiltzaileen aspaldiko eskaera bati erantzutea: txioak, argitaratu eta gero, editatu ahal izateko aukerari, hain zuzen. *The Desk* webgunekoei sare sozialeko hiru langilek baieztatu dietenez, baina, aldaketa ez ei dator erabiltzaileen eskaera horrek bultzatuta, baizik eta hedabide eta eduki-sortzaileen beharrei begira egindakoa da. Aukera, gainera, mugatua izango da eta txio bat editatzeko modua denbora zehatz baten bakarrik baimenduko da, eta behin bakarrik. Helburua da akatsen bat zuzendu ahal izatea edo berbaren bat aldatzea. Horrekin nahi dutena da informazio iturri ofizialtzat hartuak daudenen horien akatsak ez biralizatzea.

# Facebook egunero 12 milioik erabiltzen dute Estatuan

Lehen aldiz, herrialdekako hazkunde datuak zabaldu ditu munduko sare sozialik erabilienak

**J.B.** | ARRASATE

Bat-bateko iraultzarik gertatzen ez bada, behintzat, Facebookek, datuak gorabehera, munduko sare sozialik erabiliena izaten jarraituko du. Orokorrean begiratuta, 1.100 milioi erabiltzailetik gora ditu guztira Facebookek, baina hazkunde zehatzari buruzko informazioa beti izan da oso lausoa Zuckerberg-en konpainiaren partetik. *TechCrunch* gune ezagunak lehen aldiz hazkunde datuen xehatzea dakarren txostena eskuratu du eta zenbait herrialdetako portaeren datuak eskuratu ahal izan dituzte.

**Milioika erabiltzaile**

Frantzia, Espainia, Italia, Suedia, Turkia eta Israelgo datuak zabaldu dituzte, hain zuzen. Espainiako Estatuan, zehazki, 12 milioi erabiltzaile konektatzen dira sare sozialera egunero-egunero. Zifra hori 18 milioira iristen da, gutxienez hilean behin konektatzen direnen kopurua gehituz gero. Espainian 100 erabiltzailetik 58k dute Facebooken profila eta dutenen horietako hirutik bik egunero erabiltzen dute zerbitzua. Amaitzeko, plataforma mugikor baten bitartez 8,1 milioi erabiltzaile konektatzen dira Facebookera Espainiako Estatuan.



Facebooki buruzko muntaia. | GOOGLE

## Spotifyren doako bertsioa prest dago iOSentzat

AppStorean eskura daiteke jada Spotifyren doako streaming zerbitzuaren aplikazioa. Abenduan iragarritakoa betez, doako kontu baten jabeek aplikazioa eguneratuta izango dute Appleren telefono, tableta eta erreproduzitzaileetan. Doako bertsio horrek mugak ditu, halere: erabiltzailek ezingo dute abesti zerrendarik osatu.

## Gailuak hegaldi osoan erabil daitezke jada Espainian

Joandako barikutik aurrera, *Hegaldi modua* delakoa aktibatuta, aireratze eta lur-hartze moduetan ere erabili ahal izango dira gailu elektronikoak. Honela, Batasuneko irizpideekin egingo du bat Espainiak ere eta bidaiariek hegaldiaren fase guztietan izan ahalko dituzte gailu elektronikoak piztuta, konpainiak aurkakorik ez badio.

## Hortz eskuila adimendunak

*Kolibree* dauka izena merkatuko hortzetako lehen eskuila inteligenteak. Mugikorrari lotzen zaio, eskuilatzea analizatzen du eta egiten den denbora eta gune ezberdinak ea modu egokian garbitu diren esaten du. Hortz eskuila berriak *App* bat dauka eta sortzaileek diote urte amaierarako egongo dela merkatuan.



AL1040.COM

## Google Pluseko edozeini posta bidaltzeko aukera Gmail bidez

Kontaktuen zerrendan egon barik ere, Gmail bidez Google Plus sareko edozein erabiltzaileri posta bidaltzeko aukera dago. Hartzailearen eremuan izenaren bilaketa egin besterik ez dago eta sistemak berak profilen iradokizunak ematen ditu. Hartzailea aukeratu eta posta bidal diezaiokegu zuzenean.

## TELE-BEGI



IMANOL GALLEGO

# Aiiiiii José Luis Moreno!

Rokefeller eta Monchito utzi zituenetik bere karrerak gorabehera gehiegi jaso ditu. *Aquí no hay quien viva* eta *La que se avecina* bere faktoriako arrakasta bakarrak izan dira. Bere "matrimoniada" eta gainontzeko saio saiakerek ez dute oso onarpen ona izan eta produktore ezaguna erdi ezkutuan dago orain.

Mediaset inperioak bere produkzio-etxearen zati bat erosi zuenetik proiektu guztiak Vasileren aterkipean garatu ditu eta gorago aipatutako telesaila salbuespen bezala hartuta, gainontzeko proiektuek ez dute oso onarpen ona lortu. Gogoan ditut, gaztea nintzela, TVEk zapatu gauetan eskaintzen zituen gala kasposo horien arduraduna zela Moreno, eta Telecincon antzerako ardura dauka. Bere galak zaharkituta geratu dira, eta audientzia eskasa izateaz gain, oraingoan txinatarrak haserretzea lortu du. Itxuraz, galako *sketch* batean txinatarrei buruz ematen zen irudia iraingarria zen, eta orain bertako Twitteren, Weibon, bolo bolo dabil bideoa. Panamakoaren ostean, Ana Pastor Txinatik ere pasa beharko da. Tristea da baina Morenoren karreraren gailurra *"Toma Moreno'* hartan geratu zen.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

**ASTELEHENA, 13**



**'Eguraldia'**

Pello Zabala eguraldi adituak astelehenerako eta hurrengo egunetarako iragarpena egingo digu. | **15:10**

**12:00** Aho bizarrik gabe
**13:07** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**13:37** Onein
**14:06** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**14:36** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:20** Ur eta lur
**15:54** Onein
**16:23** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Bideo klipak
**17:48** Klaketa
**18:22** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**18:52** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Onein
**19:59** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**20:29** Berriak
**20:54** Eguraldia
**20:57** Harmailatik
**22:42** Berriak
**23:07** Eguraldia
**23:10** Harmailatik
**23:55** Gurean gaur

**MARTITZENA, 14**



**'Kantari Oñatin'**

Oñatin gaztetxoekin grabatutako Kantariko hirugarren saioa ikusi ahal izango duzue martitzenean. | **19:35**

**12:00** Nere herrie
**12:35** Harmailatik
**13:20** Klaketa
**13:54** Zorion Agurrak
**14:25** Erreportajea
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:53** Onein
**16:24** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Klaketa
**17:37** Harmailatik
**18:22** Nere herrie
**18:57** Zorion Agurrak
**19:02** Berriak
**19:27** Eguraldia
**19:30** Zorion Agurrak
**19:35** Kantari
**20:05** Zorion Agurrak
**20:12** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Bertso saioa
**22:28** Berriak
**22:53** Eguraldia
**22:56** Gurean gaur

**EGUAZTENA, 15**



**'Onein'**

Sukalde kontuak izango ditugu *Onein* saioan. Oraingoan ere errezeta bat erakutsiko dizuegu. | **12:40**

**12:00** Harmailatik
**12:40** Onein
**13:10** Kantari
**13:35** Aho bizarrik gabe
**14:42** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Aizank!
**15:55** Harmailatik
**16:35** Berriak
**17:00** Eguraldia
**17:03** Harmailatik
**17:48** Ikusmira
**18:28** Aniztasunean bizi
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Bideo klipak
**19:48** Aizank!
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:57** Zurriolako butaka
**21:27** Organo zikloa
**22:57** Berriak
**23:22** Eguraldia
**23:52** Gurean gaur

**EGUENA, 16**



**Oñatiko kantariak**

Oñatiko azken artista gazteak ezagutuko ditugu eskainiko dizuegun egueneko saioan. | **19:54**

**12:00** Harmailatik
**12:45** Onein
**13:15** Ikusi irratia
**14:03** Zurriolako butaka
**14:33** Zorion Agurrak
**14:42** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Ikusmira
**15:50** Onein
**16:26** Zorion Agurrak
**16:31** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Planik bai?
**17:19** Zurriolako butaka
**17:49** Nere herrie
**18:24** Aizank!
**19:06** Berriak
**19:31** Eguraldia
**19:34** Planik bai?
**19:54** Kantari
**20:22** Erreportajea
**20:37** Berriak
**21:02** Eguraldia
**21:05** Planik bai?
**21:25** Berriak
**21:50** Eguraldia
**21:53** Zurriolako butaka
**22:23** Gurean gaur
**22:53** Planik bai?

**EGUBAKOITZA, 17**



**'AsteOn'**

Astean zehar izan diren albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu, besteak beste. | **21:20**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Onein
**12:56** Kantari
**13:21** Bideo klipak
**13:51** Nere herrie
**14:26** Planik bai?
**14:46** Berriak
**15:11** Eguraldia
**15:14** Ikusi irratia
**16:02** Zorion Agurrak
**16:08** Planik bai?
**16:32** Berriak
**16:57** Eguraldia
**17:00** Zurriolako butaka
**17:30** Bideo klipak
**17:41** Aniztasunean bizi
**18:08** Klaketa
**18:42** Planik bai?
**19:02** Berriak
**19:27** Eguraldia
**19:32** Klaketa
**20:06** Planik bai?
**20:31** Berriak
**20:56** Eguraldia
**20:59** Planik bai?
**21:19** AsteON
**21:49** Berriak
**22:14** Eguraldia
**22:17** Planik bai?
**22:37** Eguraldia
**22:40** AsteON
**23:10** Planik bai?
**23:30** Zurriolako butaka

### ARRASATE IRRATIA

#### Musika kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian

Eguenean, *Niña Coyote eta Chico Tornado* musika taldeak eskainiko du kontzertua Arrasateko Gaztetxean *Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan. Sarrerak zozketatuko ditugu irratian eta lehiaketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

#### Jon Odriozola izango dugu gaur, astelehena, 11:00etan, 107.7an

*Igo autobusera!* irratsaioko elkarrizketaren tartean, gaur, astelehena, 11:00etan Jon Odriozola oñatiarra elkarrizketatuko dugu. Amateur mailako Gipuzkoa taldeari buruz hitz egingo dugu berarekin zabal eta elkarrizketa hori entzun ahal izango duzue Arrasate Irratian.

#### Baserritarren azoka izango dugu berbagai aste honetan

Hileko hirugarren asteburua badator, eta horrekin batera, baserritarren azoka ospatuko da Arrasaten. Bada, azoka horri buruzko azalpenak emango dizkigu astean zehar Marga Garmendia Enplegu eta Garapen saileko teknikariak. *Igo autobusera!* irratsaioan izango da hori, elkarrizketen tartean. Ez galdu.

## TELE-ALBISTEAK

# UDAren partidua eta Euskadiko kimu mailako saskibaloi txapelketa ikusgai

### MUren saskibaloi partidua ere ikusi ahal izango duzue 'Harmailatik' saioan

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Kirol kontu ugari izan dira gurean asteburuan eta horien laburpena jaso ahal izango duzue gaur, astelehena, 20:57ean eskainiko dizuegun *Harmailatik* kirol saioan.

**Partiduak**

Batetik, atzo, domeka, UDAk Zarautz taldearen aurkako partidua jokatu zuen Ibarran eta horren laburpena ikusi ahal izango duzue. Bestetik, saskibaloian MUk Deusto Loiola hartu zuen Iturripen eta bertan gertatutakoa ere jaso dugu. Eta saskibaloiarekin jarraituta, asteburuan Iturripen jokatu den Euskadiko kimu mailako saskibaloi txapelketa ere batu dugu eta han jasotakoak erakutsiko dizkizue Xabi Urzelai aurkezleak.



UDAk Real Union taldearen aurka jokatutako partiduko une bat. | GOIENA

**Markel Uriarte**

Markel Uriarte Orbea taldeko rider-ak Udalatxen egin duen jaitsiera komentatua izan da, bestalde. Bada, gaurko *Harmailatik*' saioan izango dugu Uriarte eta esperientzia horren berri emango digu Goiena telebistan.

# Albistegiekin Debagoienean gertatzen denaren berri, egunero

### 'Berriak' saioa ikusgai duzue 14:45ean, 16:30ean, 19:00ean, 20:30ean eta 22:30ean

**A.T.** | ARRASATE

Egunean zehar Debagoienean gertatu diren albiste garrantzitsuenak erakutsiko dizkizuegu *'Berriak'* saioan orain arteko moduan.

Astelehenetik egubakoitzera bitartean hainbat ordutan eskaintzen dizuegu albistegien saioa, hauetan hain zuzen: 14:45ean, 16:30ean, 19:00etan, 20:30ean eta 22:30ean. Beraz, eguardian 14:45ean izaten da, hain zuzen, saioaren lehen emisioa baina egunean zehar albistegiak ikusteko aukera gehiago ere badituzue uneoro informatuta egon zaitezten.

Monika Belastegik aurkeztutako saioan bailarako herrietako kontuak izaten ditugu hizpide egunero-egunero.



Monika Belastegi. | GOIENA

**'Planik bai?' eta 'AsteOn'**

Gabonetako jaien ostean, aste honetan itzuliko dira Goiena telebistako programaziora eguenetako *Planik bai?* saioa (17:00etan) eta egubakoitzetako *AsteOn* saioa (21:20ean).

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Alyn Cabeza Davila**
Urtarrilaren 17an, 5 urte. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta besarkada bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Oier eta Elene**
Oierrek 7 urte, urtarrilaren 16an eta Elenek 3 urte, 11n. Zorionak, bikote! Ondo pasatu urtebetetzean. Gora Erreala! Muxu potolo bat danon eta, batez ere, Izarren eta Ekaitzen partetik.



OÑATI
**Uxue Igartua Kortabarria**
Urtarrilaren 13an, 7 urte. Zorionak, pitufa! Ondo pasatu zure eguna. Patxo asko etxeko danon partetik.



OÑATI
**Irati Jausoro**
Urtarrilaren 13an, urtebete. Zorionak, Irati! Konturatu orduko heldu da zure lehenengo urtebetetzea! Ondo-ondo pasatu eta patxo handi-handi bat.



ARRASATE
**Alazne Canales Losa**
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Sei urte! Ze handi egiten ari zaren, laztana. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki Aitorren partetik.



BERGARA
**Oier Mendizabal Larrañaga**
Urtarrilaren 10ean, 2 urte. Zorionak, maitxia. Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean eta muxu handi bat laguntxoen eta familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Araitz Lizarriturri**
Urtarrilaren 10ean, 8 urte. "Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako, zorionak belarritik tiratzean, zorionak ta muxu bat zuretzako!". Doltza, Elene eta etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Urko Altuna Berasaluze**
Urtarrilaren 10ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun, eta ondo pasatu eguna, guztion partetik.



ARRASATE
**Julen Barandiaran Sanchez**
Urtarrilaren 9an, 12 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu bat etxeko eta lagunen partetik.



BERGARA
**Lier Montero Sanchez**
Urtarrilaren 9an, urtebete. Zorionak, bitxito! Oso ondo pasatu zure lehen urtebetzean. Amatxoren, aitatxoren, Iraiaren eta Anerren partetik, muxu asko.



ANTZUOLA
**Izaro Irizar Fernandez**
Urtarrilaren 9an, urtebete. Zorionak, txikitina! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Gorka Armendia Zallo**
Urtarrilaren 8an, 10 urte. Zorionak, Gorka, zure 10. urtebetetzean! Aurtengo pastelak handiagoa izan beharko du horrenbeste kandela sartzeko! Muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik, txapeldun!



ARRASATE
**Izaro Sampedro Elorza**
Urtarrilaren 7an, 7 urte. Zorionak etxeko danon partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunien!



BERGARA
**Gorka Domenech Iñarra**
Urtarrilaren 7an, 9 urte. Zorionak, Gorka. Beste urte bat gehiago. Jator-jator jarraitu eta badakizu hemen gaudela. Primeran pasatuko dugu eguna. Belarritik tirakada handi bat eta muxu potolo asko, zure familiaren eta, bereziki Aratzen, aitatxoren eta amatxoren partetik. Horrela jarraitu.



OÑATI
**Naia Letamendi Narraspe**
Urtarrilaren 7an, urtebete. Zorionak, potxola! Muxu handi-handi bat familixa danaren partetik etxeko txikitxuandako eta bereziki Naroaren partetik.



ANTZUOLA
**Lide Etxezortu Gabilondo**
Urtarrilaren 7an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Imanolen, Laidaren, Oierren, Maiderren eta Gariren partetik.



OÑATI
**Haizea Lopez Lasa**
Urtarrilaren 6an, 5 urte. Zorionak, Haizeatxo! Etxeko guztien partetik, oso ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
**Eneko Miranda Arabaolaza**
Urtarrilaren 5ean, 4 urte. Zorionak, pirata! Oso ondo pasatuko duzulakoan jaso muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Naroa Moreno Zubia**
Urtarrilaren 5ean, 6 urte. Zorinak, printzesa! Ondo igaro zure urtebetetze egunean. Sei patxo handi etxeko guztien eta batez ere, Aiurren partetik. Mua!



BERGARA
**Markel Martinez Garitano**
Urtarrilaren 5ean, 6 urte. "Zorionak zuri, zorionak beti...". Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta sei muxu handi etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Garazi Nin Ugalde**
Urtarrilaren 4an, 2 urte. Zorionak, Garazitxo! Familixako danon partetik, egun ederra pasatu eta patxo handi bat!



ESKORIATZA
**Garikoitz Urzelai**
Urtarrilaren 4an, 8 urte. Zorionak, Gari! Txapeldun! Ondo pasatu zure egunean eta jaso muxu potolo asko aitatxoren, amatxoren eta Laiaren partetik. Dominooo....



BERGARA
**Oihan Zubiaga Ilarduia**
Urtarrilaren 4an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta muxu bana etxeko guztien partetik. Mx 1, mx 2, 3 mx...



OÑATI
**Leire Zelaia Arrese**
Urtarrilaren 4an, 16 urte. Zorionak, Leire! Nerearen eta Jonen partetik, muxu handi bat.



ESKORIATZA
**Aiane López Martín**
Urtarrilaren 3an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Maitane Barrutia Font**
Urtarrilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, printzesa, eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Ane Aranzabal Vitoria**
Urtarrilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Txokolate goxoa prestatuko dugu egun polit hori ospatzeko lagun guztien artean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Ros Herrera**
Abenduaren 30ean, 42 urte. Zorionak! Jarraitu zaren bezalakoa izaten; oso lagun ona zara-eta. Patxo handi eta potolo bat etxekoen eta, bereziki, zure lagun Joakin eta Ainhoaren partetik.



OÑATI
**Iñaki Larrañaga Etxebarriarteun**
Abenduaren 29an, 8 urte. Zorionak, Iñaki! Zortzi tirakada potolo belarriei eta ondo-ondo pasatu eguna, txapeldun!



ARRASATE
**Oihan Zulueta**
Abenduaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Etxeko guztien partetik besarkada handi-handi bat. Muak.



ARETXABALETA
**Fabri Garcia**
Abenduaren 27an, 77 urte. Zorionak, amama Fabri. Zure familiaren eta, bereziki, Alazneren, Eiderren, Ireneren, Julenen eta Aritzen partetik. Oso ondo pasatu eguna. Jarraitu horrela denbora askoan; hain jator.



BERGARA
**Ekhi Ormaetxea Cid**
Abenduaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Ekhi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pilo bat danon partetik.



ESKORIATZA
**Izaro Markaide**
Abenduaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Izarotxu! Oso egun ona pasatu eta muxu potolo bat familixako danon partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# JAIOTAKOAK



### Eider Errasti Beloki

Legutio. Abenduak 18. 3,510 kilo. Gurasoak: Maider (Leintz Gatzaga) eta Jon (Legutio). Argazkian, izeba Goizanerekin.



### Noa Bacigalupe Mugica

Etxebarri. 3,2 kilo. Gurasoak: Ainara eta Eneko. Argazkian, Noa, 2014an Debagoieneko ospitalean jaiotako lehen umea.



### Iker Serrano Gonzalez

2,600 kilo. Gurasoak: Andres eta Raquel. Argazkian, Iker amamarekin eta aitarekin.



### Laia Garcia Lopez de Bergara

Arrasate. Urtarrilak 1. 3,480 kilo. Gurasoak: Eli eta Patxi. Argazkian, Laia txikia aitaren besoetan.



### Mariem Teloumite

Bergara. Abenduak 31. 3,200 kilo. Gurasoak: Habiba eta Mohamed Abdl. Argazkian, Mariem jaioberria gurasoekin.



### Paule Eguren Garmendia

Bergara. Abenduak 31. 3,410 Kilo. Gurasoak: Ane eta Beñat. Argazkian, Paule jaioberria amarekin.



### Markel Eraña Urbina

Aretxabaleta. 3,500 kilo. Gurasoak: Naiara eta Iñigo. Markel, 2013an Debagoieneko ospitalean jaiotako azken umea.



### Aner Ardions Rodriguez

Oñati. Urtarrilak 4. 3,600 kilo. Gurasoak: Sara eta David. Argazkian, Aner jaioberria sehaskan.



### Naia Badiola Unzurrunzaga

Bergara. Urtarrilak 7. 3,270 kilo. Gurasoak: Maite eta Iker. Argazkian, Naia jaioberria amarekin.



### Jare Arrotxa Barandiaran

Arrasate. 4,030 kilo. Abenduaren 28an. Gurasoak: Onintza eta Salva. Argazkian, Jare, Izar ahizparen besotan.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Guraso berriei,
EROSKI hipermerkatuaren partetik,
**zorionak!**
Eroskik zuen lehen beharretarako **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

# DENBORA-PASA

## HITZ GEZIDUNAK



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | *Leintz Gatzagan / Gupuzkoako urtegia | ▼ | Ontzien aurrealdea / Kontinente batekoak | ▼ | Jatekoen zerrenda / Bidaia-lagun | ▼ |
| | | | ▶ | | ▼ | | ▼ | |
| | | | Urrin / Kanpo, landa | ▶ | | | | |
| Amerikako estatua / Sasitza | ▼ | Pisua kendu / Ezkontide ar | ▶ ▼ | | | | | |
| ▶ | | ▼ | | | | | | Toka, noa |
| Neona / Gizon izena | ▶ | | Iseka, trufa / Du, niri | ▶ | | | | ▼ |
| ▶ | | | ▼ | | | Bokala / Lotan | ▶ | |
| Amorosa / Masailekoak | ▶ | | | | | ▼ | | |
| ▶ | | | | | | | | |

LUMA

## BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





## SOLUZIOAK

### HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | I | ■ | B | ■ | M |
| | | | A | Ñ | A | R | B | E |
| | | | ■ | U | S | A | I | N |
| ■ | P | ■ | A | R | I | N | D | U |
| S | A | S | T | R | A | K | A | ■ |
| ■ | N | E | ■ | I | R | A | I | N |
| L | A | N | D | E | R | ■ | D | O |
| ■ | M | A | I | T | A | L | E | A |
| Z | A | R | T | A | K | O | A | K |

### BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Mahai-tresnokin, agur Gabonetako kilotxoei

Urtea hastearekin dieta ere hasiko zuen batek baino gehiagok. Sardexka eta koilara hauek erraztuko diete argaltzea.
**www.nopuedocreer.com**






## AHOBERO

### "Beti jokatu du ezkontzarekiko fedeak eta senarrarekiko maitasunak eraginda"

**JORGE SILVA** | ABOKATUA

Ustez dirua zuritzeagatik eta iruzur fiskala egiteagatik inputatu zuten joan den astean Cristina Borboikoa, eta bere abokatuarenak dira hitzok. Defentsa maitasunean eta fedean oinarritzen badu bakarrik, inputatuaren etorkizuna beltz ikusten dugu...
**www.20minutos.es**

## EGURALDIA



Max. 11º
Min. 6º

Goizean fronte batek euria ekarriko du. Arratsaldean berriz ostarteak zabalduko dira.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA
goiena
2014-01-13

## HAMARREKOA

**Ane Gabarain** Ilea horituta heldu da donostiarra 'Goenkale'-ra, eta bizkarrean ibilbide luzea duela: 'Bi eta bat' eta 'Jaun ta jabe' bezalako telesailak, hainbat antzezlan eta pelikula... TXOMIN MADINA

# "Sutan jartzen nau aktoreak pertsona seriotzat ez hartzeak"

**1. Kosta zaizu, baina azkenean zeu ere heldu zara Arraldera.**
20 urte kostatu zait, baina iritsi gara. Pozik nago: lana da, eta lankideekin oso gustura nago; ezin naiz kexatu. Lantalde oso majoa da eta ondo pasatzen dugu.

**2. Zer kontatu ahal diguzu Barbarari, zure pertsonaiari buruz?**
Asko ez; tramak sortzen doaz, eta sarri gu gara sorpresa handiena hartzen dugunak. Ez dakizu zure pertsonaia nondik joango den eta hori polita da, bizitzan bezala.

**3. Askorentzat *Bi eta bat*-eko Jaione izango zara beti.**
Maitasun handia diot *Bi eta bat*-i. Lan horrek markatu egin gintuen aktore moduan. Euskarazko lehenengotako *sit-com*-a izan zen, alor guztietan oso zaindua; beste garai bat zen. Oraindik ere asko gogorarazten didate, zorionez.

**4. Telebista bai, baina antzerkia ahaztu gabe. Nola doa *Terapiak*?**
Ondo, oso gustura. Obra oso polita da, bikoteen terapiari buruzko komedia. Arina da, baina badu mamia. Oso koadrila ona gaude eta oso ondo pasatzen dugu.

**5. Gogoratzen etxean aktore izan gura zenuela esan zenuen eguna?**
Sena banuen: eskolan, antzerkia egitean, barrukoa nuela sentitzen nuen. Atipikoa da, baina etxean planteatzean normala iruditu zitzaien, eta amak nire erabakia defendatzen zuen: uste dut nire gurasoek ere badutela sena.


AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Antzokiak jendez beteko nituzke"

"Ez nuke ezer ere egingo makilarekin, zentzudunagoa den norbaiti eman baizik: ni oso despistatua naiz eta edozein tabernatan edo bazterretan utziko nuke; ez nintzateke kargu egingo. Baina derrigortuz gero, zerbait egitekotan, antzokiak jendez beteko nituzke".

**6. Aktoreen inguruko zein mitok haserretzen zaitu gehien?**
Sutan jartzen nau jendeak esateak: "Zu *artista* zara", dirurik beharko ez bagenu edo beste planeta batekoak bagina bezala; pertsona seriotzat ez hartzeak. Beste edozeinek dituen behar berberak ditugu.

**7. Arrakasta edo porrota, zein da barneratzeko errazagoa?**
Arrakasta, kontrako esatea hipokresia hutsa da! Baina porrota ere naturala da, bizitza porrotez eta arrakastaz osatuta dago. Porrotetatik asko ikasten da gainera.

**8. Zure abeslari gaitasunak ere ezagutu ahal izan ditugu...**
Ikaragarri gustatzen zait abestea, nahiz eta aspaldian ez dudan abestu antzerki lanetan. *Te invito a una copla* izeneko formatu txikiko ikuskizun baten parte hartzen dut: koplak kantatzen ditugu, umorezko monologoekin-eta tartekatuta.

**9. Sarri aldatu duzu etxez, baina beti Donostian bertan.**
Grosen bizi naiz, poz-pozik; baina Amara Berrian eta Amara Zaharrean, Egian... bizi izan naiz. Ez da erabaki kontzientea; Madril edo Bartzelona bezalako hiri handiak asko gustatu arren, lanagatik edo nire jendea hemen dudalako, horretara eraman nau bizitzak.

**10. 2014rako zure helburuan artean, baduzu erretzeari uztea?**
Dezente utzi diot: eguneko lauzpabost erretzen ditut. Horretan mantentzen banaiz, pozik!

## BIHARAMUNA

**XABIER ZUBIZARRETA**



### Itsasoa

Tantaz tanta, orain itsasoa gara...! Eta egia esan, gure Kantauri itsasoa, ez dakit haserre ala ez, baina zerbait adierazi nahian ibili zaigu; Elkartasuna agian...! iragan egunotan, itsasertza benetan astindu du, bere olatuak hiri eta herri barrenetaraino sartuz. Halere, beste bi olatu, (eta ondotik etor daitezkeenak) azpimarratu nahiko nituzke. Bata Bilboko kaleetan barneratu den giza olatu erraldoia; Eta bestea, sare sozialetakoa. Pablo Ruz epaileak, eta zeinek ez!, delitu zantzurik ikusten ez zuen leku berean Eloy Velascok terrorismoaren goraipamena zekusan eta laino beltzak bidaltzen saiatu zen. Euskal gizarteak, haserre egoteko arrazoirik ez zuen falta, baina batasunaren olatua eragin zuen. Eta larunbatean, Bilbon, eguraldi oso ona egin zuen; berebizikoa. Aspaldi hontan egin ez duen modukoa alajaina!. Aldi berean sekula baino "euri" gehiago egin zuenarren, tantaz-tanta itsaso erraldoi bat osatzera iritsi arte, etorkizun oparo baten eguzkiak, itzelezko distira erakutsi zuen. Eskerrikasko Velasco! Iragan berri den 2014ko Urtarrilaren 11 hau, gure memorian gordetzeko modukoa izango da, sekula eman den giza kontzentraziorik haundiena eman zen eguna baitzen; herri honen eta herri hontako seme-alabarik onenen giza eskubideen defentsan. Euskal presoak Euskal Herrira.

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
*euskaltegi@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
*berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
*euskaltegia@oinati.net*

Matrikula zabalik
Informa zaitez!

emaiozu euskarari




UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturteacurso 13/14